

# Goienkaria

2008ko irailaren 19a > Egubakoitzza > VIII. urtea > 345. zenbakia > Doan banatzekoak

www.goiena.net

## G2a

Kubatar musika  
bultzatzeko  
ekintzak > 43-44

KONPOSTA  
Astelehenean eman daiteke izena  
konposta egiteko kanpainan > 06

INTERNET  
GOIENKARIA sarean ere irakur  
daiteke, Scribd programarekin > 51

RALLYSPRINTA  
Euskadiko Txapelketako onenak  
izango dira bihar Aramaion > 41

"Bezeroek  
emandako  
saria da  
Chairman's  
Award  
guretako"

Anton Pol  
Ford Mugarriko  
gerentea > 09



ARRASATE > KATUAK

## Katuekin bizitzeko aholkuak

Kaleko katuek sortu  
dituzten arazoeng  
gainekeko hitzaldia  
egingo dute gaur > 15

ANTZUOLA > ZERBITZUAK

## Eguneko zentroa gertu dago

Astelehenean  
zabalduko dute, eta  
sei erabiltzailerekin  
hasiko dira > 36

GARRAIOA > PARTEKATZEA

## 'Autoa elkarrekin' egitasmoa

Autoa partekatu nahi dute  
nendako *'Autoa elkarrekin'*  
delako egitasmoarekin bat  
egin dute Arrasateko Udalak  
eta hainbat norbanakok. Gas-  
tuak eta kutsadura murrizte-  
ko aukera ona dela diote parte-  
hartzaleek, eta ekimen  
hori ezagutarazi nahi dute  
debagoiendarren artean. > 05

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarrikzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

EPAITEGIAK > ALDERDIEN LEGEA

## Bost alkatetza eta 9.389 boto lortu zituen EAE, legez kanpo

**JARRAITU** Ibarreko EAEk ez du,  
oraingoz, iritzirik eman, baina  
Ezker Abertzaleak esan du "lan  
politikoa jarraituko" dutela

**IBARREAN** 2007ko  
hauteskundeetan, 29 zinegotzi  
-zortzi, balio barik utzita- eta  
bost alkatetza lortu zituen EAEk

**PROTESTAK** EAE-ANV zein  
Amnistiaaren Aldeko Batzordeen  
aurkako epaiez protesta egiteko  
ekitaldiak izan dira asteon > 04



BIR-ZIKLETA Rafa Ugarte, Arrasateko Ingurumen teknikaria, eta Olatz Undagoitia, Bir-zikletako materiala jasotzen ibili dena.

ARANTZAZU EZKIBEL

## Bizikleta bultzatzeko ekintzak, Eskoriatzan eta Arrasaten

Garraiobide alternatibo eta ingurumena  
errespetatzen dutenak ezagutarazteko eta  
bultzatzeko Mugikortasun Astea egiten  
dabiltza Arrasaten eta Eskoriatzan, eta  
aste bukaeran hainbat ekintza egongo dira:  
besteak beste, Bir-zikleta bigarren eskuko

bizikleten azoka egingo dute Arrasaten; bai-  
ta kutsakorrak ez diren hainbat gailuren  
erakusketa eta proba -auto hibridoak, elek-  
trikoak, segway-ak... Eskoriatzan, bizikle-  
ta ibilaldia egingo dute, eta baita tailerrak,  
dokumentalak... eta beste. > 19 eta 35

**Embalan3**  
Enbalaje Sistemak

ITSAS ENBALAJE eta AROTZERIA INDUSTRIALA, PALETAK, KAXAK eta  
ENBALAJERAKO MATERIALEN HORNIKUNTZA: FILMAK, ZINTA ITSASGARIKI,  
PLASTIKOZKO PALETAK, eta abar...

Tel.: 943 76 99 72

Zatoz **TOYOTA PRIUS**  
auto **HIBRIDOA probatzen!**

Irailaren 20 eta 21an  
Arrasateko  
Biteri plazara

Europako mugikortasunaren Astea Arrasaten

**TOYOTA**  
www.euskoauto.toyota.es  
902 34 52 45

**EuskoAuto**  
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85  
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

EKONOMIA &gt; SOZIETATE ZERGEN GAINeko EBAZPENA

# Kontzertu Ekonomikoaren alde jarri da Europako Batasuneko Auzitegia

**HAINBAT ZERGA-ERREGIMEN** Estatu batean hainbat zerga-erregimen egon daitezkeela indarrean ebatzi du egunotan Luxenburgoko Auzitegiak

**SEGURTASUN JURIDIKOA** Adituen esanetan, Debagoieneko enpresei segurtasun juridikoa eta egonkortasuna emango die ebazpenak

**ESPORTAZIOAK** Bailaran esportazioak funtsezkoak direla eta, beraz, zerga-marjina egotea ezinbestekoa dela diote, enpresen lehiakortasuna mantentzeko

**MIRIAN BITERI** > BERGARA Luxenburgoko Auzitegiak Euskal Autonomia Erkidegoaren (EA) autonomia fiskala legezkoa dela eta, beraz, Espainiako gainontzeko tokiekin alderatuta bestelako zerga eduki dezakeela ebatzi du egunotan. Horren harira, estatu batean hainbat zerga-erregimen egon daitekeela ondorioztatu du; autonomietako gobernuak berezko zergaraudiak izan ditzaketela eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioak bat datozena eskema horrekin. Ebazpen hori Europako Batzordeak esaten duenaren kontra doa.

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak, gainera, agindua eman du. EAko Auzitegiaren esku utzi du euskal autonomia fiskala aztertza. Zergak arinduta, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ogasunek jasotzen ez duten dirua Kupoaren bidez berdintzen den argitzeko agindu dio.

**ASPALEKO GATAZKA** Oñatiako zerga-zuzenbide irakasle German Aginagaldeak aipatu du ezagutu berri den ebazpena Espainia mailan dagoen gatazkatik datorrela. Kontzertu Ekonomikoak emanda, Euskal Autonomia Erkidegoak zerga-sistema berezia duela eta Errioxako Gobernuak eta Gaztela eta Leongo Juntak horren kontra auzitegiatarako dutela gogora ekarri du.

Hala, jakina denez, 2004an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozietate Zerga legez kanpokotzat jo zuen Espainiako Auzitegi Gorenak, tasa orokorra %32,5 zelako, besteak beste. Espainiakoa bai- no 2,5 puntu txikiagoa, hain zuzen.

**SEGURTASUN JURIDIKOA** Ebazpenak izan ditzakeen eraginez ere hitz egin du Aginagaldek: "Luxenburgok Kontzertu Ekonomikoari eman dion babesa izugarrizkoa da. Egiten dena ondo

egina dagoela eta legez kanpo ez dagoela dio. Horrek izugarrizko bultzada eta segurtasuna ematen die aldundie. Ondorioz, Debagoieneko enpresendako ez ezik, Euskadi mailan garrantzi handia duen ebazpena da. Segurtasun juridikoa eta egonkortasuna emango die; izan ere, enpresek orain badakite Euskadin argitaratzen diren zerga-arauak ezin izango direla errekurritu eta, beraz, ez direla urte batetik bastera aldatuko".

UNEDEko zuzendari Juanjo Alvarez ere Aginagalderen iritzi bereko da aipatzen duenean ebazpenak segurtasun juridikoa emango diela enpresei. "Enpre-sariendako oso garrantzitsua da, negoziatzailea ondoan izatea bermatzen duelako: Diputazioa eta, gure kasuan, Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoan, esportazioak funtsezkoak dira Debagoienean egoerari aurre egin ahal izateko. Horren harira, ezinbestekoa da

zerga-marjina egotea, gure enpre-sen lehiakortasuna mantentze-ko". Herritarrendako ere onura-garraia dela dio Alvarezek: "Krisi garaian, zerga-presioa arintzeko edo presio horretatik jasotako baliabideak sistema sozialera bideratzeko balio deza-ke. Azken finean, gure zerga-sis-temak Europako Batasunaren bedeinkapen juridikoa jaso du".

Auzia, baina, ez da oraindik amaitu. Errioxako Gobernuak eta Gaztela eta Leongo Juntak



Miguel Lazpiur  
Confedebasko presidente

**"Azoreetako auziaren ebazpeneko baldintzak bete ditu Auzitegiak"**

"Euskal zerga-sistemaren gainean Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenarekin oso pozik gaude. Ebazpena emateko Juliane Kokott abokatu nagusiak joan den maiatzean emandako irizpideak jarraitu ditu. Euskal zerga-araudiaren ahalme-na onartzen du; gure autogober-nuaren elementu gakoa. Gainera, Azoreetako auziaren ebazpenean ezarritako baldintzak bete ditu, estatua ez den toki bateko zerga-sistema Europako legediarekin bat datorrela onartuz. Gure zerga-sistema garapen ekonomiko eta enpresarialaren zerbitzurako funtsezko tresna moduan erabil-tzeko eta, horren ondorioz, gaur egungo egoera ekonomikoak eragiten dituen oztopoei aurre egiteko balioko du".



Mari Carmen Gallastegi  
Ekonomialaria

**"Zaila da ongizatea mantentzea finantz eta ekonomia barik"**

Ez dago zalantzarik joan den egunean Luxenburgoko Auzitegiak Kontzertu Ekonomikoaren gainean hartutako erabakia ospatzeko dela. Euskadiko autogobernuaren Kontzertua gakoa da; izan ere, ekonomia eta finantzak dena ez badira ere, funtsezkoak direla ezin da ukatu, horiek gabe zaila da-eta euskal herritarren ongizatea mantentzea, eta are gutxiago hobetzea. Kontuan izan behar dugu sozieta-teen gaineko zergan eta errentakoan ere araudi propioa izatea oso garrantzitsua dela; foru aldundie, eta gure kasuan Gipuzkoako Foru Aldundiari politika ekonomikoa eta fiskala egiteko aukera ematen dio, eta hori, azken finean, guztiendako da onuragarria.

**IDIOMASTER ARRASATE**  
*matrikula zaitez!!*  
hizkuntzak  
Ingelesa, Frantsesa, Alemana

Otalora 29 - 20500 ARRASATE  
Tel./ Faxa: 943 79 07 84

idiomaster@euskalnet.net www.idiomaster-arrasate.com



Diputazioen autonomia berretsi du Luxenburgoko Auzitegiak; irudian, Gipuzkoako Diputazioak Bergaran duen Ogasun bulegoa.

I.A.

horren kontra auzitegietara joko dutela iragarri dute. Bi horiek dira gatazka auzitegietara era- man zutenak.

Aginagalderen esanetan, helegiteak aurkeztekoi eskubidea badute ere, ez dute zeregin askorik. Luxenburgoko Auzitegiak ebazten duenak Europako Bata- suneko epaile guztiek errespetatu behar dutela azpimarratu du. Gatazka horrekin behingoz amaitzeko, gaur egungo zerga-arau- diak lege bihurtu behar direla ere

azaldu du: "Kontzertu Ekonomikoak blindatzean dago gakoa. Zer- ga-arauadiak diren bitartean, hele- giteak aurkeztu ahal izango dira".

#### KONTZERTUA 1981A EZKERO

Horren harira, Kontzertu Ekonomikoaren garrantzia nabarmen- du: "Autonomia guztiz gara- tzeko aukera ematen duen tres- na da". Kontzertu Ekonomikoa 1981ean adostu zen. Hasiera baten, 25 urteko iraupena zuen, baina epea agortu aurretik guz-

tiz berrikusi zuten 2002ko azaroan. Alvarezek horren garran- tzian sakondu nahi izan du. Adie- raztu du Kontzertu Ekonomikoa Foru garaitik datorren *zigilu his- torikoa* dela. 1978ko Espaniako Konstituzioaren eta 1979ko Esta- tutu Autonomikoaren omiritzia- rekin, Espaniako Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidego- aren arteko harreman fiskalak arautzen dituen ituna dela gogo- ra ekarri du. Horren bidez, EAEk bere finantza bideak ezartzeko

eta horiek kudeatzeko ahalme- na du; herritarrengandik zergak bildu eta horiekin zer egin ahal- bidetzen du.

Alvarezan arabera, "zerga-sis- temari dagokionez, estatu batek duen ahalmen bera dugu, muga batzuk baldin baditugu ere. Ahal- men politiko izugarria ematen du horrek". Horren harira, nabar- mendu nahi izan du ez dela "pri- bilejioa" eta EAEk diru kopurua ematen diola Espaniako Gober- nuari, Kupoaren bidez: "Gainon-

tzeko autonomi erkidegoen moduan, guk ere dirua ematen diogu Estatuari, transferitu barik dauden eskuduntzendako".

#### KATALUNIA

Kataluniako egoeraz ere hitz egin du UNEDeko zuzendariak. Kata- luniako Estatutu berria azkenean onartzen bada ere, EAEk eta Nafarroak duten maila izatera ez dela iritsiko aipatu du.

Alvarezen esanetan, "Estatu- tuan zerga-sistema propioa izatea aurreikusten da, baina Espania- ko Ogasunak zehazten dituen mar- jinen barruan. Zerga-agentzia pro- pioa eduki ahal izango dute, bai- na ez dute guk daukagun eskuduntza marjinariak izango. Ez dute lortuko gure zerga-sistema- ren eta Kupoaren arteko oreka".

#### PEDRO SOLBESEN ERANTZUNA

Espaniako Kongresuan gai horren gainean eztaba idatzi zuten eguztenean, EAJk hala esku- ta. Talde jeltzaleak Kontzertu Ekonomikoari babes ekonomi- koa ematea esku zuen eta Espai- niako Ekonomia ministro Pedro Solbesek eskatutakoa "aztertuko" duela erantzun zuen.

Kontzertuaren baliotasuna bermatzen duen Luxenburgoko Justizia Auzitegiaren epaiare- kin bat datorrela esan bazuen ere, EAJk esku zuen aldaketa "konplexuak" direla arrazoitu zuen Solbesek.



Markel Olano  
Diputatu nagusia

#### "Ezinbestekoak da Estatuak foru-arauak blindatzea"

"Epaia garrantzi historikoa du. Europak gure autogobernu sistemaren oinarri eta euskarri diren zerga autonomia eta itun erregimena aitortzen ditu. Aurrekari bat ezartzen du eta, etorkizunari begira, Estatuko erakunde eta alderdi politiko guztiak behartzen ditu bere harremanetan errespetu handia- goz jardutera. Ezinbestekoak da Estatuak foru-arauak blindatzea, behingoz argi eta garbi zehazteko zein den foru-arauen posizioa aldundi ordenamendu juridiko- an eta Estatuko. Blindatze hori ezinbestekoak da gure foru-arauak, gatazka kasuetan, Auzitegi Konstituzionalak bakarrik epai ditzan: horrela bukatuko dira- eta azkenaldian gure itunak jasan dituen mehatxu eta erasoak".



Eduardo Zubiaurre  
Adeko presidenteak

#### "Erabateko ziurtasun juridikoa izan behar du Kontzertuak"

"Ebazpena oso garrantzitsua da, gure zerga sistema propioak Europan lekua duela berresten duelako. Ondorioz, Europan eta oraingoan erabilitako argudioekin ezingo da berriro auzitan jarri Kontzertu Ekonomikoa, baldin eta honek Luxenburgoko Epaitegiak jarritako baldintzak betetzen baditu. Gure nahia izango litzate- ke Kontzertuari erabateko ziurtasun juridikoa ematea, eta, gainera, uste dugu orain une egokia izan daitekeela horretara- ko. Hori egiten ez den bitartean ez litzateke harritzeko izango Kontzertua pribilejio moduan ikusten dutenek auzitegietara jotzen jarraitza. Kontzertu Ekonomikoa gure burujabetzaren oinarri garrantzitsua da, eskubide bat da, eta defendatuko dugu".

**MULTIOPTICAS**  
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN  
[www.multiopticasmipuzkia.com](http://www.multiopticasmipuzkia.com)

Eskaintza honen balioa 08/09/01etik 08/10/31ra artekoa da. Beslay 1.5 lente organiko gogortuak; zilindroa, +2; esfera, +2tik -4ra. Eskaintzaren balioa betaurreko bietan graduazio berdinak izateko da, eta ezin da metatu beste promozioetara.

R.P.S. N° 190/04 I.G.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 <b>ARRASATE</b>	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 <b>BERGARA</b>	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 <b>DONOSTIA</b>	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 <b>EIBAR</b>	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 <b>ERRENTERIA</b>	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 <b>IRUN</b>	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 <b>ORDIZIA</b>	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 <b>TOLOSA</b>
--	---	--	---	--	--	--	---

POLITIKA &gt; ALDERDIEN LEGEA

# Ibarreko 9.389 boto emaileren aukera legez kanpo laga du Auzitegi Gorenak

Martitzenean eman zuen epaia Francisco Jose Hernandok, Goreneko presidenteak

Baltazar Garzonen aginduz, alderdiaren jarduera etenda zegoen otsaila ezkero

**ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA**  
Espaniako Auzitegi Gorenak EAE-ANV legez kanpo uzteko epaia atera zuen martitzenean; gainera, alderdi politikoa dese-giteko agindua eman du, baita haren ondasun guztia kentzeko ere. Goreneko presidente Francisco Jose Hernandok eman zuen epaia prentsaurrekoan.

Irailean egin zuten EAERi buruzko auzi saioa, eta EAEk joan den egunean aurkeztu zituen alegazioak. Gorena astehenean hasi zen defentsaren alegazioak aztertzen eta martitzenean eman zuen epaia. Larraitz Ugarte abokatuak GOITBn esan-dakoaren arabera, "argudioak aurkeztu direnetik epaia eman den arte 24 ordu besterik ez da pasatu. Prozedurari bakarrik begiratuta ikusten dugu herri honetako sektore garrantzitsu batentzat ez dagoela berme juridikorik, ezta justiziari ere".

Epaia emateko orduan, Gorenak kasu egin die Estatuaren abokatuaren eta fiskalaren eskarei. Hain bi argudio nagusi era-bili dituzte EAERen aurka: Batasunari laguntza eta sostengu politiko-instituzionala ematea eta Batasunarekin lotura finantzario-ekonomikoa izatea. Hala, Goreneko 61. salak eman du epaia eta aho batez hartutako erabakia izan da.

## JARDUERAK ETENDA

Joan den otsaila ezkero alderdia-ren jarduera etenda zegoen Baltasar Garzon epailearen aginduz.



Eguaztenean erabakien kontra Arrasaten egin zen manifestazioa.

IRATI GOITIA

EAE 1930ean sortu zuten, eta ordezkaria esanguratsua izan zuen Errepublika garaian. Gainera, alderdiak modu aktiboan har-tu zuen parte Espaniako gerran. Alderdi Eusko Jaurlaritzako kide izan zen Jose Antonio Agirre lehendakaria zen garaien.

2007an udal eta foru hautes-kundeetara aurkeztu zen, baina ez leku guztietan; izan ere, EAE-ren hainbat zerrenda balio barik utzi zituen Espaniako justiziak. Hernandok iragarri duenez, Auzitegi Goren bihar hasiko da aztertzen EHAK legez kanpo uzteko auzia. Larraitz Ugarteren esa-netan: "Badakigu zein izango den erabakia".

## ERREAKZIOAK

GOIENKARIA harremanetan jarri da azken Udal hauteskundeetan EAERen izenean aurkeztu ziren hainbat alkatererekin,

epaiaren gaineke iritzia jasotze-ko, baina oraingoz ez dutela iritzirik emango adierazi dute.

Baina martitzeneko epaiak askotariko iritzia eragin ditu. Lokarri, akordioaren eta kontsultaren aldeko taldea, epaiaren kon-tra agertu da eta esan du eskubide eta askatasunen murrizketa ekarriko duela. Amnistiaaren aldeko taldeak hauxe esan du: "Espai-

niako Estatuak Euskal Herrian ezarri duen salbuespen egoera sakontzeko eman duen azken urratsu da EAE legez kanpo uztea". Ezker Abertzaleak esan du "lan politikoa egiten jarraituko duela".

Patxi Zabaletak Aralarren ize-nean honakoa esan du: "Albiste txarra da, bai demokraziarentzat, eta baita euskal gizartearentzat ere. Erabaki horretan iritzi politikoa epaitu dute". Ezker Batuko Mikel Aranak esan du EB kontra dagoela. Gaineratu du Espaniako Gobernuak gura duena egiten due-la legediarekin. Mikel Irujok (EA) esan du erabaki hori atzerapauso dela. "Iraganean konponketarako fruiturik eman ez duten formulak aplikatzea dakar". EAko Andoni Ortuzar ere kontra agertu da. "EAJ beti egin da Espaniako alderdien legearen kontra. Ezin daiteke ideia politikoa eta indarkeriaren era-bilera nahastu".

DATUA

29  
ZINEGOTZI

2007an ibarreko udaletan 29 zinegotzi lortu zituen EAEk; bost udaletan alkatetzak, gainera. Aretxabaletan (4) eta Oñatin (4) zerrendak balio barik utzi zituzten.

## ESANAK

"EAJ alderdiak uste du ezin direla ideia politikoak eta indarkeriaren erabilera nahastu"

Andoni Ortuzar > EAJ

"Zuzenbide estatuak funtzionatzen duen seinale da Auzitegi Gorenak hartu duen erabakia"

Jose Antonio Alonso > PSOE

"Prozedurari begiratuta, herri honetan berme juridikorik ez dagoela argi geratu da"

Larraitz Ugarte > Abokatua

## PP-PSOE, ALDE

Alderdi Popularrak ontzat eman du epaia eta berretsi du EAE ETAREN muntaia dela. PSOEren izenean Jose Antonio Alonsok esan du zuzenbide estatuak funtzionatzen duen seinale dela.

## AMNISTIAREN MUGIMENDUA

Auzitegi Gorenak Amnistiaaren Aldeko Batzordeen kontrako epai kaleratu zuen eguztenean; epaiaren arabera, 8 eta 10 urteko kartzela zigorra jasoko dute epaitutako 21 kideek. Zigor horiek ezartzeaz gain, Amnistiaaren Aldeko Batzordeak eta Asuntasuna legez kanpokotzat jo ditu epaimahaiak eta desegiteko agin-du du. Auzian epaitutako artean ez dago ibarreko inor.

Auzitegi Gorenaren erabakiaren kontra batzarra eta mani-festazioa egin zuten eguztenean Arrasaten.

**UNED-Bergara**  
*Zure denbora eta zirkunstantzietara egokitzen den unibertsitatea*

**HITZALDI INFORMATIBOA**  
**Irailak 23, asteartea. 19etan**  
Koldo Mitxelena Kulturunea.  
Donostia.  
■ Publiko guztia irekia

- 30 karrera Unibertsitario baino gehiago
- Jarraipen individualizatua eta eskaintza egokitua
- Doktoretza ikastaroak, graduondokoak, masterrak...
- Tutoreta Telematikoak eta segimendu presentziala

UNED-Bergara ■ San Martin Pl 4, 20570 Bergara ■ Tel. 943 769 033 ■ info@bergara.uned.es ■ www.uned.es/ca-bergara

**NUEVA IMAGEN**  
**IKASKETA ZENTROA**  
**ILE APAINTZE-ESTETIKA**  
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**  
Maila goreneko diplomatura

**GASTEIZ**  
Santiago etorbidea 25 (autobus geltokiaren ondoan)  
945 27 91 33

ZERBITZUAK > 'AUTOA ELKARREKIN' EGITASMOA

# "Lagunak egin eta gastuak txikitzen dituzu autoa partekatuta"

Ibarrean autoa partekatzeko zerbitzuari bultzada eman gura diote dagoeneko erabiltzaile direnek

Arrasateko Udalaren webgunea da zerbitzuaren berri ematen duen Debagoieneko bakarra

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Lanera edo ikastera joateko edo beste bidaia batzuk egiteko autoa partekatu gura dutenendako, *'Autoa elkarrekin'* izeneko egitasmoarekin bat egin dute hainbat udalek, tartetan Arrasatekoak. Baino zerbitzuaren erabiltzaile izan daitezkeen askok egitasmoaren inguruko berririk ez dutela diote dagoeneko autoa partekatzeko dutenek. Debagoieneko udalen artean Arrasatekoak barkerrik ematen du autoa partekatzea zerbitzuaren berri; hain zuzen ere, [www.arrasate.compartir.org](http://www.arrasate.compartir.org) helbidean. "Gasteizen lanean hasi nintzenean lankide batek komentatu zidan autoa partekatzearena, eta Gasteizko Udaleko webgunean aurkitu nituen bidaiatzeko lagunak. Iaz, Bergarako neska batzuekin ibili nintzen, eta orain, Bergarako neska bat eta Legazpiko mutil batekin", esan digu Aitziber Altube oñatiarrak. "Baina konturatu nintzen ibarreko udal gehienetan ez dutela informazio-rik ematen; orduan, hedabideetara jotzea erabaki nuen".

#### "BITARTEKARIK GABE"

Dagoeneko autoa partekatzen dutenek uste dute gastuak txikitzeko aukera ona dela eta erraz egiteko, gainera: "Zerbitzuaren berri ematen duten webguneetan sartuta, han azaltzen dituzte jarraitu beharreko pausoak. Lanera edo unibertsitatera joateko eta bidaiatzeko autoa partekatzeko aukera eskaintzen dute. Norbere datuak sartu behar dira; besteak beste, izen-abizenak, tokia eta ordutegia zehaztu behar dira. Ondoren, antzerako ezaugarriak dituzten bidaiariekin hartu-emana egiteko aukera dute. Guztia berehala eta bitartekaririk gabe egiten dute".

#### HELBURU NAGUSIAK

*'Autoa elkarrekin'* egitasmoaren helburua nagusiak ibilgailu primitua partekatzea, energiaren kontsumoa eta kutsadura txikitzea eta espazio publikoaren era-bilera hobetzea dira. "Gainera, ezagutzen ez dituzun pertsonenekin elkartu eta lagun berriak egiteko aukera ematen dizu", diote.



Autoa elkarrekin egitasmoa iragarzen duen kartela Arrasaten. IMANOL SORIANO

## Auto berean zenbat eta bidaia gehiago, bidesaria merkeago

Ezker Batuak bidesarietan beherapenak egiteko eskaera egin dio Foru Aldundiari. Hain zuzen ere, auto berean bidaia bat baino gehiago doazenean bidesariak merkeago egiteko eskaera. "Autoa partekatzen dutenendako sari bat da bidesariak merkatzea. Halako ekimen gehiago egin beharko lirateke, ez da-eta oso normala bost edo zazpi plazako auto batean pertsona bakarra joatea. Positiboa izan daiteke auto pilaketekin bukatzen", diote.

#### IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

Joan den egubakoitzeko GOIENKARIAn aurreratu genizunez, Donostia eta Zarautz aldetik Debagoienera lanera datozenekin autobusa antolatzeko deialdia egin zuen Asier Irizarrek. Orduan hona 30 bat lagunen izenak jaso ditu: "Erantzuna ona izan da, baina kopurua ez da nahikoa autobusa ipintzeko. Esku artean ditudan aurrekontuek erakus-ten dute 30 pertsonarekin ez dela bideragarria. Dena den, guztien datuak hartu ditut, eta autoak partekatzen ahaleginduko gara". Dena den, bidaia autobusean egin gura dutenendako gaur da izena emateko azken eguna: 635 71 93 18 telefonora deitz edo [asieririzar@gmail.com](mailto:asieririzar@gmail.com) helbidera idatziz egin dezakete.

#### HEZKUNTZA

## UNEDEk ikasturte berria aurkeztu du

Ikasleek eurek aukeratu ahal izango dute zer ikasi eta nola ikasi

JASONE ZABALA > BERGARA  
Urrutiko unibertsitateak 2008-09 ikasturterako hogei-ta hamar karrera baino gehiago eta hezkuntza eskaintza zabala prestatu du, prestakuntza telematikoa eta berratru gabeko hezkuntza uztartzea ahalbidetzen duen aukera bilakatuz. "Gogoratu behar da pertsona askok ikasketa eredu honetan euren ikasketak burutzeko aukera bat aurkitu dutela", adierazi zuen UNED-Bergarako zuzendari Juan Jose Alvarezek martitzenean egindako aurkezpenean. Matrikulazio epea martitzenean hasi zen eta datoren urriaren 31ra arte egongo da zabalik.

Aurkezpenean, Juan Jose Alvarezekin batera, Vicente Huitzi UNED-Bergarako idazkaria eta Javier Lomas Kutxako ordezkaria izan ziren; ikasturte honetarako, besteak beste, Hizkuntzen Urrutiko Unibertsitate Zentroko (HUUZ) A-2 maila Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarritzko A-2 mailarekin ofizialki parekatu edo homologatu da.

#### HITZARMENA

Bestalde, Kultura Sailaren eta UNEDen arteko hitzarmen ekitaldia atzo izan zen; euskarra Estatuan eta atzerrian susatzeko hitzarmena, hain zuzen ere. Bertan, besteak beste, Miren Azkarate Kultura sailburua izan zen.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



Argazkian, konposta egiteko ontzi bi, Mankomunitateak banatuko dituenen modukoak.

GOIENKARIA

INGURUMENA &gt; KONPOSTAGAILUAK

## 170 konpostagailu eskuragai aurtengo konpost kanpainan

Astelehenetik urriaren 3ra bitartean izena eman daiteke konpostagailua eskuratzeko

**NEREA MENOR > BERGARA**  
Aurreko urteetan bezala, Debagoineneko Mankomunitateak etxean konposta egiteko beste kanpaina bat abian jarriko du hurren-

go asteetan. Oraingoa hirugarren kanpaina izango da, eta aurreko biak oso arrakastatsuak izan direla azaldu digute: "Geneuzkan konpostagailu guztia banatu genituen: lehenengo urtean 75-proba aitzindaria izan zen- eta bigarrenean 328".

Parte hartzeko ezinbestekoa da Debagoineneko biztanlea izatea eta lorategia, baratzea edo lurzatitxo bat edukitza eta lur zati hori bailaran egotea. Konposta egin nahi dutenek irailaren 22tik

urriaren 3a bitartean apuntatu beharko dute Mankomunitateko telefonoan: 943 79 33 99, 08:30etik 12:00etara.

Izena ematen dutenek konpostagailua jaso aurretik doanezko ikastaro bat egin beharko dute konpostagailua nola muntatu, konposta nola egin eta nola mantendu behar den ikus-teko. Ikastaroaren iraupena ordu eta erdikoa izango da eta bertan gida bat banatuko da hainbat azalpenekin. Parte-har-

tzaileen kopuru zehatza dagoe-nean erabakiko da zenbat ikastaro egindo diren eta non.

**MATERIA ORGANIKOA, KONPOST**  
Konposta materia organikoa naturalki deskomposatu ostean lortzen den materia da. Materia organikoa konpost bihurtzeko konpostagailua erabil daiteke, mekanismo eta motorrik erabili gabe eta mantentze-gasturik gabe. Makinan sartutako 100 kilo-ko 20-25 kilo konpost lortzen da.

> KIROLA  
**Fibromialgia dutenentzako ur jarduera fisikoak**

Gipuzkoako Fibromialgia eta Astenia Kronikoko Bizi Bide elkarrearekin batera, Debagoineneko kirol zerbitzuek fibromialgia duten pertsonen-tzako ur jarduera fisikoak egiteko taldea antolatzeko asmoa dute.

Eskaintza ikasturte osorako da. Orduak eta egunak hauek dira: astelehen eta eguztienetan 16:30etik 17:30era. Interesa dutenek ize-na eman behar dute Agorosinen. 14,10 euro da, hilean, bazkide direnentzako. Saioak hilaren 29an hasiko dira, gutxieneko taldea osatzen bada. Igerileku 31 gradura dago eta bertan egingo diren gimnasiak pertsona horiei daude zuzenduta.

> ENPRESA  
**Jesus Arregi bergararrak Korta saria jaso du**

Eraikuntza sektorean dihar-duen Jesus Arregi Bergarako enpresariak martxenean lortu zuen Korta saria. Sari horien helburua enpresaren inguruan lan egiten dutenen jardun profesionala saritzea da; eta Jesus Arregirekin batera Jesus Iturbe ere sari-tu zuten; baita Arabako eta Bizkaiko enpresariak ere. Jesus Iturbek Egumendi enpresa sortu zuen 1973an.

Lehendakaria sari banaketan egon zen eta euskal gizarteak dituen enpresariekin oso harro dagoela esan zuen. Confebaskeko zuzendari Migel Lazpiur ere bertan egon zen, eta enpresarien ekarpen desinteresatua eskertu zuen enpresaburu bergararrak.

> SASKIBALOIA  
**Lagun Aro da Gipuzkoa Basket Klubeko babesle berria**

Gipuzkoako Basketeko zuzendari Migel Santosek eta Bruesakoak, Antonio Pinalek, tallearen babesle berria aurkeztu dute aste honetan, aseguru txeko zuzendari orokorrarekin, Pablo Mongelosekin. Oraingoz, urtebeteko konpromisoa sinatu dute. Tallearen izena Bruesa Gipuzkoako Basket Klub izaten jarraituko du eta Lagun Aroren sinadura jokalarien kamise-tan agertuko da.

ACB ligan geratzeko asmoa badute, jokalari onez osatutako taldea behar dute, eta horretarako dirua. Bruesak zazpi milioiko aurrekontua du denboraldirako, eta bere hazkundea enpresa pri-batuetatik bideratu dute.



# Euskadi+innova

debagoiena innova, gipuzkoa innova, euskadi innova

Atseginez gonbidatzen zaitugu datorren irailaren 25ean DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA euskaldeko berrikuntza agentearen aurkezen ekitaldira.

**LEKUA:**  
Debagoineneko Mankomunitatea, Nafarroa Etorbidea 17, 2. Solairua. ARRASATE

**EGITARAUAK:**

- 11.00 Ongietoria eta aurkezpenak.
- 11.05 Erakundeek euskaldean berrikuntzari emango dioten babesaren aurkezpena:
  - José Ramón Guridi. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Diputatua.
  - José Ignacio Zudáte. Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Energiako Sailburuordea.
  - Mauri Lazkano. SPRiKO Zuzendaria Nagusia.
  - Pedro Lasagabaster. Debagoineneko Mankomunitateko Lehendakariordea.
- 11.40 Hitzaldia: "Berrikuntza zure eskura: Ibilbide orria".
  - Rodolfo Becker. Becker Abokatuak.
- 12.20 Lunch-a.

**IZEN-EMATEA:**  
euskadinnova.net    [empresa@debagoiena.com](mailto:empresa@debagoiena.com)    Tel.: 943 79 30 90  
(PYME, zuzendari eta enpresariei zuzenduta).

Serapia Arantzabal > Afagiren Debagoieneko arduraduna

# "Gaixoen senitartekoek elkartea beharrezkoa dute aurrera jarraitzeko"

JASONE ZABALA/U.M. > ARRASATE  
Serapia Arantzabal Arrasaten bizi da eta Afagiren (Gipuzkoako alzheimer gaixoen senitartekoelkartea) Debagoieneko arduraduna da. Domekan, alzheimerraren kontrako nazioarteko eguna dela eta harekin jardun dugu gai horren gainean hitz egiten.

Domekan da alzheimerraren kontrako nazioarteko eguna; bada ekitaldi berezirik horren harira?

Gipuzkoan bai, badago, baina Debagoienean ez dute ezer antolatu. Urtero txandakatu egiten dute lekua eta aurten Donostia aldean tokatu da. Domekan batzarra eta beste ekitaldi batzuk egongo dira. Aurtengo leloa *Ez nazazu ahaztu, behar zaitut da.*

Halako egunek hausnarketarako bidea ematen dutela aprobetxatuta, zein da gaur egun alzheimerra duten gaixoen egoera? Hobetu da zer- txobait azkeneko urteotan, egin da aurrerapausorik medikuntzan, adibidez? Zeintzuk dira behar handienak?

Medikuak egiten dituen erre- zetetatik kanpo ez dago orain- dik laguntasunik. Etxean gaixoa- ak dituztenen artean, berriz, aurten hasi dira dirulaguntza batzuk banatzen. Eguneko zen- troei dagokienez, 30 pertsona



Irudian, Serapia Arantzabal.

UBANE MADERA

**"Medikuak egiten dituen erre- zetetatik kanpo ez dago laguntasunik"**

**"2017an 11.000 gaixo egongo dira; Gipuzkoan 7.000 gaixo inguru dago"**

inguru daude bertan. Horretarako Diputazioak ematen du dirulaguntza apur bat, baina ez da asko. Gaixoarenak behar diren laguntza guztia nork bere poltsikotik egin beharreko gas- tua da.

Badiote urtetik urtera handi- tzen doala alzheimerra duten gaixoen kopurua?

Handitzen doa eta gero eta jende gazteagoarengan eragiten du, gainera. 60 urtetik beherako kopurua handia da eta adin horretatik gorakoena, berriz, handiagoa. 2017an 11.000 gaixo egongo dira. Gipuzkoan 7.000 gaixo inguru dago.

Afagi ere handitu da?

Ez doa handitzen. Diputazioak gero eta diru gutxiago ematen dio elkarteari. Urte honetako dirulaguntza orain- dik ez da heldu. Laguntza txiki bat bai, baina ez guztia. Gainera, gaixoen senitartekoek elkar- tea beharrezko dute aurrera jarraitzeko.

Zein laguntza aurkitzen dute gaur egun gure ibarreko kide- ek zeuen elkartean?

Oraingo, psikologoaren lana dago. Gero, ikastaro batzuk ere egingo dira, datorren urte hasieran.

Zein da zeuekin harremane- tan ipintzeko jendeak dau- kan bidea?

Dena Donostiak bideratu- ko da. Gure elkartera etorri nahi duenak Donostiara deitu behar du, ondorengo telefono zenbakira: 943 29 71 18.



**Arizmendi, Koop. E.aren  
EZ OHIKO Batzar Nagusirako deialdia**

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialtako 30.artikuluak dioe- nari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2008ko irailaren 11an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E.ko bazkide guztiek Ez Ohiko Batzar Nagusi honetara deitza, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

## DEIALDIA

**Ekuna:** 2008ko urriaren 1ean  
**Lekua:** San Viator Txiki guneko aretoa.  
**Ordua:** Lehen deialdia: 18:15.  
**Bigarren deialdia:** 18:30.

## GAI-ZERRENDA

**Lehena.** Aktaren onespenerako bi bazkideren izendapena.  
**Bigarrena.** Jarraipen Saria onura sozialaren eta bere araudia- ren onarprena kooperatibako lan bazkideentzat.

**Hirugarrena.** Almeneko Aurretiazko Jubilazio Plangintzaren likidapenaren onarprena.

**Laugarrena.** Kontseilu Errektorea ahalduntzea.

**Bostgarrena.** Galde-erantzunak.

Mercedes Iñarra Trojaola  
Lehendakaria  
Aretxabaleta, 2008ko irailaren 12a

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedunen  
txoko  
Iraileko zozketa**

**Sariak irabazteko  
HARPIDETU!**  
**Tel.: 943 08 10 50**  
**20 euro abendura arte**

**CD-irratia-stereoa**

 EROSKI  
zurekin



**KAMISETA+POLTSA**

 skunkfunk



**AQUARIUM-EKO SARRERAK**



**SARI NAGUSIA:  
ARBELAITZ JATETXEAN  
AFARI BAT**

**Anbelaitz.**  
ARBELAITZ • DONOSTIA

Arbelaitz jatetxea  
<http://www.arbelaitz.com>  
943 30 82 20

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batzen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haien zuzentzeko edo eeztatzezko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

## gure artekoak

**SUZUKI SX4** > Lur orotariko autoa da Suzuki SX4; baina, Carlos Ruiz Kanpantzak etxeko arduradunak azaldu duen moduan, hirian ibiltzeko egokia eta erosoa da autoa. Autoaren ezaugarriak azaldu ditu Ruizek.

**Carlos Ruiz** > Kanpantzak kontzesionarioko arduraduna

## "Txikia denez, SX4 oso auto erosoa da hirian ibiltzeko"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Hilabete batzuk dira Suzuki etxeak SX4 merkaturatu zuela. "Ibilgailua lur orotarikoa da, 4x4 bat. Baina ez da mendian ibiltzeko bakarrik, hirian ibiltzeko ere oso auto erosoa da", azaldu du Carlos Ruiz. Gaineratu du autoak tamaina txikia duela eta horrek asko laguntzen duela hirian ibiltzeko orduan.

"Altuera pixka bat du eta horregatik samurra da autoan sartzea, erosoa da", gaineratu du Ruizek. Azpimarratu du bost ateko autoa dela SX4; hau da, atzeldeko eserlekuetara sartzeko ateak daude, eta maletategiak ere atea du, gorantz zabaltzen dena.

### NAGUSIAK ETA GAZTEAK

Batez ere pertsona nagusiei zuendutako autoa dela esan du Ruizek. "Hala ere, jende gazte asko interesatzen da ibilgailu horretan. Kontuan hartu behar da oso auto segurua dela eta, orotariko ibilgailua izan arren, turismo baten funtzioa egiten duela", dio Ruizek. "Gainera, oso motor ona dauka. Diesela izan eta 120 zaldi potentzia izatea oso eskaintza ona da".

Ekipamendu aldetik oso ondo dagoela gogoratu du Ruizek; ABS, aire girogailua, aluminiozko hagunak (llantak) eta beste hain-



Kanpantzak etxeko arduraduna, SX4 autoa erakusten.

A.E.

### Suzuki SX4 1.9 120 ZP

Prezioa 19.492 eurotik aurrera  
Luzera 4,14 metro  
Zabalera 1,75 metro  
Maletategia 625 litro<sup>(1)</sup>  
Kontsumoa 6,6 litro /100 km<sup>(2)</sup>  
Abiadura 180 km/h<sup>(3)</sup>  
Ozik 100era 11,2 seg.  
CO2 isurketa 174 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

bat elementu ditu. Azken finean, turismo batek eskaintzen duen bera eskaintzen du SX4k.

### FIDAGARRITASUNA

Suzuki marka fidagarritasun handiko marka dela azpimarratu du Carlos Ruiz. "Lur orotariko auto txikiegi dagokienez, dagoen onena da", gaineratu du.

SX4 autoak bi motor mota ditu: diesel ezko 1.9 120 zaldi potentziakoa eta gasolinazko 1.6 107 zaldi potentziakoa. Diesel ezko autoak sei abiadurako kaxa du eta gasolinazkoak, ostera, bost abiadurakoak.

## etxeko leihotik



Eneko Azkarate > eazkarate@goiena.com

## "San Martin de Agirre, hijo de Bergara..."

makumea da Alardeko irudi nagusia, hau da, kantineira", edo "Espaloieta goizaldeko 3:30etik zain dauden neskatoak ez dute beren burua gutxietsita ikusten". Adierazpen horiek irakurri nizkion egunkari batean Hondarribiako alkateari, orain dela 10 egun. Danborra edo txirula joten desfilatzearen irainak eta purrustadak entzun behar izan dituen emakumeak beste iritzit bat izango du eta zinkoak iruditiko zaizkio, seguruen, alkatearen berbak.

Debagoineneko danborrada gehienak antipodetan daude Hondarribia eta Irungo alardeekiko. Antzuolako mairuaren alardea ere berritzeko bidean da. Zorionez!

Diodana ilustratzeko balio du astelehen gauean Bergaran ikusi nuena. Ehunka herritar burrunbaka, herriko musika bandaren doinu eta konpasari segika. Ikusi nituen mutilak banderak astintzen; neskez bakarrik osatutako taldeak; gizonezkoenak; mistoak; erriterratiuenak; 16 urteko neskatala banderadunak; gurpildun aulkiak ziohana... Danborrada herrikoi, parte hartzaile, koloretsua, integratzaile eta askotarikoa. Eta disfrutatu nuen espoliak: "San Martin de Agirre, hijo de Bergara, ¡Siempre será!".

**"Ikusi nituen  
mutilak  
banderak  
astintzen; nesken  
taldeak..."**

> **Bakarra** da San  
Martinetako danborrada: Nagasaki gurutziltzatu zuten "herriko  
semearen" oriomenez  
egiten da, Gonzalez  
Bastida konpositore  
bergararrak propio  
sortutako musikarekin.

> **Umeen danborrada**  
ere koloretsua. Japoniako enperadorea eta bere  
segizioa, soldaduak...,  
eta frantziskotar bat  
lurrean botata. Bain  
batek baino gehiagok:  
"Zein da hori? Zergatik  
doaz txinoz jantzita?".

## begi-bistan



### Sheriffa Arrasaten (Arrasate) 2008/09/17

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.  
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Udal euskaltegiak egin duten Wanted kanpainaren barruan hartutako irudia da. Sheriffa Arrasaten ikasle bila ibili zen eguzten goizean. Beste herri batzuetan ere ibili zen.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak  
bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Aitor  
Mendizabal**  
PILOTARIO



**Asier  
Altuna**  
ZINEMA ZUZENDARIA



**Amaia  
Cid**  
AKTOREA

Antzuolako pilotariak Jauregi bikote-kidearekin batera Lezoko txapelketa irabazi zuen domekan. Senior mailan izan ziren garaileak. Mendizabal eta Jauregi 22-9 nagusitu ziren Iparraldeko Lemuno eta Alberdiren aurka. Antzuolakoak lan ona egin zuen. Asier Altuna bergararrak gidatuko du Brinkola umorezko telesaila ETB1en. Zinema zuzendarriak Telmo Esnalen laguntza izango du lan horretarako. Brinkola Angel Alkain eta haren taldearen saioa izango da; eta, urtarrilean hasiko dira saioak ematen. Eguztenean estrenatu zuten Gasteizen Figaro-Garate, Las Bodas de Figaro antzezlanak. Amaia Cid oñatiarra da obrako antzezeletako bat. Horren harira, maiatzean, Oñatiako Santa Ana antzokian obra beraren aurrestreinaldia egin zuten.

Aramaioarra jaiotzez, Abadiñon bizi da azken urteetan Anton Pol. 30 urte dira Ford

Mugarrin lanean hasi zela; eta, gaur egun, Ford Mugarriko gerentea da. Egubakoitzean,

Europa mailako Chairman's Award saria jaso zuen Ford Mugarrik. Aukera aprobetxatu

dugu harekin egon eta autoen merkatuak egun bizi duen egoeraz berba egiteko.

Anton Pol > Ford Mugarriko gerentea

# "Autoen salmenten jaitsiera hasieran uste zenaren bikoitza izan da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE  
Pozik zegoen egubakoitzean Anton Pol, Ford Mugarri etxeko gerentea. Ford Españoako presidente Jose Manuel Machadoren eskuak Chairman's Award saria jaso zuen. Ford etxeak Europa mailan ematen duen saria da; baina, Polek dion moduan, bezeroek emandakoa da.

## Autoen merkatuak nabaritu du krisiaren eragina?

Familiek edo pertsonek egi-ten dituzten inbertsioen artean lehenengo etxea dagoela esaten da eta bigarren autoa. Hori iza-tzen da inbertsioen ordena gastuei dagokienez. Hala, denok dakigu eraikuntza sailaren egoera ez dela ona. Bada, gu ere hor gau-de, krisi horren bigarren tokian. Datuek ere hori erakusten dute, krisian gaudela.

## Zenbatekoa izan da auto salmenten jaitsiera?

Estatuan %18 inguruko jaitsiera egon dela esaten da. Jaitsiera salmentetan esan gura dut. Izan ere, urtea gaizki hasi genuen; urtarrilean, %12ko jaitsierak egon ziren salmentetan. Gero, otsalean, zertxobait igo ziren salmentak. Egoerak hobera egin-go zuela ematen zuen, baina ez zen horrela izan. Martxoan oso jaitsiera larria izan genuen, %28koa, eta apirilean %14koa. Datu horiek Estatu mailako datuak dira. Hortaz, lehenengo seihiokoan salmenten jaitsiera %17,58 izan da Estatuan.

## Ibarreko datuak ere antzerakoak dira?

Datu horiek gure ibarreko datuen oso antzerakoak dira. Baino egia da ibarrean jaitsiera zer-txobait txikiagoa izan dela. Abuztura arteko salmenten jaitsiera %11,46 izan da ibarrean. Salmen-ten jaitsiera Estatuan baino txikiagoa izan den arren, krisiaren eragina guk ere nabaritu dugula onartu behar da.

## Ibilgailu mota guztietan jaitsie-ra bera gertatu da?

Esan dudan jaitsiera, %11,46koa, turismoei dagokiena da. Beste auto mota batzuetan, industriako autoetan esaterako, jaitsiera handiagoak izan dira. Komertzial arinetan, jaitsiera %18,37 izan da ibarrean eta komertzial ertainen, Ford-en kasuan Transit izango litzateke, jaitsiera izugarria izan da: %39. Datu horiek marka guztia kon-tuan hartuta ateratakoak dira.



Anton Pol, Mugarri kotzesionarioan, autoen erakusketa duten lekuaren.

dugulako. Baino horri buruzko datu gehiagorik ez daukat. Dakidan bakarra da Fiesta berria Almussafes herrian (Valentzia) hasi behar dela egiten. Horrek esan gura du lineak martxan egon beharko duela.

## Arazoa ez da Ford etxearena bakarrik.

Ez, General Motors ere berdin dabil. Arazoa ez da hemengoa bakarrik, herrialde guztietan gertatzen den zerba da. Baino, esate baterako, Errusian autoak ondo saltzen dabilta. Baita Turkiar ere.

## Krisi egoerari ze erantzun emango diozue?

Hasiera baten, egin dezakeguna da gastuak ahalik eta gehien jaitsi. Badaude gastu batzuk gau-zak ondo doazenean samur egiten direnak, baina egoera txarre-tan ezin direnak egin.

Publizitatea, adibidez, murriztu egin beharko da, baina kontu handiarekin. Egoera hone-tan, publizitatea ondo aukeratu behar dugu, baina inola ere ez publizitatea egiteari utzi.

## Orain, Ford etxeak Fiesta berrian esperantza handia jarri du. Ez al da hala?

Merkatuak har dezakeen norabide berrian kokatuko genuke Fiesta autoa. Esan behar da Fiesta... izena bakarrik duela. Izan ere, autoa guztiz berrituta dator; lehengoa baino handiagoa da: 3,95 metroko luzera du eta puntako teknologia du. Bartzelonan izan dugu Fiesta berria ikusteko aukera.

## Krisia alde batera utzita, egubakoitza egun berezia izan zen.

Bai, Europa mailan ematen den saria jaso genuen egubakoitzean. Saria ematera Ford Españoako presidentea eterri zen. Esan beharra daukat guretzat egun handia izan zela, bai sariagatik eta baita Machado jauna eterri zelako ere.

## Zer da Chairman's Award saria?

Bezeroak pozik dituen etxea saritza da helburua. Egubakoitzean esan nuen moduan, saria lantalle osoari emandakoa da. Gaineratu nuen saria Ford-en eskuak jaso arren saria ez digula Ford-ek eman. Saria bezeroek eman digute. Nik ordezkarri beza-la jaso nuen, baina saria langilek lortu dute.

### JAITSIERA

**"Estatuan autoen salmenten jaitsiera %17,58 izan da lehenengo seihiokoan"**

Merkatuaren joera zein izango zen aurreikustean, inork ez zuen uste jaitsierak horrenbesteko handiak izango ziren. Hasieretan, %2ko jaitsieraz berba egiten zen; gero, baita %8az ere. Baino errealtitatea da jaitsierak uste zenaren bikoitzak izan direla.

### AUTO TXIKIAK

**"Krisiak eragina izango du ibilgailu txikien salmentan; hor sartuko da Fiesta berria"**

Jaitsiera horiek ze eragin izango dute? Nik uste dut egoera honek eragina izango duela ibilgailu txikien salmentan. Horrek ez du esan gura gure bezeroek auto txikiak gurago izango dituztela; esan gura duena da autoaren prezioek eragin zuzena izango dute-

### CHAIRMAN'S AWARD SARIA

**"Bezeroak pozik dituen etxea saritza da helburua; bezeroek emandako saria da"**

la salmentetan. Hala, auto txiki gehiago salduko dira. Ford etxeak, adibidez, emplegu-erregulazioa egin du; eta erregulazioak 1.200 langile-rengan eragingo du. Bai, badakigu hori horrela gertatu dela prentsan irakurri



zabalik

Mikel Lezamiz

## Krisiari elkarlana

**A**zken lau urteotan genbiltzan esaten Espainiako Estatuko eraikuntzaren garapena burbuila batean finkatua zegoela eta egunen batean esplotatu behar zuela eta ekonomi kri-sialdi batera eraman.

Espainiako eraikuntzaren geldiketa duela bi-hiru urte gertatu izan balitz, Euskal Herriko ekonomiak ez zuen arazo handirik sufrituko, beste herrialdeetako merkatuak gure salmentak onartuko zituelako. Baino Ameriketako *sub-prime* maileguen leherketak eraikuntzako enpresa eta inmobiliarien apurketa sorrari-z zuen eta krisi ekonomikoa datorrela zioen *mamuak* ekonomia osoa geldiarazi du.

Gure etxe inguruan ere eragin handia izaten ari da, eta Fagor

**"Urteetan zehar erabili izan dugu elkarlana arazoak konpontzeko"**

**"Ezin da arazoak daudenean lepoa altxatu eta gobernuak atera ditzala gaztaiak"**

eraikuntzaren geldiketa duela bi-hiru urte gertatu izan balitz, Euskal Herriko ekonomiak ez zuen arazo handirik sufrituko, beste herrialdeetako merkatuak gure salmentak onartuko zituelako. Baino Ameriketako *sub-prime* maileguen leherketak eraikuntzako enpresa eta inmobiliarien apurketa sorrari-z zuen eta krisi ekonomikoa datorrela zioen *mamuak* ekonomia osoa geldiarazi du.

Gure etxe inguruan ere eragin handia izaten ari da, eta Fagor eta enpresa asko hasiak dira sufrizten, lana beherantz joaten ari baita. Baino guk bidaukagu hori konpontzeko botika: elkarlana. Urteetan zehar erabili izan dugu *sendagai* hau arazoak aurretiz konpontzen hasteko eta azkenik *gaixotasun* bihurtzen baldin bada osatzeko. Gure kultura enpresarialean ondo errrotuta daukagu kooperatiben arteko elkarlana eta mundu guztiek onartzenean -nahiz eta gogorra izan aldaketa-hobe dela tokiz alda-tzea, hori baita era bakarrenetari-koia lanpostuak mantentzeko (doa-la aurretiaz nire apoia egoera horretan daudenentzat).

Sistema neoliberala galtzen ari da eta Estatuen esku-hartzea ezinbesteko gertatzen ari da kapitala eta ekonomia mantentze-ko, baina argi dago ezin zaiola utzi berak nahi duena egiten eta diru mordoa erraz irabazten, eta arazoak daudenean lepoa altxatu eta gobernuak atera ditzala gaztaiak beroak sutetik. Nire ustez, mundu unibertsitarioak eta filosofikoak hausnarketa serio bat egin behar du, eta kritika zorrotzak jarri orain arte gertatu izan denarekin, eta ea guztiak artean mundu eta ekonomia sozialago bat bultzatzen dugun.

## Goienkaria

**Argiratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Esteban Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Oiseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritu Berruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldieg, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarriko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larranaga, Amalia Mundifano, Zortza Martin, Ibaso Bereziar, Aintzane Murumendiarraz **Testu zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

### EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana II • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

PUBLIZITATEA Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09

Posta-e: publi@goiena.com

HARPIDETZA Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

LEGE GORDAILUA: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • TIRADA: 19.400 ale • DIFUSIOA: 19.056 ale.

Goienka

OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZALEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarra galdezka

**SAN LORENTZOKO LANAK NOIZ HASIKO DIRA?**

**Oñatiako irakurle batek telefonoz deitu digu, San Lorentzo auzoko biziberrizte lanengatik kezkutta. "San Lorentzoko obrak noizko daude aurreikusita? Aurrekontua onartuta ei dago, baina hauteskundeak arte itxaron behar dut elanak hasteko?".**

Erantzunaren bila Oñatioko Hirigintza Saileko buru Angel Biañengana jo dugu. Hark baiezta-tu egin du gure irakurleak zioe-na: "Bai, aurtengo aurrekontuetan daude obra horiek". Lanok lehenago hasteko asmoa zegoen, baina atzeratu egin dira, eta hone-la azaltzen du Biañek: "Gure asmoa zen espaloia, asfaltoa, kaleko argiak... konpontzea; bai-na gero konturatutu ginen arazo gehiago zegoela, batez ere irisgarritasunari dagokionez".

Horrenbestez, jarraitzen du Hirigintza zinegotziak, "ekaine-an batu ginen orain arte Santa Marina edo Portuko irisgarritasuna landu zuen arkitektu talde-arekin, eta irail bukaearako edo urrirako geratu ziren euren pro-posalmena aurkeztekoan".

Horren ondoren, Udalaren asmoa da arkitektu horien proposame-na San Lorentzoko bizilagunei jakinaraztea.

**JAIETAN, TXANTXIKUA NOIZ JAITSIKO DUTE AURTEN?**

**Oraingo asteko bigarren galderaere Oñati titik datorkigu. Hango irakurlebatek etxean jasotu dute jaietako egitaraua, eta harrituta geratu da ekitaldi batzuk ez topatuta han: Txantxikuaren jaitsiera eta herri-**

**kotaldeen bertsio kontzertua aipa-tu dizkigu. "Noiz izango dira eki-taldi horiek?", galdu digu.**

Aurreko urteotan, Txosna batzordeak antolatutako ekintzak Udalaren jai egitarauan integratuta agertzen ziren. Aurten, ez da horrela izan: Txosna batzordearen esanetan, "iaz gobernua osatzen zuten EAJ eta EAK, Oñati Ezkerretik, PSOE eta PPren babesarekin, ez zuten gure egitaraua osoa onartu (...). Aurten ere joka-bide bera eduki dute". Udalaren esanetan, "iaz aho batez EAJ, EA, Oñati Ezkerretik eta PSOEk hartu zuten erabakia berretsi egin dugu, eta Txosna batzordeak erabaki du euren programa udal egitarauan ez joatea. Hala ere, Udalak erabaki du euren ekitaldiatarako baliabide guztiek ematea eta eskatutako bi kontzertuetarako finantzazioa ematea". Kontuak kontu, Txosna batzordeak antolatu du Txantxikuaren jaitsiera, eta irailaren 28an, dome-kan, egingo dute, 20:00etan; eta herriko taldeen bertsio kontzertua, Errosaixo Bixamon egunean, urriaren 6an. Beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte.

## marrazkiz

Unai Busturia



ABENTURA HAU BIZI IZAN DUTEN GUZTIENTZAKO

## Ia irakurri gabe

Pello Urzelai  
www.berria.info/blogak/pello

**A**NVren defentsak aurkeztutako alegazioen idazkia eskuartean izan dut, laburbiltzea egokitutu baitzait (*ANVren defentsak frogatutza jo du ez dagoela legez kanpora-ziorik titulupean*). 99 orriko idazkia da, landua, zehatza, datu eta argudioz beteta. Frogen azterketari zuku handia atera dio defentsak: lekuo-perituen deklarazioak minituz minutu aztertuta

daude, eta zehaztasun horrekin daude jasota argudio berri guztiek.

Auzitegi Goreneko 61 salak ez du ematen ANVren defentsaren alegazioak irakurtzeko molestiarik hartu duenik.

Epaia idazteko orduan nabari-tuko delakoan nago: orokorra egingo dute, fiskalaren eta Estatuko abokatua taren tesi nagusiak bere hartuz eta errepikatuz, defentsaren argudioetan sartu gabe, auzi-saiorik izan ez bailitzan.

Ordu gutxitan ebatzu du ANV legez kanpo uztea. Atzo bildu ziren magistratuak deliberatzeko eta gaur eraba-

kia etorri da. Iragarritako erabakia. Garzonek udan esan zuen bezala, estatu aparatuak batera aritzen direnean "geldiezinak" dira. Hori erakutsi nahian dabiltza.

## Demokraten akatsak

Iñaki Atxutegi  
www.bizkaie.biz/blogs/bg1

**E**stadu Batuetako errepublikanek irabazteko gero eta aukerea gehiago daukiez... Azken jazoerea honen ondorioz

plazara

Udan argitaratu zen 'Euskadi eta drogak 2006' txostena, eta egunotan, Gazteriaren Euskal Beharkiaren 'Osasuna eta Gazteria'

delakoa. Horien arabera, EAeko gazteek alkohola kontsumitzen dute gehien, eta hura kontsumitzea normal ikusten dute. Maite

Aizpiri Prebentzio teknikariak dioenez, drogak zertarako hartzen diren hausnartu behar da, tratamendua eragingarria izateko.


Maite Aizpiri \*

## Droga kontsumoa: errealtitate aldakorra

Gizartea aldatzen den heinean, droga kontsumoen joerak ere aldatzen dira. Horrela, urteak pasa ahala, Euskal Herrian ere droga kontsumoen inguruan zenbait aldaketa izan dira; batzuk aipatzearen, astean zeharreko alkohol kontsumoaren beherakada, zenbait substantziatan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko kontsumoa parekatzeko joera, azkenaldian kokaina kontsumoaren ondorioz tratamenduan dauden pertsonen kopurua handitza... Garbi dago testuinguru soziokulturalak eta garai historikoak droga kontsumoa baldintzatzen dute-la, eta ondorioz, substantzia ezberdinak kontsumitzeko ohituraak eta moduak aldatzen direla.

Azkeneko datuei (*Euskadi eta drogak 2006*) begira jartzen bagara, 15-74 urte bitarteko biztanleen azken 12 hilabeteotako kontsumoa nolakoa izan den ikus dezakegu. Euskal Autonomia Erkidegoan, gehien kontsumitzen den substantzia alkohola da (biztanleen %83,4k kontsumitzen dute); bigarren lekuaren tabakoa dago (%35,5ek), hirugarrenean, kalamua (%13,8k); jarraian, kokaina (%2,6k); anfetaminak (%2,4k); eta %1 baino portzentaje txikiagoarekin LSDa eta estasia ageri dira. Alkohola, horrenbestez, alde handiarekin garaile.

Drogak kontsumitzeko zenbait ohitura aldatu badira ere, kontsumoa aurrera dirau; horiaz, drogek nolabaiteko funtzioa betetzen dute gure gizartearen eta baita kontsumitzen duen pertsonarengan ere. Baina ba al dakigu zer funtziobetetzen duten gugan? Zertarako erabiltzen ditugun? Ondo pasatzeko, egoera konkretu batzuekin lotzen dugulako, ohitura bilakatu delako, beharra-mendekotasuna dugulako, eragina gustuko dugulako, arazoei ihes egiteko... Arrazoi asko egon daitezke.



MIKEL ARROIAIBE

Esango nuke, gehienetan, plazera bilatzen dugula, ondo pasa nahi dugu, ondo sentitu. Eta lortu nahi dugun eraginaren arabera, substantzia ezberdinak erabiltzen ditugu (estimulatzaileak, lasaigarriak, haluzinogenoak), nahiz eta, sarri, substantzia ezberdin nahasketeara egiten dugun, hauen eraginak kontrajariak izan arren.

"EAEn, gehien alkohola kontsumitzen da, biztanleen %83,4k; bigarren tabakoa dago, %3,5ek"

"Kontsumoa arazoa ematen hasi baino lehen, hobe da kontsumoaren funtziaren inguruan hausnarketa egitea"

Biztanleriaren gehiengoak ez du droga kontsumoari lotutako aparteko arazorik izaten, nahiz eta zenbait substantziaren kontsumoaren osteko ondorioak ez diren batere atseginak (aje galanta, nekea, lo egiteko zailtasunak, deprimututa egotea, goragalea, buruko mina...). Hala ere, substantzia berak ez digu guztioi zertan berdin eragin, droga kontsumoan beste faktore batzuk ere jokoan sartzen direlako: ezaugarri individualak (adina, sexua, pisua, tolerantzia, osasun egoera, nortasuna, egoera animikoa); testuinguruan ezaugarriak (kontsumoan?, noiz?, nola?, norekin?, zertarako? egiten den) eta substantziaren ezaugarriak (dosia, purutasuna, administrazio bidea, maiztasuna...).

Droga kontsumoa arazoak ematen hasi baino lehen, hobe da egiten ditugun kontsumoek norberarenengen betetzen duten funtziaren inguruan hausnarketa egitea, eta arazoak ematen hasia bada, egoera hau onartu eta tratamenduan hasteko pausoa ematea.

Zenbaitetan, ez da erraza izaten droga kontsumoa norberarenengen edota ingurukoengen (batez ere familiaoengen) sortzen dituen kalteez ohartzea. Horregatik da garrantzitsua mendekotasunen bat duen pertsonari egoeraz jabetzen laguntzea, nahiz eta batzuetan nekagarria izan, edota ezertarako balio ez duela pentsatu.

\*Maite Aizpiri Arrasateko Udal Prebentzio teknikaria da.

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Osakidetzako zerbitzuarekin pozik zaude?

BAI	%20
EZ	%80

### > HOBETZEKO ASKO

Osakidetzak hobetzeko asko dauka: mediku batzuen jarreran eta gaixoa tratatzeko moduan, eskaintzen diguten denboran, sensibilitatean, ordutegia betetzean... Zoritzarrez, mediku pribatuengana jotzen denean konturatzen da ze alde dagoen.

Irene

### > LARRIALDIAK, ESKAS

Kasu pertsonal bat medio, nire ustez mediku gehiago egon beharko lirateke gaueko urgentzia zerbitzuetan, eta ez mediku bakarra eta hiru gaixo zain bitartean! Larrialdiak badira ez daukagu zertan 45 minutu itxotien egon! Eskasa benetan!

Izortz

### > NI POZIK NAGO

Ni behintzat pozik nago nire medikuarekin, beharbada zortea eduki dudalako eta ona tokatu zaidalako. Badakit denentzat ez dela horrela, baina nik ez daukat kexarik.

Mertxe

### DATORREN ASTEKOA: Donostiako Zinemaldira joan zara?

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

## koplak

### Iratzi Agirreazaldegia

## Krisia, guztiak kezka bizia

Gure mundua bere txikian amets handien merkatu. Lo egitea merke da baina oherik ez da merkatu.

Oheak nola behar du gela gelak behar du pareta. Baina gaur zeinek ordain dezake etxe baten hipoteka?

Euriborraren pausuak gora, interesak zeruraino. Ekonomiak lausotua nau interesa galtzeraino.

Ibexa gora, dibisak behera nahasita dabil burtsa. Burua dugu kezkaz betea poltsikoa, berriz, hutsa.

Beste gauzarik ez da entzuten: ekonomia krisia. Gutxi daukagun diruak kezkaz bete du gure bizia.

Krisia, burtsa ta hipoteka ta erosketak garesti. Gutxienean debalde da ta segi ametsetan ezti.

zaporo gazi-goxoagaz nabil aboan. Orain hilabete batzuk esaten neban oso arriskutsua zala Obama eta Hillaryren arteko primariek sortarazitako giroa. Demokraten arteko hartu-emonak ozipindu egin ziran horrekin lehiaketeara gogor baten ondorioz. Naturalena, nire ustetan, Obamak eta Clintonen osautako bikotea izango litzake. Baina, itxuraz, Obamak ez dau Hillary inondik inora bez bere inguruan ikusi eta Joe Biden aukera eban. Ez daigun aitztu Clintonen diskursioaren zutabetako bat *kristalezko sabaia* apurtuteko ahaleginea zala, hau da, berari botu

emon ezkerro, lehenengo biderrez andra presidentearen izango ebela estadubatarrek. Bere aldeko batzuek, lehia galdua, pentsau egiten eben oraindino, presidente izan barik presidenteordea izango zala. Zetakeriak itsututa, Obamak baztertu izan eban Hillary.

Errepublikanoek, euren aldetik, kolpe ederra emon eutsen demokratei. Errepublikanoen presidenteorde izateko hautagaia Sarah Palin da, andra, ederra, kontserbadorea, *hockey mom* horietako bat, hau da, seme alaben partidak ikustera joan egiten dan ama horietako bat. Eta kristalezko

sabaia apurtuteko prest. Obamaren jokaera sortazaratuko frustrazionik probetxua atarateko prest dagoz errepublikanoak. Feministen botuak errepublikanoek eroango dabez?

Aste batzuk falta dira ondino hauteskundeen irabazlea nor dan jakin ahal izateko, baina ikusitakoaren arabera ez da harritzekoa inkestatan errepublikanoak aurretik izatea. Ez dot uste errepublikanoek Bushen garaian egindako lanaren fruitua jasoko dabenik. Aitzitik, demokraten akatsek presidentzia emongo dautselakoan nago. Eta horrek ez daust ezelango lasaitasunik emoten.

## Mugarik ez daukan hipokrisia

**Joseba Ugalde Mendieta, Ander Rodriguez Lejarza eta Jose Antonio Baz Barroso**  
(Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotziak 2003-2007 agintaldian) Arrasate

"Proposatzen jakin, negoziatzen jakin, amore ematen jakin...". Horrela amaitzen da Ignacio Lakuntza aurreko alkateak Mondragoeko herritarrei zuzendutako gutuna. Haren inposaketekin bat ez egitearren, Ezker Batua-Berdeak Udal Gobernuk bota zuenaren aholku harrigarriak; izan ere, Aralarrek laga egin zuen Udal Gobernu batzordea; gobernuko kide zen Eusko Alkartasunak bere kudeaketa modutik aldendu zen; bere alderdi bereko lau zinegotzi saiatu ziren kargutik kentzen; bere eskuineko esku eta ordura arte bere konfiantza osoko zinegotzia, duintasun handiko keinu bat eginez, diziplina alderdikoia utzi eta Talde Mistora pasa zen; eta alderdi guztietako kideek azalpenak eskatu zizkioten, honek eman ez zituenak.

Gelmako hirigintza operazioa hasieratik kritikatu zuten Ezker Batua-Berdeak-ek, Zutik-ek, ESK-k, Herri Anitzak edo Arrasateko alkate izandako Xabier Zubizarretak. Bi urtez, behin eta berriz predikatu genuen, alferrik, 2006ko ekainean, Ignacio Lakuntzaren talde bereko zinegotzi batek operazioaren "hirigintza irregularitasunak" salatu zituen arte. Gertaera hau, gauzak argitzen zituen beste grabazio batzuk eta literalki ondokoa jasotzen zuten idatziek, "kopuru hori barkatu nahi baldin bazaio, eman behar diguten kopururen batetik deskontatzekoaren aldekoa naiz", bultzatu fintuen, behean sinatzen dugunok, herritarren ordezkarri garenen heinean, informazioa epaitegira eroatera, ikerketa egiteko eskatuz. Ignacio Lakuntzak gure jokaera ulertzen ez badu, ez dakigu edo ezin dugu hobeto azaldu.

Prozesu penal bat frogatzea zaila dela bagenekien eta,

tamalez, diligentziak aurkezteko epean, inork ez zuen frogarik aurkeztu, Bergarako instrukzio epaitegiak prozesuarekin jarrai zezan. Oraingo perspektibarekin, aitoritu behar dugu 2004an bide administratiboa aukeratu ez izana okerra izan zela, ze, bide hori hartzekotan, operazioa bertan behera geratuko litzateke-eta.

Ignacio Lakuntzak inoiz ez du agortuko gure ustekabe kapazitatea. Hirigintza operazio eztabaidatsua ondo egindako lanaren paradigma bezala aurkezten du, 2006ko martxoan epaitegian aurkeztutako grabazioetan zera entzun badaiteke ere: "Jakina, hitzarmen hori, ikusitakoak ikusita, denak gara azkarrak, eta nik ez nuke onartuko hitzarmen hori, argi dago". Eta ondoren, zera: "Hanka sartu dugula argi dago, gaur ikusita, hori garbi dago". Eta bukatzeko, beste hau: "Hirigintza politika okerra egin badugu, ikus dezagun zela konpondu dezakegung". Azpimarratu nahi dugu honetaz ohartarazi zuela Ezker Batua-Berdeak-ek, hitzarmena osoko bilkuraren onartu aurretik, eta grabazioetatik ondorioztatu daiteke udal teknikariek ere iritzi antzekoa zutela: "(...) azkenean ezin dugu ahaztu egoera batetik beste batera pasa garela (...) eta diru asko suposatzen duen igoera da". Baina, jakina, "hitzarmeneko datuak onartuak datozenez, zenbat etxebizitzak dira bateko eta zenbat besteko? (...), guri esan ziguten zenbat eta kito".

Harridurarik sorrarazi ez diguna da gure "jokaera" Gobernu batzordetik bota izanaren ondorio dela. Haren agintaldian sarri gertatu zen hori: haren iritzi edo erabakiek bat ez zetorrena norberaren probetxurako eta erresuminez zebilen. Agian, horregatik, udalatzako 20 zinegotziatik 18k haren jokabidea kritikatzen amaitu zuten eta milaka mondragotarrek aurreko agintarien kudeaketa zigortu zuten hauteskundeetan. Azkenik, Ignacio Lakuntzak bere agintaldian eman ez zituen erantzunak emateko borondatea erakutsi duenez, tribuna honetatik gonbidatu nahi dugu eztabaida publiko bat egitera, haren hirigintza kudeaketaren gainean. Onar

ezazu gonbita eta, agian, azkenean jakingo dugu Gelma enpresa Arrasaten geratu zedin onurak ziurtatuta zeudela, zergatik erabaki zenuen etxebizitza sozial eta pribatuaren arteko oreka aldatzea.

## Zintzotasun politikoagatik

**Ignacio Lakuntza**  
(Arrasateko alkate izandakoa)  
Arrasate

Arrasateko alkate nintzela, 2006ko irailean, Ander Rodriguez Lejartza Ezker Batuko zinegotzi eta militanteak nire aurkako bigarren errekursoa aurkezu zuen, epaitegian aurretek atzera bota zuten lehen errekursoaren argumentu berberak erabiliz. Prebarikatzea, funtzionario-eroskeria eta ondasunak bidegabeki xahutzea leporatu zidan errekurso harten Ezker Batuko kideak. Eta, orain, epaileak bertain behera laga du errekurso hori, salatutako arau-urratzeen zantzu txikieta ere ez duelako ikusi.

Une hartan erabakita neukan politika aktiboan ez segitzea eta, erantzun aurretek, epaitegiaren ebaZenpenari itxoitea, kontzientzia garbi neukalako irregularitasunik txikieta ez nuelako egin. Gainera, ziur nengoentzako agerian egin nituela, salaketa eta asmakeriaren gainetik; izan ere, ziur nengo-en kontu hau guztia bukatu den moduan bukatuko zela; hau da, kasua artxibatuta.

Tarte honetan, Bergarako epaitegian izan diren aldaketa direla-eta, kasua hiru epaile ezberdinak eskuetatik pasa da eta epaia nahi baino gehiago atzeratu da. Epe horretan ez dut gura izan jendartera agertu, ebazpenaren zain, nire buruari agindu nion bezala.

Salaketa oinarrizto zen Arrasateko Udalak Gelma gunean egindako operazioan. Hala, osoko bilkuran onartu ostean, hitzarmena sinatu zen Udalaren eta Fundiciones Gelmaren artean, lortzeko, batetik, galdegiak Arrasaten segitza eta, bestetik, etxebizitzak egiteko -baita etxebizitza sozialak ere- plana adostea.

Sakonean, halere, beste arrazoi batzuk ere baziren, Rodriguez Lejarza zinegotzia Udal Gobernuk botatzea ekarri zutenak: zinegotzi horrek nahi baitzuen errentan emateko etxebizitza sozialak bere alderdi politikoak kudeatzea, Eusko Jaurlaritzaren bitartez, eta ez hartarako egin zen deialdian irabazle ateratzen zenak.

Gaur egun, denborak ematen duen perspektibarekin, mondragoetarrek ikus dezakete operazioa. Udalak lortu zuen akordio bat, etenda zegoen negoziazioa desaktibatzea ekarri zuena, Fundiciones Gelmak Arrasaten jarraitzen du, Obenerreka enpresa sustatzaileak nahi zuena baino gutxiago lortu zuen, etxebizitza babestuaren sustapena oso aurreratua dago eta etxebizitza pribatuaren sustapenak aurrera jarraitzen du, higiezin merkatuaren gorabeheretik. Bestalde, alokairuzko etxebizitza sozialen gainean, aipatu nahi dut lehiaketa irabazi zuen finantzaz erakundeak laster amaituko duela sustapena.

Politikaren jokoa gogorra da, aitorzen dut. Baina are eta gogorragoa da akusazio pertsonal eta salaketa publiko- etan oinarritzen bada. Hau ez da nire estiloa eta hala jakinari nahi izan nien arrasateareni, eta eskerrak eman dizkiet horiei, herriko alkatea izateko eta Udalaren modernizazioaren gidari izateko hautatu nindutelako.

Uste dut, era berean, zentzurik bako salaketa honek, nire pertsonari kalte egiteaz gain, Arrasateko herriaren irudiari ere kalte egin diola; batere fundamentalik barik, gainera. Politika ez dela judizializatu behar esanez, ahoa betetzen zaie alderdi batzuei eta, ostera -bistan dira gertaerak-, justu kontrakoak egiten dute. Egia esan, inori ez die mesederik egiten.

Gaur da eguna ez dudala ulertzen Ander Rodriguezzen eta Ezker Batuaren jokabidea. Publikoki errektifikatzea espero dut. Nik eskertuko nuke eta uste dut Arrasatek ere bai. Edozerk ez du balio. Oso larriak dira irain pertsonala eta hartutako erabakiek ados ez egotearren, jardun politikoa judizializatzea... eta

politika egiteko moduari eta Arrasateko herriari egiten die kalte.

Horregatik eskatu nahi dut dezentzia politikoa. Nire herria zuzentzen zabiltzate-nondako onena gura dut, baina, mesedez, ez zaitezte hasi labankadaka, joko politikotik haratago. Jakin behar da proposatzen, negoziatzen, amore ematen, irabazi-galtzen... Hori gidoian idatzita dago. Mondragoek merezi du estilo jatorragoa, ideiak kontrajarri edo alderatzea, horrek dakarrelako sormena; alboko ulertzan lagunduko diguten jarrerak behar ditu gure herriak; ekarpenak, hortik sortuko direlako ekimen berriak.

Gora Arrasate.

## Krisia

**Amagoia Arenaza**  
Arrasate

Krisi hitza ahoz aho dabil aspaldixan kalien. Aurrekuen elkartu nintzen aspaldiko lagun batekin eta berak esandakuak zer pentsatu egin zusten. Berriketan laster zan bixon berbatan. Baina berak zera ezan zusten:

- Krisia badator bai, baina euskaldunontzat aspalditxo dau hemen!
- Ze esaten zabitza ba?
- Ikusi besterik ez dau!

Domekan ordu bat Guardia Zibilaren kontrolen. Ereinu 20 minuto, eta atzo aurrera, baina dozena bat gazte bazegoen mendira begira, eta gazte bi lurrien etzinda. Hau ez da normala! Laister Palestinan letxe! Aspaldixen errepresiune maila gorenien dabil eta gure herrixen be agertzen da. Ia egunero polizia kontrolak das-eta.

Ta nik hori salatzia nahi dot. Ez dot polizia kontrolik nahi, bertan inpunitate osoz jokatzen daudelako.

Kontrol bakoitzeko, nork edo nork, seguru hau momento desatseginaz at, irainak, mehatxuak edo kolpeak jasoko dituela. Ezin dou hau onartu. Hurrengua ni neu edo zu zeu izan gaitezke kontrol batekin topo egingouenak. Eta orduan zer? Nik esaten diot: horrek hemen herrixen hobeto egongo die ba! Eta gu euren barik duda barik!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauetako epaitegira eta abizena, herria eta harremetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefona:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goinena.com

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

Goiena.net

[www.goiena.net-eko-blog-komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog-komertzialak)





## Zerbitzurik arinenak bakarrik oparitu diezazuke ordenagailurik arinena

Erabili kutxanet eta ordenagailu ultraeramangarri baten  
eguneroko zozketan parte hartuko duzu

Doako zerbitzua, erabilerraza, bizkorra eta segura.  
24 orduz egunean, 365 egunez urtean. Zure ohiko kontsulta eta  
eragiketa guztiekin.

**38 ordenagailu ultraeramangarri zozketatuko ditugu  
irailaren 8tik urriaren 15era bitarte.**

Egin zeure eragiketak **kutxanet**, eta har ezazu parte zozketan.



Neurriak: 24,8 X 16,9 X 3,2 cm.  
WIFI, Webcam, WINDOWS XP HOME...  
Zozketaren oinarriak [www.kutxa.net-en](http://www.kutxa.net-en)

**zer nahi duzu bihar?**

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

**UDAL EUSKALTEGIAK**



[www.UDALEUSKALTEGIAK.NET](http://www.UDALEUSKALTEGIAK.NET)

**08-09 IKASTURTEA**

**MATRIKULA ZABALIK**

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
 Arimazubi plaza 2  
 (Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)  
 20500 ARRASATE  
 Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Faxa: 943 79 91 43  
[euskaltegi@arrasate-mondragon.net](mailto:euskaltegi@arrasate-mondragon.net)

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
 Zabalotegi 13, 20570 BERGARA  
 Tel.: 943 76 44 53  
[berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)  
[berg.euskudal@euskalnet.net](mailto:berg.euskudal@euskalnet.net)

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**  
 Nafarroa 2-4, 20550 ARETXABAleta  
 Intxartxueta 10, 20540 ESKORIATZA  
 Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62  
[leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)



**UDAL EUSKALTEGIAK**

**WANTED**



- 16 urtetik gorako pertsona
- Gizona edo emakumea
- Bertakoa edo kanpokoa
- Ikaslea, langilea, langabea edo jubilatua
- Eta... euskara ikasteko behar, borondate edo gogoarekin

**27 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro. HABEko diplomak. Egokitutako ordutegiak. Bekak...**

**MATRIKULA ZABALIK** **Titulu ofizialak** **MATRIKULA ZABALIK**

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

# Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz-Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Elgetan edo Antzuolan bizi zara?

**Debagoieneko Mankomunitateak konpostagailuak banatzeko hirugarren kanpaina jarriko du martxan.**

**Debagoienean bizi bazara eta bertan lorategia, lursaila, baratza edo antzekorik baduzu, deitu ezazu Debagoieneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.**

Eskerak egiteko epea: irailaren 22tik urriaren 3ra, 8:30etatik 12:00etara. Konpostagailu kopurua mugatua da (170 konpostagailu banatuko dira).

**Informazio gehiago nahi izan ezkero:**  
**Debagoieneko Mankomunitatea.**  
**Nafarroa Etorbidea 17.**  
**20500 Arrasate.**  
**Tel.: 943 79 33 99.**



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



# Herriak

Arrasate > 18-19 Bergara > 24-25 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> BERGARA  
Agorrosin ekintza  
gunea garbitu  
dute; hilaren 22an  
irekiko dute > 25



> ARETXABAleta  
Gaur zabalik  
geratuko da  
kultura etxeko  
gazteleku > 32



> OÑATI  
Bihar, 150 neska-  
mutiko irtengo dira  
haurren  
danborradan > 33



> ESKORIATZA  
Aranburuzabalan  
eta Kuatruenan  
etxebizitzak egin  
gura dituete > 34

ARRASATE > KATUAK

## Kaleko katuak kontrolatzeko azalpenak emango ditu Bubastik

### HITZALDIA GAUR

19:00etan Arrasateko  
Kulturaten katuen  
kontrolaren gaineko  
hitzaldia egingo da

### BUBASTIS ELKARTEA

Oreretan lanean ibili  
den elkartea bere  
esperientzia azalduko  
du Kulturaten

NEREA MENOR > ARRASATE

Arrasateko Aldai, Muxibar, Makatzena eta Uriburu auzoetan arazo nahiko larria dago biztanleen artean kaleko katuak direla-eta. Bi jarrera kontrajarri daude: batetik, katuen alde agertzen direnak, janaria ematen diete eta zenbaitzuek albaitariarengana ere eramatzen dituzte; beste aldetik, aurka dauzenak: ez dituzte katuak inguruan nahi, zikinka handia pilatzen delako eta "katuak etxeetan sartu izan direlako", dio Moises Altunak, Arrasateko Udaleko teknikari-buruak.

Gaurko, 19:00etarako, Kulturaten Bubastis elkartearen hitzaldia antolatu da kaleko katuen kontroleari eta laguntzari buruzko informazioa emateko.

Udalak kalean abandonatuta dauden animalien gaineko erantzukizuna duela dio Animalien Babeserako Legeak. "Beraz, batek, legea dugu; eta beste alde batek, jendearen arteko liskarra. Horregatik, Oreretan lan fina egin duten Bubastis elkarteko ordezkarriak ekarriko ditugu hitzaldira, eta euren lana zertan datzan azalduko digute", dio Moises Altunak.

### BUBASTIS ORERETAN

Bubastis voluntarioek osatutako elkartea da. Bubastis Egiptoko hiri bat da eta katua animalia sakratutzat zuten bertan. "Elkartean ez dugu animalia goraipatu nahi, baina haren duintasuna berreskuratzeko lanean gabiltza", dio Josune Gomezek, elkarteko lehendakariak. Abenduan urte-



Josune Gomez Lagos katazuloekin, animaliak harrapatzeko eta elikatzeko erabiltzen dituzte elkartean.

BUBASTIS ELKARTEA

bete egingo du Oreretan lanean hasi zirenketik, eta oraingoz emaitza onak lortu dituzte: "Kaleko 57 katu adoptatu dira herrian, eta katu poblazioa kontrolatuta dugu erabat". "EZ da animalien arazoa

soilik, gizakiok izan gara katuak abandonatu ditugunak eta guk eragin dugu arazoa. Horregatik, kontzientziatzea da lan garrantzitsuena, eta askotan zailena. Hori lortzeko, kaleetan egoten gara.

Elkartean 51 baziak garen arren, kaleko lana egiten dugunok hamar gara, eta herrian zehar ibiltzen gara jendearekin hizketan. Boluntarioak gara eta gure lanorduetatik kanpo egiten dugu lan hau, bai-

na hainbat udalerri gure lanean interesaturik daudela ikustea animatu egiten gaitu. Arrasateko Udalak, adibidez, zuzenean deitu zigun, eta haren aldeko puntu bat da hori, normalean herritarrek deitzen digutelako".

Josune Gomez Lagos > Bubastis elkarteko lehendakaria

### "Abandonuaren aurkako kontzientzia zabaldu nahi dugu"

N.M. > ARRASATE

Bubastis elkartearen sortzailea da Josune Gomez, eta bertako boluntarioa. Kaleko lana egiten du: jendearekin berba egin eta katuak jasotzen ditu albaitariaren-gana eramateko edo bere etxeen sartzeko, adoptatuak diren bitartean.

Zergatik sortu zen Bubastis elkartea?

Nazkatuta geundelako egoerarekin, katuak kontainerretan eta pozoituta aurkitzearekin. Hori guztia aldatu nahi izan dugu eta lortzen gabiltzala dirudi. Elkartearen helburu garrantzitsuena animalien abandonuaren aurkako

kontzientzia zabaltzea da. Kanpainaren muina, beraz, kulturala da eta pertsonen hainbat ohitura aldatzean datza.

Animaliak biziki maitatu behar al dira zuen lanean?

Katuak asko gustatu behar zaizkizu. Boluntarioak gara eta oso harro gaude egiten dugunarekin, baina lan nekezada eta lanorduetatik kanpo egin beharrekoa.

Pozik al daude Oreretan egiten zabiltzaten lanarekin?

Oraingoz laudorioak gailendu dira, nahiz eta iritzi txarraren bat edo beste ere egon den; jendearen erreakzio honek indarra ematen digu aurrera jarraitzen.

### SOSTENGU-TALDEAK ARRASATEN

Arrasaten sostengu-taldeak sortu nahi ditu elkartea: "Gu ezin gara beste herri batuetara joan, lan izugarria delako. Gure ideia da beste herri batuetan sostengu-taldeak sortzea. Guk estatutuak eta behar duten guztia eskainiko dizkiegu eta erraztasun guztiek emanago dizkiegu horretarako".

Udaletik jendea animatu nahi dute gaurko hitzaldira joateko: "Herritar guztiei zuzendutako ekinmena da; ea denon artean kontzientzia hartzen dugun, eta katuak gure artean era neurtu eta kontrolatuan onartzen ditugun", dio Moises Altunak.



## kale inuesta

# Zer iruditzen zaizu Domingo Irala kale berritua?



Mari Paz Zubialdea  
Langilea  
Arrasate



Jose Luis Arregi  
Langilea  
Bergara



Liset Mendez  
Langilea  
Bergara



Txomin Cabo  
Langilea  
Bergara



Jabi Olasolo  
Langilea  
Bergara

Asko gustatzen zait kalearen itxura berria. Eserlekuak ere politak dira. Kale-argiak ere ondo daude, garestiak izan arren. Orain, gainera, ezin izango da autorik ibili, hobeto paseatu ahal izango da.

Kale berriztatua lehen baino hobeto dago. Autoak ez dira ibilikoa, eta hori eskeretzeko da. Zaborrarendako ipinitako ontziak ez zaizkit politak iruditzen. Kaleak lasaitasuna irabazi du berritze lanekin.

Aldaketa asko gustatzen zait. Kale horretan, gainera, dendak daude eta orain lasaitasun gehiagorekin paseatu daiteke eta baita tabernako terrazetan egon. Itxura berriarekin herriak asko irabazi du.

Kalea oso polita da, baina berritzte lanak Irizar jauregia dagoen parkeraino egin behar zituzten. Hala eta guztiz ere, kale zabala gelditu da, oinezkoendako egokia, eta herriak asko dituztenean hobeto geldituko da.

Aldaketa onerako izan da. Lehen baino politagoa dago orain. Oinezkoendako ondo dago, baldin eta autoek errespetatzen badute. Zuhaitzak ipintzen dituztenean hobeto geldituko da.

## txistuak



OIHANA ELORTZA

# Etoe surrealdeko parkearen egoera txarra



Aste honetako kexa Oñatik dator. Oñatiko Etoe aurreko aldean dagoen parkea egoera tamalgarrian dagoela adierazi digu irakurle horrek; erabat apurtuta. "Ugarkaldeko obrak egiten hasi zirenean egoera horretan gelditu ziren; obrak amaitu dituzte, baina ziburuak ez dituzte konpondu. Noiz arte? Udalak ez du asmorik berriro ziburuak jartzeko?", amaitu du.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

150

Bihar ospatuko da Oñatin haurren danborrada San Migel jaien barruan. Guztira 150 neska-mutiko irtengo dira danborradan; besteak beste, danbor-jole, barrilari, sukaldari, inude eta herriko elkarrekin ezerdinako banderadunak. Ospakizuna 18:00etan hasiko da, Santa Marina plazan.

Eta orain zeinek emango dio buelta horri guztiari? Urteetan izugarri aberastu diren horiek? Lan makala izango dugu orain, eta gehien galduko dugunak betikoak izango gara.

## 5 galdera...

### Arantzazu Ibarrondo

Liburutegiko arduraduna  
Oñati

#### 1. Uda garaian eta urtean zehar jende kopuru berbera hurbiltzen da liburutegira?

Ez; neguan udan baino jende gehiago dugu. Erabiltzaile mota ezberdinak ditugu: langileak, ikasleak, erretiratua... Irakurlea den erabiltzailea urtean zehar berdin etortzen da, udan nahiz neguan. Ikasleak, ordea, ikasturtean zehar etortzen dira eta oporetan, zoritzarrez, desagertu egiten dira gehienak. Beraz, liburutegia beteta izateak ez du esan nahi gehiago irakurtzen denik.

#### 2. Noiz uste duzu irakurten dela gehiago, udako oporetan edo urtean zehar?

Uda partean lasaiago gaude eta denbora gehiago dugula esango nuke. Orain lehen baino gehiago irakurtzen da, dudarik gabe, eta merkatuan dugun eskaintza inoiz baino zabalagoa da.

#### 3. Gazteek etxeen teknologia berriak edukita -Internet, esaterako-, lehen bezala joaten dira liburutegira?

Nik esango nuke lehen baino gehiago etortzen direla. Haur liburutegien eskaintza gero eta hobea da eta, umeen nahiz gurasoen artean, liburutegira etortzeko ohitura orain lehen baino finkatua dago.

#### 4. Zein izan da urtean zehar gehien irakurri den generoa?

Orokorean, nobelak dira, beharbada aisiaaldirako egokie-nak direlako. Dena den, ez dugu ahaztu behar gaur egungo liburutegietan euskarri ezberdinak ditugula: hau da, liburuak, DVDak, CDak... eta azken horien mailegu mugimendua izugarria dela.

#### 5. Zein adinetako jendea joaten da normalean liburutegira?

Adin guztietako erabiltzaileek etortzen dira, ez bakarrik umeak edo ikasleak. Ohitura aldaketa hori pozgarria da. Liburutegiak publikoak dira, denontzat; gure bailarako liburutegietara hurbiltseko animatzen dut jendea.



HEZKUNTZA &gt; HELDUAK

# Helduen Heziketa Iraunkorra: 20 urte Ferrerriasko egoitzan

Arrasaten zentroa zabaldu zutenean 100 ikasle eta hiru irakasle ziren; aurten, 300 lagun pasatxok eman du izena eguztenean hasi zen ikasturterako

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Zorioneko dabilta Helduen Heziketa Iraunkorrean (HHI) ikasturte hasieran. Bi arrazoirengatik: bata da aurten 20 urte betezen dutela Ferrerriasko kalera etorri zirenetik: "Urtebete lehenago zabaldu genuen zentroa, Musakolako eskola publikoan, baina hurrengo ikasturterako hementxe geunden", kontatu du Lourdes Jauregialtzoz zuzendariak.

Bigarren arrazoia da lortu dutela Udalak beste ikasgela bat lagatzea, asko handitu da-eta era-biltzaile kopurua: "Hasieran 100 ikasle eta hiru irakasle ziren; aurten dagoeneko 300 lagunek baino gehiagok eman dute izena eta 15 irakasle gara". Ikasgela berria lehengo IMIn izango dute. Edozelan ere, zentroko zuzendariak gogora ekarri du badirela zortzi bat urte-edo Udalari lokal berria eskuatu ziotela: "Hau oso-oso txikia geratu zaigu. Esan digute eskaera asko daudela, eta zain gaude".



Eskolako irakasle eta ikasle batzuk, egoitzaren kanpoko aldean. IKER BARANDIARAN

## ESKOLA PUBLIKOA DA

HHIn matrikulatzea doan da: "25 euro kobratzen dugu urte guztiko, materialerako"; 18 urtetik gorako edozein joan daiteke. Ikastetxe publikoen funtzionamen-

dua du, beraz, HHIk, eta irakasleak ere, gehienak, bestelako ikastetxeetan ibilitakoak dira.

Eskaintzari dagokionez, zabaleta da. "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen dugu; hemen

## Eskolan dauden ikasgaiak

DBH (titulua eskuratzeko)

Informatika

Inglesa

Frantsesa

Euskara

Unibertsitatean sartzeko prestakuntza (Sarbide)

Goi mailako zikloetarako azterketa prestakuntza

Filosofia

Artearen Historia

Kultura Orokorra

Alfabetizazioa (idazten eta irakurtzen erakutsi)

Gidabaimena ateratzeko lagunza eskolak

ITURRIA: HELDUN HEZIKETA IRAUNKORRA

ere titulua eskura daiteke", dio zuzendariak. Bestelako ikastaroak badirela ere kontatu du: "Ingelesean, Artearen Historian eta Informatikan zozketa egin behar dugu, jende gehiegik eman du-eta izena". Horrez gain, bitxikeria moduan, gidabaimena ateratzen lagunzeko eskolak ere badira. Ikasleek, gainera, erraztasun handiak dituzte: "Eskolak goizez, arratsaldez zein gauez har daitezke".

Aurtengo ikasturtea oraingo asteko eguztenean hasi zuten, eta ekainera arte jardungo dute.

LANA

Erizain,  
administrari  
eta besteren  
beharrean

Urrian funzionario  
izaera duten  
lanpostuetarako deia  
egingo du Udalak

## U.M. > ARRASATE

Hiru lan poltsa osatzeko deialdia egin du Arrasateko Udalak: erizainen lan poltsa, administrariena eta administrari laguntzaileen lan poltsa. Irailaren 22ra arte dago izeina emateko epea (BAZ).

Lan poltsetara aurkezteko badira betebeharreko baldintza batzuk. Adibidez, erizainen lan poltsara aurkeztekoharrezkoa izango da Erizaintzako diplomaduna edo osasun laguntzaile teknikoa izatea. Administrarien lan poltsarako, berriz, goi batxilergoa, Lanbide Heziketa bigarren mailakoa edo haren baliokideren bat eduki beharra dago. Eta administrari laguntzaileen lan poltsarako, honako titulu akademikoren bat eduki behar da: eskola graduatua, Lanbide Heziketako 1. mailako titulua edo baliokidea.

Aurkezten direnek ez dute azterketarik egin beharrik izango. Hori bai, aurkezten beharreko agiriak jatorrizkoak izan beharko dira, edo, bestela, behar bezala konpulsatutakoak.

**UME**  
orain Iturriotz 23an ere bai  
(plaza ondoan)

3 hilabeteetatik 16 urtera  
bitarteko aurren jantziak.

Orain, Ume Iturriotzen erosketa bakotze  
**%5eko deskontu txartela**  
jasoko duzu, hurrengo erosketan  
erabili edota pilatzen joateko.

Iturriotz 23 • ARRASATE  
943 77 02 76

ESCADA

Chloé

ELLE

DKNY

Timberland



INGURUMENA > MUGIKORTASUN ASTEA 2008

# Emisio txikiko ibilgailuak probatzeko

Bihar Bir-Zikleta izango da, eta asteburuan, auto hibrido, elektriko eta 'segway'-ak probatu ahal dira

**UBANE MADERA > ARRASATE**

Mugikortasun Astearen ekitaldi nagusiak asteburuan izango dira. Bihar, 5. urtez, Bir-Zikleta izango da (bigarren eskuko materialen azoka), 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Zapatu eta domekan, berriz, emisio txikiko ibilgailuen erakusketan izango da, Biterin: "Auto hibrido, elektrikoak, bizikleta elektrikoak, paseokoak, patinetek elektrikoren bat, motor elektrikoak...", kontatu du Ingurumen Saileko Nerea Lazpiur teknikariak. Ibilgailu horiek

probatzeko aukera izango dela ere esan du: "Egongo dira ibilgailu saltzaileak eta izango da aukera auto hibrido, bizikletaren bat eta segway-ak probatzeko. Azken horren harira, zirkuitu bat egongo da Biterin, bihar goiz eta arratsaldez eta domekan goizez. Edozeinek probatu ahal izango ditu ibilgailuak; jakina, auto hibridoan ibiltzeko eta elektrikoaren dako gidabaimena behar da". Adierazi du, baita ere, biziketak herriko hainbat saltokik ekarriko dituztela, "Lizarralde, Sportland eta Loramendik, adibidez".



Hiru egunean Udal Azokan izan dira, Bir-Zikletarako materiala batzen; argazkian, batutako bizikleta batzuk.

U.M.

**BIZIKLETA IBILALDIA**

Emisio txikiko ibilgailuen kontua, gainera, berria da: "Lehenengo aldia da. Gogoa daukagu ikusteko ze material ekarriko duten eta zein harrera duen herritarren gida; horren arabera, errepikatzeko aukera izango dugu".

Asteburua borobiltzeko, domekan bizikleta ibilaldia egingo dute: "11:00etan Seber Altubetik aterata-

ta. Nobedade moduan, Eskoriatzan ere antolatu dituzte ekintza batzuk eta bizikleta bira elkarrekin egingo dugu. Eskoriatzakoak iristen direnean, Torrebasora joango gara, han ogitartekoan janago dugu eta gero eskoriatzarrak han geratuko dira eta gu bueltau egingo gara. Edozeinek parte hartu ahal du, ez dago izena eman beharrik. Baino bira bukatzen

denean, zozketa bat izaten da eta hor ikerlek bakarrik parte hartu ahal dute. Zozketatzen ditugu paseoko bizikletak, giltzarrapoak, kaskoak eta halako materiala", azaldu du teknikariak.

Mugikortasun Astea amaitzean, astehenean Autorik Gabeko Eguna da eta bi tailer antolatu dituzte Txatxilipurdirekin; Seber Altuben dira, 17:00etan.

**MERKATARITZA > IBAI-ARTE TXARTELA**

## Urriaren hasieratik aurrera erabili ahal izango da Ibai-Arte Txartela, erosketak egiteko

Ibai-Arte Txartelarekin erosiz gero, funtzionatzen hasi eta aurreneko hilabetean %5eko beherapena izango dute guztiak

**U.M. > ARRASATE**

Urriaren lehenengo hamabostaldian hasiko da funtzionatzen Ibai-Arte Txartela. Ibai-Arte elkartearak emandako datuen arabera, 500 txartel baino gehiago eskatu dituzte eta 100 saltoki inguruk bat egin du proiektuarekin.

Ibai-Arte merkatariak elkartearak ekainean aurkeztu zuen bezeroak fidelizatzeko egitasmo hori. Helburua da bezeroen erosketak

"saritza" eta "Arrasateko merkataritzan berrindartu eta etorkizunari begira aurreikusten diren erronka handiei aurre egiteko tresna" eskaintza.

Elkarteko kideak pozik daude orain arte lortutako erantzunarekin; hala adierazi du Arantza Arantza Arantza, elkarteko presidenteak: "Pozik gaude, bai. Geroago eta gehiago datozen dendetara txartelaren gainean galdezera".

**ABANTAILAK**

Txartela eskuratzeko duenak abantailak izango ditu: deskontuak, erosketak finantzatzeko aukera, puntuen truke opariak eta beste: "Ordaintzeko erabil daiteke edozein txartel moduan, eta ez dago banketxez aldatu beharrik; dirua norberak esaten duen kontutik kentzen dute, ez da beharrezkoa

Caja Ruralen konturik zabaltza, azaldu du Arantza Arantza. Gainera, txartela funtzionatzen hasi eta lehen hilean txartelarekin erosketak egiten dituztenek %5eko beherapena izango dute.

Horrek guztiarekin batera, kreditua ere badu txartelak: "Banquetxeak ematen du 1.200 euroko finantzazioa; hau da, kontu korrontean dirurik izan ezean, 1.200 euroko kreditua dauka, interes barik. Hortik aurrera, finantzazio handiagoa behar izanez gero, banketxearekin ipini beharko du harremanetan".

Ibai-Arte eta Caja Rural Navarrak elkarlanean bideratu dute txartela. Doan eskura daiteke, Ibai-Arteko saltokietan edo Caja Rural Navarraren bulegoan; hasierako eskaerek, gainera, guardasola dute opari.

> OSPAKIZUNA

### Meza eta bazkaria egingo dituzte bihar zortzi, Alkartetxearen 22. urteurrena ospatzeko

Hilaren 27an, Eusko Alkartasunak Alkartetxearen 22. urteurrena ospatuko du. 12:00 etan meza esango dute San Frantziskon eta 14:00etan, bazkaria Alkartetxean. Bazkarirako izena emateko, Alkartetxetik pasa edo 943 712 788 telefonora deitu beharra dago.

> HITZALDIA

### Presoen gaineko hitzaldia izango da datorren egunean, Espetxe Pastoraltzak antolatuta

Iraialaren 25erako, Kulturaten, hitzaldia antolatu du Espetxe Pastoraltzak: *La reaccion de Jesus ante un preso*. Hizlaria Arantxa Azkue izango da -Gipuzkoako Giza Eskubideen Sariduna eta orain Martuteneko kartzelan diharduena-; 18:00etan da hitzaldia.

> ELKARTASUNA

### Odol ateratzeak egingo dituzte Arrasaten, irailaren 24an eta 25ean eta urriaren 1ean eta 3an

Arabako Odol Emaileen Elkarteko kideak datorren asteko eguzaten eta egunean eta urriaren 1ean eta 3an izango dira Arrasateko osasun etxean odola ateratzen boluntarioei. Ohi duten moduan, arratsaldez izango dira, 16:30etik 20:00ak bitartean.



## ARRASATEKO BEDONABE HAURRESKOLA

### Matrikulazio epea zabalik

**NOIZ:** Irailaren 17tik 30era.

**NON:** Arrasateko Bedonabe Haurreskolan (Alfonso VIII. 1)

**NORENTZAT:** 2007 eta 2008 urteetan jaiotakoentzat.

**NOIZTIK – NORA:** Azaroan, abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.

**MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA:** 09:30etatik 16:00etara.

Harremanetarako zenbakia: 943 79 76 86



EPAITEGIAK &gt; GELMA AUZIA

# EB-Zutik ez dago ados epaiarekin

Epaileak Lakuntza eta Loiti alkate ohien eta Guibert enpresariaren kontrako epaiketa bertan behera utzi du, "nahikoa froga" ez

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Bergarako epaitegiko instrukzio epaileak erabaki du Gelmako auzia bertan behera uztea; zera argudiatuta: "Egindako azterketen ostean baiezta daiteke ez dagoela salatutako arau-hausten gaineko nahikoa froga".

Gelmako auzian Arrasateko bi alkate ohi (Inazio Lakuntza eta Jose Mari Loiti) eta enpresari bat (Jesus Guibert) zeuden inputatuta. Ander Rodriguezek, EBko kzinegotziak aurkeztu zuen salaketa, Gelmako etxeen operazioaren harira, hiru akusaziorekin: kohetxoa, diru publikoa bidegabe erabiltzea eta prebarikazioa.

Bada, auzia bertan behera uztearen erabakiarekin ez dago ados EB. Salatu du epaileak ez dituela kontuan hartu Ines Aldai EAJko zinegotzi ohiaren deklara-

ESANAK

**"Oso larriak dira irain pertsonalak, eta hartutako erabakiek ados ez egotearren jardun politikoa judizializatzea"**

Inazio Lakuntza &gt; Alkate ohiak

razioak, eta ezta grabazioak eta beste frogak batzuk ere, eta gaineratzen dute Ines Aldaik publikoki salatu zuenean Gelmaren kasuan "irregularitasun urbanistikoak" izan zirela, EBren "betebehar etikoa" zela epaitegian gertaeren gaineko ikerketa bultzatzea. Salatu dute, baita ere, oraindik ez dituztela "galdera" asko argitu.

ZUZENKETA PUBLIKOA GURA

Bestalde, auziaren emaitza ikusita, Inazio Lakuntzak adierazi zu "denborak ematen duen perspektibarekin" mondragoetarrek ikus dezaketela gertatutakoa. "Udalak lortu zuen akordio bat, etenda zegoen negoziazioa desakitatzea ekarri zuena, Fundiciones Gelmak Arrasaten jarraitzen du, Obenerreka enpresa sustaizaileak nahi zuena baino gutxiago lortu zuen, etxebizitzak babes-tuen sustapena oso aurreratuta dago eta etxebizitzak pribatuak sustapenak aurerra jarraitzen du. Halaber, Rodriguez eta EBengandik zuzenketa publikoa eskatzen du: "Esaten dute politika ez dela judizializatu behar, eta argi dago eurek kontrako egiten dutela (...). Publikoki errektifikatzea espero dut. Nik eskertuko nuke eta uste dut Arrastek ere bai".



Virginia Imaz da lanaren antzezle, gidoilari eta zuzendaria.

EMAKUME TXOKOA

ANTZERKIA &gt; EMAKUME TXOKOA

## 'Enkantatuta' obra euskaraz estreinatuko dute

Emakumea hizpide duen obra, Virginia Imaz antzezlariak hausnarketarako proposamen umoretsua dakar

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

Emakume Txokoak antolatuta, Virginia Imaz antzezle, gidoilari eta zuzendariaaren *Enkantatuta* obraren euskarazko estreinaldia izango da domekan (19:30) Amaia antzokian.

Emakume Txokoak 2008-2009 ikasturteari begira antolatu duen lehen ekitaldia da domekako antzezlana. Gogotsu hasiko dute ikasturtea; izan ere, ez da edonolako antzezlana Virginia Imazen *Enkantatuta*. Obrak emakumea du hizpide eta gizonezkoei ere zuzenduta badago ere, *Enkantatuta* emakumeari zuzenduta dago bereziki.

JARREREI LOTUTAKO ROLAK

Generoari erreparatuz, emakumearen hainbat jarrera jorratzen ditu obrak, pertsonaia ezberdin denbitartez. Hala, Loti Ederra agertzen zaigu, benetako maitasunez

emandako musu bat jaso arte sexualitatea loak hartuta daukan; baita Sirenatxoak ere, maitemindu izanagatik ahotsa galdu duena; eta Ederra, piztiaren tratu txarrak onartzen dituena; eta baita Asto Larra, bere aitaren sexu gehiegikerietatik ihesi dabilena... Hamaika pertsonaia, mai-tagarrien ipuinetaoak irudikatuko dituztenak. Pertsonaia guztiak Imazek interpretatuko ditu.

Pertsonaia horiek errealityetik ateratakoak dira; hau da, Imazek ez du ezer berririk asmatu. Obrako pertsonaiek emakumearen beldur eta desioak irudikatzen dituzte, eta Emakume Txokoak obraren inguruko prentsa ohar baten bidez aditzera eman duenez, "feminismoaren lorpen sozial eta kulturalak gorabehera, emakumeok oraindik ere badugu zer ikasia".

KRITIKA UMORETSUA

Imaz lana emakumeak bere gain hartu dituen zenbait mito ukatzen dator, eta ondorioz, hausnarketa bultzatuko duen antzezlana da. Hori bai, proposamen umoretsua da *Enkantatuta*, eta, beraz, barrea eraginez auto-kritikarako balioko dio etzi antzokira gerturatzen den edonori.

ZINEMA

## Amaiak hartuko dio errelebua Monterroni

Udako zinema amaituta, Amaian izango dira filmak

J.B. &gt; ARRASATE

Joan den egubakoitzean amaitu zen udako zinema, eta datorren udara arte ez da Monterron parkean pelikularik proiektatuko. Aurrerantzean, zinemazaleek Amaia antzokira joan beharko dute filmak ikustera.

ZINEMA DENBORALDI BERRIA

Gaur bertan ikusiko ahalko da Amaia antzokiko lehen filma. Bide batez, uda itxi eta zinema denboraldi berriari hasiera emateko balioko du gaurko pelikulak. Proposamen interesgarri batekin hasiko da, gainera: *Antes que el diablo sepa que has muerto*. 18 urtetik gorakoentzako drama da, gogorra eta erritmo bizikoa. Proiekzioak gaur (22:00), bihar (19:30) eta etzi (20:30) izango dira. Datorren asteburuan, zinema gehiago.

&gt; MUSIKA

## Secret Chiefs 3 talde estatubatuarrak hilaren 27an Amaian

Estatuan egingo duten biraren barruan, lehen kontzertua Arrasaten eskainiko du Secret Chiefs 3 talde estatubatuarrak entzutetsuak. Kontzertua hurrengo zapatauan izango da, hilak 27, Amaia antzokian, 20:00etan. Arrasatetik pasa osean, Bartzelona, Madril eta Porton eskainiko dituzte kontzertuak.

Sarrerak orain ia bi aste jarri ziren salgai, eta, beraz, interesatua mugi dadila. Sarrerak 943 00 12 00 telefona deitzu, Amaia antzokian edo Kutxaren webgunean eskura daitezke, hamar euroren truke.



**Sili Sili**

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturrioz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**Kapikua**  
OPARIAK ETA OSAGARRIAK



Bañez doktorea 4  
(San Andres auzoan)  
Arrasate  
Tel.: 943 79 19 94

**MEHER**



Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

Bañez doktorea 1  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 85

**UGARAN**  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



Zure ametsetako  
naritxtrajea dugu...  
der galant hori.  
turriar  
ahi bade  
turriar  
rdotxo txu

dango  
degun giz

Maritxu Kajoi 2008  
31 urte

Casa Ceciaga

Aurten ere  
festarako ehunka soineko eta traje  
eta milaka osagarri ditugu  
zure gaurik gogokoenerako

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3  
ARRASATE  
Tel/Faxa: 943 79 12 62

2008

Casa Ceciaga 2008  
101 urte  
(Ardo onak nola, urterik urte hobetuz...)

Edu Orgaz > Ford Mugarriko entrenatzailea

# "Jokalariei esan diet kantxan ez dudala gura protestarik; kontzentrazioa galtzea da hori"

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Edu Orgazek (Bergara, 1974) gidatuko du aurten Ford Mugarri Arrasate, Euskadiko Txapelketan. Horren batera, baina, mankomunitateak Debagoiena mailan eskubaloiarekin duen proiektu bat gauzatzeko animatuta itzuli da Galiziako. Izan ere, han egin ditu hainbat urte, ikasten eta emakumezkoen talde bat entrenatzen.

Ford Mugarriren gainean galdeitu aurretik, zein da mankomunitatearekin batera gauzaten zabilzaten proiektua?

Mankomunitatea hainbat kirolekin dabil lanean, eta neu eskubaloiarekin nabil buru-belaarrri. Entrenatzaileen formazioaz arduratzea da nire lana, izan ere, zailtasunak ditugu ibarreko taldeekin lan egingo duten entrenatzaileak topatzeko. Eta oraindik eta gaitzaga da prestakuntza aproposa daukaten entrenatzaileak topatzea.

**Ez da gauza bera nagusiekin edo gazteekin lan egitea.**

Ez da gauza bera, ez. Eta oso garrantzitsua da gure gaztetxoek zer landu behar duten jakitea,

eta ze helbururekin. Kasu askotan talde nagusietako jokalariek izaten dira gero gaztetxoak entrenatzen dituztenak, eta jokaleri horiek entrenamenduan egin dutena gaztetxoekin errepikatu gura izaten dute. Hori ez da posible. Haurrek behar erabat ezberdinak dituzte, eta entrenamenduetako edukiek bestelakoak behar dute.

Hala, jokaleri horiek entrenatzaile izateko gutxieneko formazioa ematen diegu.

Ford Mugarri Arrasate taldeari helduko diogu. Datorren astean hasiko duzu liga, bost astetan gogor lanean ibili eta gero.

Niri sei asteko denboraldiaurreak gustatzen zaizkit, baina egia da bost aste hauetan taldeak gogor egin duela lan. Eurek ere esan didate hori, ez zeudela lan hori egitera ohitura. Hain zuzen, egunotan jokatu ditugun lagunarteko partiduetan igarri da jokalariek leher eginda zeudela.

Baina, denboraldian zehar igarriko dute lan horren fruktua. Gainera, fisikoki indartsu egonda lesioak ekidin daitezke.



Edu Orgaz da Ford Mugarriko entrenatzaile berria.

> MENDIA  
**Domeka goizean ospatuko dute Oroimen Eguna**

Domekan egingo dute Besai-den mendian hil diren euskal mendizaleak gogoratzeko Oroimen Eguna. Egun hori 1955etik ospatzen dute euskal mendizaleek, eta urte horietan guztietan ez da behin ere hutsik egin. Hala, domekan ere asmo berberarekin gerturatuko dira ehunka mendizalele Besaidera.

Egitarauari dagokionez, 11:00etan hasiko dituzte eki-taldeak. Hasteko, hildako mendizaleen omenezko meza izango da, eta ondoren Euskadiko Mendi Federazioko lehendakariak hitzaldia egingo du. Azkenik, txalaparta emanaldiarekin amaituko da ekitaldia.

> PILOTA  
**Ibai Bolinaga pilotariak DV torneoan jokatuko du**

Pilotari gazteendako txapelketa garrantzitsua da DVkoak, eta Arrasateko Ibai Bolinaga promesa mailan lehiatuko da, lehenengo multzoan. Aurtent, gainera, maila handiko pilotariak izango ditu aurrez aurre kategoria horretan. Egian hasiko dute txapelketa, zapatuan, baina urriaren 10ean jokatuko du Bolinagak, Legazpin. Arrasatekoak Apezetxea izango du bikotekide, eta lehenengo kanporaketa gogorra izango da Mendeneta eta Zubiri izango dituzte lako aurrez aurre.

## EUSKARA ESKOLAK

AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

# arrasate

ERDU AEK  
Garibai etorbidea 14, 3

943 77 03 69 arrasate@aek.org

mihia jan dizu katuak?



milaka hiztun berri urtero

IKASI EUSKARA | www.aek.org

- EUSKALDUNZEKO MAILA GUZTIAK / ERRELEBOAK ERE BAI

- ALFABETATZEA 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean.

- MINTZA TALDEA 2 egun astean, ahozkoia lantzeko

- 3. MAILA / EGA 2 egun astean

- 4. MAILA / 4. PERFILEA 2 egun astean + proiektua+tutoretzak

- AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA (ordu eta erdi mintza astero + ordu erdi tutoretza astero + etxerako lan pertsonalizatua)

Matrikula zabalki irailaren 30era arte  
MATRIKULATZEKO ORDUA:

Goizez 11etatik 1etara arratsaldez 6etatik 8etara

Udalaren laguntzaz beka sistema

arrasatearrak kanpoan

Urtzi Arana > Soin Hezkuntzako irakaslea  
Valentzian bizi da

# "Valentzia bizitzeko leku oso polita da, eta jendea, atsegina"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Urtzi Aranak zortzi urte darama-tza Valentzia aldean. Errugbian jokatzen joan zen hango CAU errugbi taldera eta hantxe gelditu zen. Maitemindu egin zen, eta zail ikusten du "nire edo emaztearen lanengatik berriz ere Euskal Herrira itzultzear".

Arana Soin Hezkuntzako irakaslea ere bada. Malilla izeneko auzoan bizi da, Valentzia hegoaldean, Arte eta Zientzien museo ondoan. Jendea atsegina dela dio "baina baita isila ere". Eguraldia ere bikaina egiten du, epela, 20-30 gradu artekoa.

## VALENTZIERA EZ DA ENTZUTEN

"Nik valentziera ikasi dut. Kale- etan valentziera entzuten da baina ez da ondo hitz egiten, jendeak ez du asko erabiltzen, eta ahalegin horretan ari dira batez ere hezkuntzan, ea bultzada bat jasotzen duen", adierazi digu Aranak. Janariarekin ondo mol-

**"Valentziako erdigunea, katedrala, Arte eta Zientzien museoa eta ingurua Turia erreka barruan daude kokatuta"**



Urtzi Arana.

datzen dela aitortu digu Aranak: "Sukaldari on bat daukat etxearen, nire emazte Rakel, gainera gure taldeko fisioterapeuta da".

## VALENTZIAN IKUSTEKOA

"Valentziako erdigunea, katedrala, Arte eta Zientzien museoa eta ingurua Turia erreka barruan daude kokatuta. Benetan oso leku polita da", dio Aranak. Hondartzak ere politak direla adierazi digu, "batez ere El Saler eta La Albufera".

## BETIKO LAGUNAK ETA FAMILIA

Asteburuetan, normalean denboraldi barruan, errugbiko taldearekin daude bera eta emaztea, baina "ahal denean bidaia txikiren bat ere egiten dugu", adierazi digu Urtzi Aranak. Berak betiko lagunak eta familia igartzen ditu faltan, "pixka bat baztertuta ditudalako". "Ume garaiko lagunen berriren bat jakitea ere gustatuko litzaidake", amaitu du Aranak.

bere ustez



Jokin Etxebarria

Armstrong  
berriz  
ilargira?

Kontxa dela eta ez dela ibili gara gure inguruan Kazken aldian, baina joan den astean notizia harrigarri batek bete zituen gure tertulia orduak: Lance Armstrong-ek hiru urteren buruan berriz ere txirrindularitzara buelta-tea erabaki du. Ez da buelta-tea erabaki duen lehen izarra; Jordan, Hingis, Spitz, Foreman... izen batzuk besterik ez dira. Baina, txirrindularitzan ez da ohiko.

Amerikarrak gainera, Tourra zortigarrenez irabaztea jarri du helburu nagusitzat

txutxu-mutxua



JOSE RIVIERE

Abaroakoeak  
Aiarako haranera  
egin dute txangoa

Arrasatetik goizean goiz atera ziren Orozko aldera pasa den astean Abaroa erretiratuen elkartekoak. Bertan, hamarretakoak banatu eta gero, taldea hirutan banatu zen eta bertako txoko batzuk bisitatu zituzten: batzuek ardo museoa ikusi zuten, beste batzuek, berriz, eta gazta lekua bisitatu- eta gazta ere erosiz zuten- eta azken taldeak herria zehar paseatu zuen. Gazta-lekuau

bideo batetik, bertako gazta nola egiten den erakutsi zien. Eguerdi aldean Amurrioko Ruperto jatetxera joan ziren bantzera. Banzkaldu ostean, Bilbo aldera joan ziren hiriburua bisitatzeko. Ondoren, Arrasate aldera egin zuten berriz ere itzulera bidaia. Egun guztian zehar bero asko egin zuen arren oso ondo pasa zuten bertara joan ziren guztiak.

**"EZ nindukeen  
harrituko ilargira  
igotzen bigarren  
Armstrong-a Lance  
bera izatea"**

eta bueltatzea erabaki badu, irabazi dezakeelako izango da. Minbiziaren aurkako borrokan laguntza behar due-lako hartu duela erabakia adierazi du, baina bera guztien salbatzailea bailitzan agertu da. Armstrong nolakoa den ikusita, gainera, famose-otik kanpo egotea ez zitzaiion bat ere gustatuko eta berriz ere kameren lehen planoan egoteko aukerak erabaki horretan zer esana izan due-lakoan nago. 2014rako gobernadore izatea erabaki duela ere aireratu da eta ez nindukeen harrituko ilargira igotzen bigarren Armstrong-a, Lance bera izatea. Kontuak kontu, txirrindularitzaritzat profesionala nolako gogorra den ikusita, bueltatzea erabaki izana, meritu handikoa da. Bejondeiola, beraz.

**IBABE GARAJEAE**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

 Txitxinpe

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**BITTORI**

**ERRETEGIA**

**Eguneko menua - Kartako menua**

**Espezialitateak:**

**legatz kokotxak eta txuleta**

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Udal Euskaltegiaren ikasturte berriaren aurkezpena, prentsurrekoan. O.E.

**EUSKARA > UDAL EUSKALTEGIA**

## Guztiondako euskara proiektuak ditu Euskaltegiak

Ikasturte berrian izena ematen duten ikasleen artean matrikula bat zozketatuko dute

**OIHANA ELORTZA > BERGARA**

Bergarako Udal Euskaltegiak 2008/2009 ikasturtea aurkeztu du prentsurrekoan. Aurtengo ikasturtean ere euskara ikasi gura duen edonorendako eskauntza akademikoa du Udal Euskaltegiak: auto ikaskuntza, euskalkiak, gazte zein adineko atzerritarrei zuzendutako ikastaroa eta hitanoa ikasteko aukera, besteak beste. Aurtengo ikasturteak berritasun bat ere badu: eskola bakoitzak ordu erdiko tutoretza izango du. "Ordu erdi horretan irakaslea ikasle batekin bakarrik egongo da. Asmoa da ikasle bakoitzak hamabostean behin izatea bakarkako tutoretza", azaldu du Alex Labaienek, Udal Euskaltegiko zuzendariak.

**TITULUAK**

Euskararen lau maila irakasten dituzte Udal Euskaltegian eta maila bakoitzak titulu homologatua du apirilean. "HABEREN dekretu hori oso garrantzitsua izan da eta era-gina izan du ikasleengen; lane-rako beste jarrera bat erakutsi dute askok. Ikasi duten euska-

ra maila titulu horretan adierazten da, eta ikasleendako garrantzitsua da hori. Azken ikasturtean oso emaitza onak izan ditugu azterketetan", dio M. Dolores Letek, Udal Euskaltegiko idazkaria.

**MATRIKULA, GORA**

Joan den ikasturtean 173 ikaslek ikasi zuten Udal Euskaltegian, aurreko ikasturtean baino zapiri gehiagok. Matrikula epea hilaren 26an bukatzen da.

**ETORKINENDAKO**

### Miguel Altunarekin elkarlanean

Kontuan izanda etorkin askok formazio ikastaroak egiten dituztela Miguel Altuna institutuan, ikastaro horietan euskara txertatzea da Udal Euskaltegiaren proiektu berria. Uztalean harremanetan jarri ziren Institutua eta Euskaltegia. Asmoa da tailerretan lan egiteko prestakuntzarekin batera, euskararen oinarritzko ezagutzak ere irakastea.

altzari denda  
ikerlek zuharbidea · bergara  
tel.: 943 03 46 30

**UGARTE**  
AROTZTEGIA - ALTZARIAK

**K21**

arotz lanak orokorean  
leihoak  
ateak  
horma-armairuak

erakusketa eta tailerra  
san juan 1a · bergara  
tel.: 943 76 54 91  
faxa: 943 76 08 04**Iñigo Mitxelena > San Pedroko parrokoa**

## "Kristaua eta zoriontsua izatea posiblea da, eta saiatuko naiz kristau elkartea indartzen"

**O.E. > BERGARA**  
Iñigo Mitxelenak (Villabona, 1976) 32 urte ditu eta San Pedroko parroko berria da. Bergara da bere bigarren destinoa. Antzuolako parrokia-ren ardura ere izango du, Juan Kruz Mendizabalekin batera. Zapataun 20:00etan egingo diote ongietorria San Pedron. Gotzaina etorriko da.

**Ongi etorri. Hasi zara herria eta herritarra ezagutzen?**

Eskerrik asko. Poliki, baina bai. Orain arte egon diren Fidel eta Rafael Eizagirrek San Pedro parrokia bera eta elizarenak diren eraikinak erakutsi dizkide. Pastoralean eta Karitasen lanean dabilzan lagun batzuk ere aurkeztu dizkidate.

**Ze aholku eman dizute Eizagi-re anaiek?**

Lokalizazio eta aurkezpen lanak baino ez ditugu egin orain arte, egia esan.

**Juan Kruz Mendizabalekin egon zara, Santa Marinako parrokoarekin?**

Bai. Seminariotik ezagutzen dut eta laguna dut.

**Azken zazpi urteak Azpeitian eta Errezilen egin dituzu. Pena eman dizu hona etortzeak?**

Pixka bat bai, baina apaizok badakigu sei-zazpi urte baino ez ditugula egingo destino bakoitzean, *kontratu* dator hori. Hala ere, ilusio handiarekin nator Bergara.

**Herritarra elizara erakar-tea izango da zure erronka?**

Lehenengo, jendea ezagutzea eta gero, elizako lanen baten implikatzea da nire helburua.

**Zergatik joaten da gero eta jende gutxiago mezetara?**

Jendeak beste lehentasun batzuk ditu, aukera zabalagoa da eta beste gauza batzuek gehiago erakartzen ditu. Eroso bizi gara eta jendeak ez du Jainkoaren beharra sumatzen. Beste

herrialde batzuetan, beste behar batzuk dauden tokietan, ez da hori gertatzen. Hala ere, diruak ez du dena betetzen eta momen-tu larrietan, adibidez, Jainkoaren gogoratzen dira guztiak. Momentu horretan jendearen ondoan egotea da nire erronka, herritarren bidaialaguna izatea.

**Lepoko zuria erabiltzeak ez du distantzia mantenduko?**


Neuk aukeratu dut erabil-tzea, zuzenean identifikatu nazaten. Ez dut uste jendearen gogoratzen dira guztiak. Momentu horretan jendearen ondoan egotea da nire erronka, herritarren bidaialaguna izatea.

**"San Pedro eta Santa Marina parrokietako lanak aurrerantzean batera egitea da asmoa"**

**"Antzuolako parrokiaz ere Bergarako apaizok arduratuko gara hemendik aurrera"**

**Ze mezu eman gura diezu herriarrei?**

Gaur egun posible dela kristaua eta zoriontsua izatea. Saia-tuko naiz kristau elkartea sendo-tzen, indartzen.



Iñigo Mitxelena, San Pedro parrokiaren aurrean.

O.E.

**Mizpildi 3, 1. ezkerra • BERGARA**

**2008-2009 ikasturtea**  
**Ikastaroaren hasiera:**  
**urriaren 1a**

Izenematea: irailaren 30era arte  
Informazio gehiago:  
10:00-12:00 eta 18:00-20:00  
**943.76.30.55**

**FRANTSSES IRAKASKUNTZA**

KIROL GUNEA > AGORROSIN

# Aste osoan garbiketa sakona egin ostean, astelehenean zabalduko dute ekintza gunea

Astelehenetik aurrera Agorrosin Ekintza Gunea zabalik egongo da neguko ordutegi berriarekin; ikastaroetako plazentzozketa irailaren 22an egingo da, eta horien hasiera, irailaren 29an

JASONE ZABALA > BERGARA  
Astelehenean hasi eta datorren domekara bitartean Agorrosin Ekintza Guneko kirol eremuak itxita egongo dira. San Martin jaiak aprobetxatuz, bertan konponketak, legionella protokoloak eta desinfekzio lan sakonak egiten ari dira. Amaia Zabaleta Agorrosin Ekintza Guneko gerentearen arabera, "astelehenean hasi ginan igerilekuak husten eta garbitzen, eta domeka honetarako dena bukatuta egongo da. Garbiketa sakon horiek Osasun Sailak eskatuta egiten ditugu eta guztiz beharrezkoak dira". Lanak ekinzia gune guztian egin dira.

NEGUKO ORDUTEGIA  
Bestalde, irail hasieraz gero neguko ordutegia dago eta kanpoko berdegunea itxita. Hain zuzen, astelehenetik egubakoitzera 07:00etartik 22:00etara egongo da irekita;



Astelehenean garbitu ondoren, martitzenean bete zuten berriz ere urez igerileku handia.

IKER IBARGUREN

zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

#### 'WWW.AGORROSIN.NET'

Udaleko Kirol Zerbitzuak, bestalde, Agorrosin Ekintza Guneko informazioa lortzeko beste bide bat ireki du: Agorrosingo webgunea ([www.agorrosin.net](http://www.agorrosin.net)). Berton, instalazioa bera, abonu, ikastaro eta bestelako kontuen inguruko beha-

rrezko informazioa jasoko da. Ikastaroetako plazei dagokienez, zozketa datorren astelehenean egindo da. Izena eman duten pertsonen kopurua 1.100 izan da, eta guztira 1.300 plaza daude; arazoa ordu eta jarduera jakin batzuetan egongo da. Beste izenemate epe batzuk irekiko dituzte: irailaren 22tik 24ra, plazarik ez dutenendako soilik, eta 25ean, edonorendako. Irailaren 29an hasiko dira ikastaroak. Webgune hori erabiltzai-learengana hurbiltzeko lehen

urratsa da; eta bigarrena, *mailing* eta SMS bidezko komunikazioa. Azken horiek 2009an ipini nahi dituzte martxan.

Kanpoko igerilekuari dago kionez, Unai Asurmendi Udaleko Kirol teknikariak hauxe azaldu digu: "Urte amaiera baino lehen lanak hasteko asmoa dago, baina aurretik beste lan batzuk egin behar dira; arkitektoarekin exekuzio proiektua egiten gabiltza eta ondoren igerilekua egindo duen enpresa adjudikatu nahi da".

#### > IKASTAROA Nork bere burua hobeto ezagutzeko autoestimu ikastaroak

Udaleko Gizarte Zerbitzuek emakumeei zuzendutako autoestimu ikastaroa antolatu dute, Pepa Bojo psikologo eta psikoterapeutaren eskutik. Ikastaroa bere burua hobeto ezagutu nahi duen edozein emakumerentzat izango da. Irailaren 22an hasi eta abendu bitartean, astelehenero bi txanda egongo dira. Izena emateko 943 77 91 65 telefonora deitu.

#### > BIDEZKO MERKATARITZA Hileko bigarren asteburuetan jarriko dute salmenta postua

Aurreko urtean, hileko azken zapatuetan Bergarako Santa Marina parroquia ondoan jarriten zuten bidezko merkataritzako postua Saiatuz taldekoek; aurren, hileko bigarren zapatuetan jarriko dute, Santa Marina parroquia ondoan. Joan den zapatuan hasi ziren eta hemendik aurrera hantxe kokatuko dute denda.

#### > ZOZKETA Oriora joan da Osintxuko Kofradixako zozketako saria

Urruti samar joan da abuztuko azken aste bukaeran Osintxuko Kofradixetan egin zen zozketako saria. Hain zuzen ere, 535 zenbakirekin, Orioko Maria Isabel Arrutiren txartela izan zen sari-tua zozketa horretan.

Arrutik bi pertsonarendako Nafarroako baserri turismo batean asteburua igarotzea jaso du sari moduan.

#### > OHARRA Forondan ospatuko den Alderdi Egunera joateko dei egin du EAJK

Bergarako EAJKo Uri Buru Batzarrak datorren hilaren 28an Forondan ospatuko den Alderdi Egunera joateko dei egin du. Bergarako txosnan bazkariak emanago dira. Hara joateko autobus zerbitzua ere izango da, goizeko 9etan aterako da autobus gelotik. Izena eman nahi duenak ondorengo telefono zenbakira deitu behar du: 943 76 47 00.

**DRAGON ORIENTAL**  
  
**Lokal klimatizatua  
Eguna zabalik  
WI-FI GUNEA**  
**943 25 06 77**  
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)  
BERGARA

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA  
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*  
Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**KONDE PANADEROKUA**  
  
Burdineta 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegi

Tibet:  
askatasuna  
denontzat

Mundu osoa Txinara begira egon den uda honetan, tibetar erre-fuxiatuekin egoteko aukera izan dugu Nepalen. Errefuxiatu-eremuak ezagutu genituen, eta Kathmandun tibetarrek antolatutako manifestazio batean izan ginen abuztuaren 14an. Lau egun lehenago 4.000 atxilotu izan ziren, eta manifestazio horretan 2.000tik gora. Bi egunez torturatu ostean kalera ateratzen dituzte eta atxilotuak, zauriak sendatu ondoren, berriro zutitzen dira. Batuta

**"Txinaren okupazioa eta honek eragin duen genozidio kulturala salatzen dute"**

daude tibetarrak. Independentzia eta autonomia zaleak daude, guztiak beren herriaren kontzentzia handia dute, Txinaren okupazioa eta honek eragin duen genozidio kultural eta ekologikoa salatzen dute eta pentsaera batu hori ez du inork zatitu. Nor diren, nondik datozen eta zer nahi duten galdezka hurbilten den orori azaltzen diote konfiantza, sinesmen eta esperanza handiz. Hiru zutabe.

Eztarriak lehertu artean egin zuten oihu, ia hiru orduz, manifestazioan. Bi gauza eskatzen zituzten: "Tibet aske, Txina aske!". Hori da askatasuna sinestea. Baino Txina ez da ohartzen zer irabaziko lukeen Tibet banean utzita. Hori da zapaltailearen kondena.

**Marrazkia, pintura eta marrazketa linealean trebatzea**

Kurtso hasiera: **urriak 2**  
Martitzenetan eta eguenetan **18:00etan**  
Iraupena: **ordu eta erdi.**

Zubieta 11, beheha  
M. Paz Alustiza  
Tel.: 943 76 17 32



Aroztegin kirol argazkien lehiaketara aurkeztutako lanak daude gaurtik; irudian, Benito Canteroren *Paterno Bidean*. GOIENKARIA

**ERAKUSKETAK > AROZTEGIN, KULTURA ETXEAN ETA NAHIKARIN**

# Askotariko argazkiak eta margolanak, ikusgai

Kirol argazki eta ageriko pintura lehiaketara aurkeztutako lanak daude Aroztegin eta kultura etxeen; eta Nahikarin, Unai Azkarateren pinturak

**MIRIAN BITERI > BERGARA**

Hiru erakusketa daude egunotan ikusgai: Aroztegin, kultura etxeen eta Nahikari tabernan. Aroztegi aretoera joaten denak, esaterako, kirol argazkien lehiaketatik aukeratutako irudiak ikusi ahal izango ditu gaurtik aurrea. Irailaren 28ra arte egongo dira lan horiek ikusgai.

Urtero moduan, Udaleko Kirol Zerbitzuek eta Pol-Pol argazki taldeak elkarlanean XVIII. kirol argazkien lehiaketa antolatu dute. Aurten, 166 irudi aurkezta dira. Pol-Pol taldeko Benito Cantero oso pozik dago lehiaketak izan duen harrerarekin: "Marka guztiak gainditu ditugu aurten lehiaketan. Par-

taidetza mundiala izan da. Joan zen urtean 123 lan aurkezta ziren eta aurten, berriz, 166".

Bi kategoria egon dira: koloretako eta zuri-beltzeko lanak. Lehenengoan 105 argazki aurkezta dira eta bigarrenean, 61. Aroztegi aretoan, baina, aurkeztutako irudien artean aukeratutako 44 lan erakutsiko dira; kolorezko 24 eta zuri-beltzeko 20.

Tartean, sarituak izan direnak egongo dira. Koloretako kategorian, Ondarroako Karlos Romeroren *Oñati* izeneko lanak eskuratu du lehenengo saria; 180

euro jasoko ditu hark. Bigarrena eta hirugarrena bergararrak dira: Benito Cantero *Irteera* argazkiarekin eta Nekane Lazcano *Skate* izeneko lanarekin, hain zuzen. Herriko saria Juanjo Lopezek lortu du.

Zuri-beltzekoetan, Benito Cantero bergararra nagusitua, *Paterno Bidean* lanarekin. Koloretakoan moduan, 180 euro jasoko ditu. Berangoko Javier Pedro Fernandez eta Barakaldoko Alex Garai izan dira hurrengo biak. Herriko saria, berriz, Agustin Gurutxagarendako izan da. Sari banaketa hilaren 26an egingo da.

## UNAI AZKARATEREN LANAK

Horrez gain, Nahikari tabernan Unai Azkarate margolari bergararraren marrazki eta pintura erakusketa bisita daiteke hil honetan. Hamaika lan ikus daitezke: formatu txikiko zazpi eta formatu handiko lau. Aurtengo udan egin ditu erakusketa ikus daitezkeen marrazki eta pintura gehienak. Gai musicalak jorratu ditu bereziki, plastikoki hainbat teknika erabilita.

Azkarate Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretan lizenziatua zen 2003an. Erasmus bekari esker, Inglaterran egin zuen ikasturte bat. Jarraian, Bilbao Guggenheim lanean jardun zuen, arte garaikidean trebatzen zen bitartean. Ez da lehenengo aldia Nahikari tabernan bere lanak ezagutzen ematen dituena; 2005ean antolatutako lehenengo bakarkako erakusketan izan zen. Ondoren, Ziripot tabernan, Elgetan eta Donostian egindako erakusketak eterri ziren.

Kultura etxeen, azkenik, San Martinetako ageriko pintura lehiaketako lanak ikusi ahal izango dira hilaren 27ra arte.

> KOMUNIKAZIOA  
**Txapa Irratiak batzarra egingo du domekan, gaztetxean**

Txapa Irratiak ikasturte berriari ekin behar dio. Irratsaio berriez eta proiektuez jarduteko, domekarako (irailak 21) lehen batzarra deitu dute. Gaztetxean jarri dute hitzordua, 19:30ean. Txapa Irratia irekita dagoela eta edonork egin dezakeela irratsaioa gogoratu nahi izan dute.

> PAILAZOAK  
**Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia egongo da domekan**

Etxeko txikienek pailazoak ikusteko aukera izango dute domekan. Potxin eta Patxin pailazoaren ikuskizunarekin ederto pasako dute.

Emanaldia 19:00etan hasiko da, San Martin plazan. Egipton gertatutakoa kontatuko diete plazan biltzen diren guztiei.

> AISIALDIA  
**Jolasleku ibiltaria gaur Fraiskozurin, Jardunen eskutik**

Jardunek antolatuta, gaur, egubakoitza, jolasleku ibiltaria izango da Fraiskozurin, 17:00etan. Jarduneko begiraileen eskutik, neska-mutikoi zuzendutako jolasak eta bestelakoak izango dira Fraiskozurin. Hurrengo asteotan jolasleku ibiltariari jarrai pena emango diote.

**Sugoi**  
ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUA...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**TELEIXA  
BILTEGIAK**  
Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93


**disdira**  
ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**AZPEITXI**  
**Jatetxea**

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK  
*Larranaga*  
San Pedro, 9 - Teléfono 761051  
R.S.I. 209374-55  
**BERGARA**


**Ion Murgizu  
Pinturak**

Margoketa  
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industriala

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara  
Esozia 24- 2º behea • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24  
Mug.: 652 77 70 30



# IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztiako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



*Neurriak  
38tik 60ra*

**Mirari**  
JANTZIDENDA  
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

*Udazkena  
Negua*

SASKIBALOIA &gt; BERGARA

# "Kirol emaitzak lortzen baino formakuntzan egingo dugu ahalegina"

Bergara Saskibaloitik Elkartea sei talde izango ditu aurten. Taldeko kide David Urbinaren esanetan zuzendaritzarik taldea indartzea da lehentasuna

**XABIER URTZELAI > BERGARA**  
 Bergarako saskibaloitik taldeek urrian hasiko dituzte liga txapelketak, eta bitartean, denboraldian aurrean murgilduta daude lanean. Sei talde horietatik lau gizonezkoak dira (seniorrak, juniorrak, kadeteak eta infantilak), eta bi emakumezkoak (juniorrak eta infantilak). Hala, aurten go ikasturteria begira zuzendaritzarik sendotzea da gura dutena: "Esan daiteke zerotik hasi garela, eta orain ezin gara kirol emaitzei begira egon. Gure lehentasuna jokalarien formazioa da, eta zuzendaritzan talde egonkor bat osatzea."

**JOKALARIEIEN KONPROMISOA**  
 Helburuetako bat formazioa dela kontutan hartuta, senior mailako jokalarieiei konpromiso apur



Candy Bergara Allerruren kontrako norgehiagokan, iaz.

GOIENKARIA

bat eskatu diete: "Entrenatzaileak falta zaizkigu, eta uste dugu eurak direla lan hori ondo egin dezaketenak. Dagoeneko bi lagun animatu dira entrenatzaile lanak egitera, eta ona da hori".

Horrekin batera, aurreko denboraldian herrian saskibaloia sustatzeko egindako ahaleginek

eman dituzte fruituak: "1996an eta 1997an jaiotako neska-mutikoa asko animatu dira saskibaloian jokatzen, baina txapelketetan hasteko oraindik gaztegiak dira, eta pentsatzen gabiltza hilean behin edo birritan asteburuan elkartu eta teknifikazio lanak egiteko"

KIROLDEGIA &gt; KIROL JARDUERAK

## Astelehenean, zozketako emaitzak

Guztira 1.300 plaza daude kirol jardueretarako, eta 1.100 eskaera egin dituzte; ordutegiekizunetan izango dira arazoak

X.U. &gt; ARRASATE

Datorren astelehenean, hilak 22, ezagutaraziko dituzte kirol jardueren ordutegi eta bestelakoak erabakiko dituen zozketaren emaitzak. Guztira 1.100 lagunek eman dute izena Agorrosinen egongo den kirol eskaientzak, baina seguruenik eskaera asko eta asko ordu beretsuan egin dituzte, eta zozketa bidez erabakiko dituzte ordutegi guztiak. Gero, irailaren

22tik aurrera plazak hartzeko bigarren epea irekiko dute, eta hilaren 29an hasiko dituzte kirol jarduerak.

### KIROL ZERBITZU ENPRESA

Aurten, Agorrosingo kirol jarduera guztiak Kirola Lantzen enpresak kudeatuko ditu. Enpresa horrek aurkeztutako kirol proiektuari esker lortu du esleipena. Eta, proiektuko atalik nabarmenena barne koordinazioa, ur jardueretako antolaketa eta igeriketa elkartearrekin izango duen harremana izan dira.

### IPINTZAKO LANAK

Horrekin batera, aste barruan ibili dira Ipintza futbol zelai berriko ureztago sistema probatzen, eta baita argi berriak probatzen ere.

&gt; FUTBOLA

### Bergarak minutu bateko isilunearekin hasiko du bihar Oriokoren kontrako norgehiagoka (17:00)

Uztalean hil zen Bergara Kirol Elkartean urtetan delegatu lanean ibilitako Luis Herzog Lutxi, eta hil honetan utzi gaitu taldeko presidente izandako Jesus Mari Larrañagak. Hala, biharko partidua hasi aurretik euren omenez minutu bateko isilunea gordetze dute Agorrosinen.

Norgehiagokari dagokionez, aurreratu moduan 17:00etan jokatuko dute Bergarak eta Oriokok. Manu Diazzen mutilek garaipen batekin hasi dute liga, eta etxean gura dute hasiera on horrekin jarraitu. BTLsek ere ezin hobeto estreinatu zuen Ipintzako zelai berria; bihar, berriz, Lazkaora egingo dute bidaia (16:30).

## EUSKARA ESKOLAK

AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

# bergara

AKULU AEK

Arrizuriaga Jauregia, Espolioa

943 77 03 69

mihia jan dizu katuak?



IKASI EUSKARA | www.aek.org

- MAILA GUZTIAK:  
3 egun astean, egunero 2 ordu
- 2. MAILA AUTOIKASKUNTZA  
Programa PERTSONALA  
Mintza saioa ordu eta erdi astean  
Tutoretza ordu erdi astean
- 3. MAILA/EGA AUTOIKASKUNTZA  
Programa PERTSONALA  
mintza saioa ordu eta erdi astean  
(Tutoretza ordu erdi astero)
- 4. MAILA  
2 EGUN ASTEAN  
EGUNERO 2 ORDU ETA ERDI

Matrikula zabalki irailaren 30era arte  
MATRIKULATZEKO ORDUA:  
arratsaldetan 6etatik 8etara

Jardunen ere informazioa emango da  
Udalaren laguntzaz beka sistema

# Goienkaria

Martitzena / 2008ko irailaren 23a / GOIENKARIaren ARGITALPEN BEREZIA



ARGAZKIA: GOIENKARIA



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatza** s.l.

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51



# Onatiko Udalak jai zoriontsuak opa dizkizue



## Goienkaria

### Argitaratzalea

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea  
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Arduraduna** Iker  
Barandiaran. **Eredakzioa** Oihana Elortza, Irati  
Agirreazaldegi, Jon Bereziar, Arantza Ezkibel, Mireia  
Bikuña, Xabi Urtzelai, Jokin Bereziartua, Nerea Menor,  
Jasone Zubala, Maider Arregi eta Leire Kortabarria.  
**Maketazioa** Oxel Arrieta **Publizitatea** Amaia  
Mundiñano **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

### EGOITA NAGUSIA

#### BERRERA

20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila  
Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### Publizitatea

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2  
Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

### Harpidetza

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2  
Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e:  
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000



OII erakundeak  
ikuskatutako asteak

### LAGUNTZALEAK



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Oñati  
Udal

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzten berten adierazitako  
iritzien erantzukizunak.



## alkatearen agurra

Lourdes Idoiaga

## Onatiar guztiei, agur bero bat

**A**urten ere gehienon opor garaia amaitzearekin batera, hemen aurkezten dizuegun jai egitaraua zabalarekin aberasten da Oñati. Programa honek zuen parte hartzearekin bakarrik izango du bizitza ordea, kalean nahiz eskaintzen diren ekimen desberdinaren parte hartuz, horregatik jaiez gozatzen animaten zaituztet!

Jaien egitaraua prestatzerako orduan, Udaleko Sail desberdinek egindako ahaleginaz gain nabarmentzekoak izan dira Oñatiko elkarteeek eskaini diguten elkarlana eta herritarrek euren ekimenez egindako iradokizun eta ekarpenak. Hau guztia eskertu nahi dut bereziki aurten, ondo egindako lana eta oñatiarren lankidetza.

Egia da aurten txosnetako programa ohi-ko jai egitarautik banandu egin dela, baina hala ere, Udalek eskaintzen jarraitzen dugu euren ekimenak modurik egokienean gauzatzen jarraitzeko beharrezko duten babes eta balibideak.

Azkenik, agur berezia bidali nahi diet jai hauet gurekin gozatuko ez dituzten guztiei, zoritzarrez, arrazoi bategatik edo bestegatik aurten ez gara guztiak egongo eta.

Amaitzeko, jaiez gozatzen gonbidatu nahi zaituztet berriz ere, zuetako bakoitzak gustukoen dituen guneak erabiliz horretarako, guztiok ere ahalegin handiak eskatuko dizkigun ikasturte berriari indarberrituta ekin diezaiogun.

## AURKIBIDEA

- Egitaraua > 04-05
- Artzain txakurrak > 06
- Danborrada > 09
- 1 Formula > 10
- Aukeran dantza > 11
- Bertso jaialdia > 12
- Disko jaia > 14
- Pintura lehiaketa > 15
- Kale ikuskizunak > 16
- Herri eguna > 18
- Txosnak > 19
- Kontzertuak > 20-21
- Errosaiko Bixamona > 22



## argazki zaharra

## Mozorrotzeko egun apropoa

Ohitura handia dago San Miguel jaietako azken egunean, Errosaiko Bixamonean, herritarrok mozorrotzeko. Izan ere, Aratusteetan baino jende gehiago mozorrotzen da egun horretan. Are gehiago, koadrilek ohitura handia daukate egun horretan bat egiteko, eta, gainera, mozorroak asko lantzen dituzte.

Esan beharra dago, gainera, Udalak diruz lagunten dituela egun

horretan mozorrotzen diren koadrilak, eta horrek ere izango du bere eragina.

Honako argazkia 1991koa da eta bertan ageri dira (ezkerretik eskumara): Itziar Altuna, Mirari Malbadi, Izar Oregi, Karmele Murguzur eta Iratxe Igartua.

Argazkia: Udal Artxiboa.  
Informazioa: Javier Arriaran  
Urtea: 1991.



## ZURICH AUTOk eskaintzen ditzu:

### BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

### BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

### ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

### FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

### GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



**ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behe  
20560 OÑATI  
Tel./Fax: 943 78 30 09  
Polts.: 620 77 66 20

## EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

**Zapatua 27**

**16:00** Zubikoa pilotaleku, 25 Mikel Deunaren sariaren PILOTA partiduak, finalerdiak.

**17:45** Erraldoi eta buruhandien KONPARTSAK: Oñati, Atzeko Kale eta Baionako konpartsak.



ZUBIKOA KIROLDEGIAN EGINGO DUTE HERRI BAZKARIA.

**20:00** Foru enparantza Senzala taldearen CAPOEIRA erakustaldia.

**IRAILAREN 27TIK 30ERA** Ilunpetan argazki taldearen eskutik "Oñati begi bistain" argazki erakusketa plazako arkupeetan.

**Domeka 28**

**09:00** Txistulari Bandaren GOIZERESIA.

**11:00** Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

**11:00** Santa Lutzia zelaian 49. Nazioarteko Artzain Txakurren Trebetasun LEHIAKETA.

**13:00** Foru enparantza Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA: Tolosa (Joaquin Ortega Villar), Gure ibilerak (Jose Luis Gurrutxaga), Czardas (V. Monti), Ris Ras (Luna y Penella).

**16:00** Bolajoku txapelketa San Martinen.

**18:30** Foru enparantza BETIZU ETA OILARRAREN KUKURUKUA ekitaldia. Eguraldi txarra egingo balu, Santa Ana antzokian.

**20:30** Foru enparantza JOSELU ANAIAK taldearen dantzaldia.

**23:00** Herriko kaleetan zehar eta Oñatiko Musika

Bandak lagunduta DANBORRADA nagusia. Bukaera Foru enparantza izango da, Danborradaren Martxa eta San Migelen ereserkiaz.

Horren ondoren, Foru enparantza dantzaldia egingo dute berriro JOSELU ANAIAK taldearekin laguntzarekin.



UMEENDAKO ETA GAZTEENDAKO PARKE ERRALDOIAK JARRIKO DITUZTE.

**Astelehena 29**

**09:00** Txistulari Bandaren GOIZERESIA.

**10:00** Txopekua tiro zelaian herri mailako PLATER TIRAKETA.

**11:00** Mikel Deunaren Parrokian ELKARMEZA nagusia parrokiako koroak abestuta.

**12:00** Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

**12:00-14:00** Etxaluzen, HAUR PARKEA (puzgarriak, ludoteka, triziklo pista eta Santa Fe trena). Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kirolegian.

**13:00** Foru enparantza Oñatiko Musika Bandak eskanitako KONTZERTUA: A San Miguel (Refice), Lazos de amistad (Jaime Texidor), Euskal Rapsodia (Felix Kortabarria), El Bateo (Federico Chueca), Revival Rag (Jan Stoeckart).

**17:00-20:00** Etxaluzen, HAUR PARKEA (puzgarriak, ludoteka, triziklo pista eta Santa Fe trena). Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kirolegian.

**19:00** Plazan eta inguruko kaleetan FADUNITO taldearen eskutik EL PETIT CIRC kale ikuskizuna.

**23:00** Foru enparantza AUKERAN dantza taldearen Aukeran 10 urte ikuskizuna.

dOr

Laser bidezko depilazioa. DIODO LASERRA.  
Edozein egunetan egiteko aukera.  
Laserra gure zentroan dago

Emaitzaz ezin hobeak

- Bigarren mailako efekturik gabe
- Saio gutxi batzuetan emaitza iraunkorrik (3 eta 6 saio bitartean)
- Hiru hilean behin saio bakarra

Gizon eta emakumeentzat

- Ingleak 25 euro saioa.
- Hanka erdiak: 295 euro saioa.
- Bizkarra: 290 euro saioa.

LASER DIODO. Orain da unerik egokiena. Etor zaitez eta kontsultatu gure prezioak inolako konpromisorik gabe.



dOr Estetika  
Errementari 5  
20560 Oñati  
T. 943533647

Murrats Podologia Zentroa

943533637



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoek ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

R.P.S. 208/05

Bidebarrieta 20 • Oñati

Ordutegia: 09.30etatik 13.30etara / 15.30etik 20.00etara

## EGITARAUA

Horren ostean, DEABRU BELTZAK taldearen BANDE DEPLACEE kale ikuskizuna.

## Martitzena 30

**09:30-10:00** Poni eta astadun ANIMALIAK Foru enparantzan.  
**10:00** SOKAMUTURRA Foru enparantzan, Arno abeltzantzako zezenkin.  
**13:00** Foru enparantzan Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren KONTZERTUA.  
**16:30-17:00** Poni eta astadun ANIMALIAK Foru enparantzan.  
**17:00-18:15** ERREKORTADOREEN ikuskizuna (oztopo jolasak) Foru enparantzan.  
**18:15-19:30** SOKAMUTURRA Foru enparantzan.  
**19:00** LA HABANA DE NOCHE taldearen kalejira.  
**20:00** Foru enparantzan, LA HABANA DE NOCHE kubatarraren ikuskizuna.

## Eguena 2

**19:00** Kultura etxeko zine aretoan, HITZALDIA. "Galileo Galilei, el mensajero de las estrellas". Iruñea Planetarioko zuzendari Javier Armentiak emango du hitzaldia.

## Egubakoitza 3

**22:30** Zubikoa pilotalekuan BERTSO JAIALDIA. Jexus Mari Irazu, Iker Zubeldia, Aitor Mendiluze, Xabier Peña, Beñat Gaztelumendi eta Joxe Agirre.

## Urriaren 4tik 6ra bitartean

Ilunpetan argazki taldearen eskutik, "Oñati begi bistar" argazki erakusketa herriko plazako arkupeetan.



AUTO KLASIKOEN ERAKUSKETA IZANGO DA TXOSNAGUNEAN.

## Zapatua 4

**09:00** Txistulari Bandaren GOIZERESIA.  
**10:30** Unibertsitate inguruan, behi ERAKUSKETA; ardi, ahari eta bildots lehiaketa; asto erakusketa; behor eta zaldi erakusketa; euskal txerri eta oilo erakusketa; pottoka erakusketa; gazta lehiaketa; fruitu eta barazki lehiaketa; lore eta landare erakusketa eta artisau erakusketa.  
**11:00** Oñatiko musika eskolako TRIKITILARIAK eta Tolosako GAITEROAK herriko kaleetan.  
**12:00** SAGARDO dastatzea Foru enparantzan. 24 sagardotegi izango dira bertan.  
**13:15** Azokako lehiaketen SARI banaketa.  
**14:30** Zubikoan HERRI BAZKARIA.  
**18:00** Foru enparantzan HERRI KIROL jaialdia. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kirolegian.  
**18:00** Kaleetan zehar, BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK taldeak girotutako kalejira.  
**19:30** Parrokan F. Esnalen SALBEA, Parrokiako Korua eta Oñatiko Abesbatzaren eskutik.  
**109:30-22:30** Unibertsitate etorbidean borondatzezko alcoholemia KONTROLA, Udal Prebentzio Sailaren eskutik.

**20:30** Foru enparantzan, disco-festa ABIBA taldearekin.  
**22:00** Zubikoa pilotalekuan, 25. Mikel Deunaren sariari dagozkion PILOTA partiduaren finala.  
**23:00** Foru enparantzan, disco-festa ABIBA taldearekin.

## Domeka 5

**Goizean** Ageriko VI. PINTURA LEHIAKETA. Sari banaketa 14:30ean egingo dute kultura etxearen.  
**09:00** Txistulari Bandaren GOIZERESIA.  
**11:00** Parrokan ELKARMEZA nagusia, Parrokiako Koruak abestuta.  
**12:00-14:00** Etxaluzen, Haur eta Gaztetxoendako PARKEA (zezen mekanikoa, rokodromo, tirolina eta quad pista). Horrez gain, Portuko plazatxoan 1 Formulako simulagailua jarriko dute.  
**12:00** Oñatiko Musika Bandarekin KALEJIRA.  
**13:00** Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA Foru enparantzan: *Puenteareas* (R. Soutullo), *Oberon* (Weber), *La Bruja* (Ruperto Chapí) eta *Porgy and Bess* (George Gershwin).  
**17:00-20:00** Etxaluzen, Haur eta Gaztetxoendako PARKEA. Horrez gain, Portuko plazatxoan 1 Formulako SIMULAGAILUA.  
**18:00** Zubikoa pilotalekuan, Profesional mailako PILOTA PARTIDUAK. Sarrera bakarra: 20 euro. Aurretik salgai kultura etxearen, urriaren 1etik 3era bitartean.  
**18:30** Foru enparantzan EL NEGRO Y EL FLACO taldearen *giramondo* kale ikuskizuna.  
**20:00** Foru enparantzan TARANTELLA orkestrarekin dantzaldia.  
**20:30** Balkoitik balkoirako BERTSIO saioa Aitzol Barandiaran eta Iñigo Manzisidor "Mantz" bertsolariekin Kale Zaharrean.  
**23:00** Pirotecnia Caballer FXen SUZKO ERRUBERAK.  
**23:30** Foru enparantzan, TARANTELLA orkestrarekin dantzaldia.

## Astelehena 6

**09:30-10:00** Poni eta astadun ANIMALIAK Foru enparantzan.

**10:00** SOKAMUTURRA ohiko kaleetan, Arno abeltzantzako zezenkin.  
**12:00** Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.  
**12:30** Mozorrotutako taldeen kalejira INCANSABLES txarangak lagunduta.  
**16:30-17:00** ZEZENTXO ETA PONIAK Foru enparantzan.  
**17:00** SOKAMUTURRA ohiko kaleetan.  
**20:00-21:00** Foru enparantzan EGAN taldearekin dantzaldia.  
**23:00** Foru enparantzan EGANEkin dantzaldia.

## TXOSNAK Zapatua 27

**21:30** ROCK kontzertua: Plan B, Etsaiak, Norman eta Show Business.

## Domeka 28

**12:00** Auto klasikoen ERAKUSKETA.  
**20:00** TXANTXIKUAREN jaitsiera.  
**20:05** Txaranga KALEJIRA.

## Astelehe. 29

**17:00** Koadrilen arteko OLINPIADAK.  
**22:00** KONTZERTUA. Galdu Arte, Black River, Bitz eta Underbridge.

## Egubakoi. 3

**19:00** ANTZERKIA.  
**20:30** AFARI populara.  
**21:30** KONTZERTUA: Arpaviejas, Txarralde, Paso de Ti, The Black Gramola eta Ez.

## Zapatua 4

**19:00** PRESOEN eta iheslarien aldeko ekitaldia.  
**23:00** Rantxera KONTZERTUA: Impecables.

## Domeka 5

**17:00** TORTILLA txapelketa.  
**21:30** KONTZERTUA: Mara eta Mikel Markez.  
**01:00** BIKOIZKETAK: "Goenkale berria".

itziar optika

ONDO PASAU JAIXAK!

Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88 OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

ELKARRIZKETA JOXE M. BENGOA NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA

# "Berrikuntzak sartzea ari gara azterzen"

OIHANA ELORTZA

**Iraileko laugarren domekan da Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa, aurten San Migel bezperan. Joxe M. Bengoak 19 urte daramatzat antolatzen.**

**Dena gertu 49. artzain txakur txapelketarako?**

Bai. Bestelako txapelketak egin dituzte, eta han-go irabazoleak egongo dira irailaren 28an Oñatin.

**Zenbat txakurrek hartuko dute parte?**

Dozena batek, nork bere artzainarekin, noski. Joan den urteko irabazolea ere etorriko da aurten, Illarduiako (Araba) Joxe Mari Jauregi; hura da Arabako aurtengo irabazolea. Bizkaiko txapelduna ere badator, Oñatin txapeldun izatea zer den dakien Orozkoko Enrike Mendi-guren. Eta Gipuzkoako txapeldun Elgoibarko Joxe Arrizabalaga ere etorriko da. Horiez gain, Ipa-

rraldetik eta Frantziatik ere etorriko dira, urtero moduan.

**Betiko probak gainditu beharko dituzte artzain txakurrek?**

Bai. Hala ere, azterzen ari gara berritasunak sartzea.

**Zeintzuk dira berritasun horiek?**

Oraindik zehazteko dugu hori. Momentu honetan eztabaidatzen ari gara

berritasunak sartu edo ez, eta sartzekotan zeintzuk sartu. Horretarako, probak egin behar ditugu. Aurtengo txapelketa bukatutakoan hasiko gara gai hori sakonago lantzen.

**Nazioarteko artzain txakurren 50. txapelketa berritasunekin ospatu gura duzue, beraz?**

Asmoa hori da.

**Beste zer duzue pentsatuta?**


Egun osoko egitaraua prestatzea. Izan liteke, adibidez, goizean urtero txapelketa egitea, San Martingo zuhaitzian bazkal-tzea jatetxean egin ordez eta arratsaldean beste ikuskizun bat egitea.

**Gero eta txakur gehiago egoten ei dira ikusleen artean ere.**

Bai. Horrek esan gura du benetako zale ugari etortzen direla txapelketa ikustera.

**Errelebua eskatzen du proba horren antolakuntzak ere?**

Bai. Egunean bertan egin behar diren lanak egiteko prest dagoen jendea, bilatzea.



Joxe M. Bengoa, atzean Santa Lutziako zelaia duela.

OIHANA ELORTZA

**"Euskal Herriko eta kanpoko 12 artzain txakur datoza"**

**"50. txapelketa berritasunekin ospatu gura dugu datorren urtean"**

ez du hutsik egiten, eta hori eskertzeko da. Arazoa da urte guztian zehar egin behar den lana egiteko prest dagoen jendea bilatzea.

**Euskal Herritik kanpo egiten dituzue horrelako txapelketak?**

Valentzian, Mallorkan, Zamoran, Galizian, Salamanca, Katalunian eta

Madrilen egon gara, besteak beste. Ikuskizun moduan egiten ditugu.

**Artzain txakur arraza sasoi onean dago?**

Bai, mantentzen dugu.



**LIZKER**  
ZERBITZU INFORMATIKOAK

Tel.: 943 78 08 90  
e-posta: [informatika@lizker.com](mailto:informatika@lizker.com)

- Salmentak
- Instalazioa eta mantenua
- Konponketak
- Aholkularitza informatikoa enpresa eta partikularretan

**Lizker**  
aholkulariak  
asesores

Tel.: 943 71 80 52

- Aholkularitza fiskala
- Lan aholkularitza
- Kontabilitatea
- Zerga aitorpena

*Ondo pasatu San Migeletan!*

Errementari plaza 2-3 behea • Oñati

Xumearen  
Dotoretasuna

*Ehune*  
Apainketa

*Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE*



# ARREGI

## Nekazalturismoa



*Paraje ederrean kokatua,  
leku egoki eta lasaia,  
atsedenerako  
behar duzun guztiarekin*

*Garagaltza auzoa 21 • Tel. 943 78 36 57 / 943 78 08 24*



*6 logela,  
denak bainuarekin*



*Ondo pasatu  
San Migelak!*



# LETAMENDI

1923~TIK TXANTXIKUARRAK JAZTEN



DANBORRADA

# Danbor doinuekin hasiko dira San Migel jaiak

Nagusien danborradan 200 lagun inguru aterako dira kalera: danbor joleak, dantzariak, banderadunak eta musikariak

ARANTZAZU EZKIBEL

Helduen danborrada izaten da jaiei hasiera ematen dien ekitaldia. Bidaurretatik plazara, Udal Musika Bandak lagunduta, danbor joleek eta dantzariekin kaleak alaituko dituzte.

Danbor doinuekin emango diete hasiera San Migel jaiei. Urtero bezala, San Migel egunaren bezperan izango da, hilaren 28an. Bidaurretan hasiko da danborrada, gaueko 11:00etan.

DANBOR JOLEAK

Danbor joleak, dantzariak, musikariak eta banderadun gazteak izango dira danborradako protagonistak. Guztira 200 lagun inguru aterako dira kalera.

Danborradak herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu. Bidaurretatik aterako dira eta Euskadiko etorbi-detik Kale Zaharrera har-



Danbor hotsak San Migel bezperan entzungo dira herriko kaleetan.

GOENKARIA

Bidaurretatik aterako da  
danborrada gaueko 11etan;  
plazan amaituko da

Musika bandak lagunduta sei  
pieza joko dituzte; besteak  
beste, San Migelen ereserkia

Herriko kaleak  
**Domeka 28,  
23:00etan**

Bidaurreta aurrean  
hasiko da eta herriko plazan amaituko dute.

tuko dute. Atzeko kaletik igo eta Kale Barritik jaitsi ondoren, herriko plazan amaituko da danborrada.

"Lehen, Triana aldera ere joaren zen danborrada; baina azken urteetan moztu egin dugu ibilbidea", azaldu du Argitxu Perostarena danborradako antolatzale taldekoak.

Plazan, Inazio Ibarro-doren zuzendaritzapean, hainbat pieza joko dituzte. Danborrada San Migelen ereserkirekin amaituko da. "San Migelen ereserkia plazan bakarrik jotzen da; ibilbide guztian zehar sei pieza ezberdin dira jotzen direnak", azaldu dute antolatzaleek.

IRALETIK, ENTSEGUEKIN

Irailean hasi ziren entseguekin danborradako kideak. Aurten, sei konpainia aterako dira danborra edo barrilla jotzen. Bestalde, 60 neska-mutikok dantza egingo dute eta elkartetako banderek 15 lagun inguru aterako dira. Danborradaren ondoren, xanpaina egongo da guztiontzat, jaiak behar bezala hasteko.



Ondo pasau jaixak!

Errementari plaza 8, Oñati  
Tel.: 943 53 22 47

- Kirol denda
- Zapalketaren azterketa
- Arreta pertsonalizatua

UDAZKENA

Disfrutatzeko eta plazera sentitzeko momentua

Aurpegian:

- Hidratazio sendaketak
- Aurpegi garbiketak
- Begietako zimurren garbiketa

Gorputzean:

- Gorputz osoan algekin egindako bildukinak
- Bildukin partzialak zelulitisarentzat
- Azala indartzeko bildukinak limoarekin
- Zirkulazioa hobetzeko masajeak
- Hanketan masajeak

Eder egon zaitezen:

- Harri bolkanikoekin egindako masajeak
- Masajeak gorputz osoan

Eskaintza bereziak:

- Eskuaren irakurketa
- Feng Shui ikastaroak
- Urritik aurrera: BOTOX.

Peeling kimikoa, epainen sendotzea, bekainen tatuatzea...

- Bir-konexioa: Zure barne izaki dimentsioaniztunarekin Bir-konektatzeko garaia da.



Kalebarria 29 behe  
Orbea Etxea, parke aldetik  
Tel.: 943 78 01 46  
20560 OÑATI  
www.goiena.net/blogak/gutzider



Ondo pasau jaixetan!

Ez ahaztu orain dela unerik egokiena LASER bidezko depilazioa egiteko, elektrikoa eta baita solariuma erabiltzeko ere.

**1 FORMULAKO SIMULAGAILUA**

# 1 Formulako auto gidari azkarrenen modura

Urriaren 5ean Portuko plazatxoan jarriko duten simulagailuak gazte zein nagusiak erakarriko ditu

XABIER URTZELAI

Oñatin oraingoz ez dago 1 Formulako herri-zirkuiturik egiteko asmorik, baina urriaren 5ean Portuko plazatxora gerturatzet denak 1 Formulako pilotuek bizi izaten dituzten sentsazioak bertatik bertara bizi ahal izango ditu.

**1** Formulako simulagailua jarriko dute urriaren 5ean Portuko plazatxoan, eta Eventos Autol enpresako ordezkari Roberto Calvok eman ditu atrakzio horren gaineko xehetasun gehiago: "Guztira bi simulagailu jarriko ditugu: lehenengoa lau jarlekuz osatuta dago eta jarleku bakoitzak pantaila bat dauka aurrean. Hala, auto gidariak elkarren kontra lehiatu ahal izango dira simulagailu horietan eta ondoen moldatzen dena benetako simulagailura igotzeko sailkatuko da".



Portuko plazatxoan jarriko duten simulagailuaren irudia; benetako auto baten neurriak ditu.

EVENTOS AUTOL

Benetako simulagailu horrek ondo baino hobeto transmititzen ditu 1 Formulako autoaren sentsazioak. Erretratuaren ikuszen denez, gidariak lasterketakoz auto baten

**"Simulagailua erraz gidatzeko moduan jarriko dugu; bestela, irteera puntutik mugitu ere ez litzateke egingo"**

barruan jokatuko du. Baina autoa ez da itxurara mugatzen, autoaren azpian dauden beso hidraulikoei esker alde batera edo bestera mugitzen da-eta: "Inklinazioa, Denetik jarriko diogu. Eta ez pentsa, laguntza horiekin guztiak ere ez da batera erraza ondo gidatzea, norbera ere aurrera eta atzera ibiltzen delako auto barruan".

GEA  
GRUPO AGENCIAS DE VIAJE  
INDEPENDIENTES

viajes  
**Araba**  
bidaiaik

Ondo pasa  
jaizak!

Lazarraga 3 • OÑATI  
Tel.: 943 71 62 16 • Faxa: 943 71 63 58  
www.onate@viajesaraba.com

## MEKANIZAZIOAK

*Ondo pasa San Migeletan!*

**Zubillaga industrialdea 12**  
**Tel.: 943 78 11 15**  
**Faxa: 943 71 82 50**  
**e-maila: batuak@batuak.com**  
**www.batuak.com**  
**OÑATI**

## DANTZA IKUSKIZUNA

# '10 urte': Aukeran dantza taldearen eskutik

13 koreografia bildu dituzte taldearen  
errepasoa egiten duen ikuskizunean

MIREIA BIKUÑA

Aukeran dantza  
taldeak 10 urte bete  
ditu, eta urretan  
egindako ikuskizunen  
errepasoa egingo du  
San Migel egunean  
Oñatin egingo duen  
emanaldian.

Taldearen hamargarraren urturrena aitzakia hartuta, kankoan egiteko sortutako ikuskizunarekin dator Aukeran dantza taldea Oñatira. "Taldearen ibilbidea laburbiltzen duen lana dela esango nuke. Orain arte egindako hiru ikuskizunetan egindako

koreografia garrantzitsuenak bildu ditugu: *Sutargi* (1997), *Izena duen guzti* (2001) eta *Bideak* (2006)", esan digu Aukeran taldeko dantzari eta koreografo Edu Muruamendiaraz bergararrak. San Migel egunean 23:00etan egingo duten 70 minutuko emanaldiari buruz galdetuta, hauxe esan digu: "Dantza taldeak hamar urretan izan duen bilakaera erakutsiko dugu. Hastapeneko koreografiak dantzak tradizionalagoak ziren eta egun, berriz, taldearen izaeraren ezaugarri bihurtu diren dantza garaikideek dute protagonismoa". Dantza emanaldia Foruen plazan egingo dute, eta alda-



Aukeran dantza taldeak 10 urte ikuskizuna eskainiko du Oñatiko plazan.

AUKERAN DANTZA TALDEA

keta batzuk egin dituzte. "Ikuskizuna antzoki itxian ikusi duenak nabarituko du aldaketa batzuk egin ditugula. Bestalde, argiek egiten duten efektua ez da

bera izaten antzoki barruan edo kanpoan. Baino merezi duela uste dut".

Edu Muruamendiarazek esan digu 10 urte ikuskizunean berebiziko

garrantzia dutela dantza-rien jantziek: "Jantzietai eta argietan ere hamar urteko esperientzia dugu-la antzematen da". 11 dantzari ibiliko dira taula gainean eta dantzen artean lotura egiteko abeslari bat egongo da; atzean, berriz, hiru pertsona egongo dira.

Oñatikoa izango da 10 urte ikuskizunarekin egingo duten azken saioa. Etor-kizunari begira galdetuta, zera esan digu: "Orain-dik ez dakigu zer egingo dugun. Nire asmoa da

hurrengo urterako beste ikuskizun bat egitea, baina dantzariekin egin behar dut berba. Kontuan hartu behar dugu taldeko dantzariak ikasleak edo langileak ere badirela; eta, lanak, ikasketak eta dantza uztartzen dituztela. Entseguak orduz kango egin behar ditugu. Gure nahia da dantzari profesio-nalak izatea, baina oso zaila da. Nik, esaterako, esko-lak eman behar izaten ditut dantzarekin aurrera egin ahal izateko".

**Taldearen  
koreografiarik  
onenak bildu  
dituzte  
ikuskizunean**

**Abeslari bat  
eta hamaika  
dantzari ibiliko  
dira taula  
gainean**

**Tratamendu espezifikoak**

- Spa Tratamendua ... arrozezkoa/balsamikoa yogurrezkoa/txokolatezkoa
- Masajea eta llerako tratamenduak
- Modan dauden kolore eta ile mozketak

**SESIÑENA**  
ileapaindegia  
estetika zentrua

Atzeko kale, 10 behea • tel: 943 780 356 • 20560 Oñati

**BERTSOLARIAK**

# Frontoi eta kale, aukerak non-nahi, bertsozale

**Jaialdia Zubikoa kirolegian izango da eta balkoitik balkoirako bertso saioa Kale Zaharrean egingo dute**

IRATI AGIRREAZALDEGI


Bi bertso saio daude iragarrita San Miguel jaietarako. Sei bertsolarik jardungo dute Egoitz Aizpururen esanetara Zubikoa kirolegian; eta Kale Zaharrean, librean, bik.

**B**ertso saioa ohiko hitzordu bihurtu da San Miguel jaietan; bai, behintzat, zaledako Urriaren 3an, egubakoitzean, izango da jaialdia, 22:30ean, Zubikoa kirolegian. Bertso eskolako kide eta saioaren aurkezle izango den Egoitz Aizpuruk esan digunez, "beti izaten dajende asko elkartzen den saioa San Migeletako, herrian egiten diren beste bertso saio eta txapelketa batzuetara baino jende gehiago etortzen da. Aurten, gainera, jende gehiago etortzea espero dugu".

Sei bertsolarik jardungo dute eta arituko diren bertsolariei erreparatuta saio ona izango den ustea dute antolatzaileek.

**BERRIAK ETA LEHENGOAK**

Jaialdira zein bertsolari ekarri bertso eskolako jendeak erabaki du. Jesus Mari Irazu, Iker Zubeldia, Aitor Mendiluze, Joxe Agirre, Beñat Gaztelumendi



Aitor Mendiluze Gipuzkoako txapelduna aurrez ere jardundakoa da San Migeletako bertso saioan Oñatin.

GOIENKARIA

**Irazu, Zubeldia, Mendiluze, Agirre, Paya eta Gaztelumendi izango dira Zubikoan**

eta Xabi Paya izango dira Zubikoan aurten. "Tartean badira sekula saio horretan egon gabeak: Xabi Paya eta Beñat Gaztelumendi, esaterako. Beste batzuk noiz edo noiz egondakoak,

eta badira San Migeletako Zubikoa plaza oso ondo ezagutzen dutenak ere", esan digu Egoitz Aizpurua. Hortaz, zahar eta berrikin saio txukuna izango delakoan daude.

**Kale Zaharrean jardungo dute Iñigo Manzisidor 'Mantxi'-k eta Aitzol Barandiaranek**

SARRERA DOAN  
Bertsolarien aukeraketaz ez ezik, gaiak gertatzeaz ere bertso eskolakoak ardu- ratu dira eta aurkezle lane- tan Egoitz Aizpuruk jar- dungo du. Hark esan digu-

nez, "gaiak gertatzen hasiak gara eta ohiko bertso jaialdien itxurakoa izango da".

Bertso eskolaren 25. urteurrena ospatzeko dihar- dute urtean barrena hain-

Zubikoako frontoia

**Egubakoitza, 3  
22:30ean**

Sei bertsolarik jardungo dute kirolegian eta sarrera doan da

bat bertso ekitaldirekin, eta saio hori ere ospakizuneko parte izango da. Hori dela eta, bertsozaleek ez dute sarrerarik ordaindu beharrik izango Zubikoako saio entzuteko.

**BALKOITIK BERTSOTAN**

Zubikoa ez da Oñatioko jaientan bertsoak hartuko duen leku bakarra, ordea. Errusario Egunean, urriaren 5ean, Kale Zaharretik zabalduko dituzte bertsoak herrira.

Izarraitz tabernaren inguruau dauden bi balkoitan jardungo dute bi bertsolarik iluntzean. Iñigo Manzisidor 'Mantxi'-k eta Aitzol Barandiaranek, elkarri zirika, balkoitik balkoira bertsozaleek egingo dute gai librean.

Bertso saioa 20:30ean hasiko da, eta, aurreko urteetan bezala, aurten ere balkoie begira eta bertsoak entzuten adi-adi jende asko egotea espero dute Laixan euskara elkarteko antolatzaileek. Izan ere, ohikoa da jende askotxo pilatzea Kale Zaharrean, eta inoiz euripean ere egon izan dira oñatiarrak bertsoak entzuten.

Zubikoa kirolegian zein Kale Zaharrean, harmailetan eserita zein balkoien azpitik, bertsoak entzuteko aukerarik ez da falta- koz aurten ere Oñatin San Migeletan.



**ONDO PASA  
JAIETAN !**

**ULMA**

# SAN MIGELAK 08 OÑATI

*...ta onda pasau jaizetan!!!*



**Aker Antton Arrano Bikoitz  
Boga Etxe-Aundi Galicia Guria  
Iturritxo Izarraitz Otamendi  
Portu Soraluze Txopekua  
Txurruka Urtiagain Zotz**

## DISKOJAIA

# Debekatuta geratzen da gorputza ez mugitzea

Ikusleak parte hartze handia du Diskojaian; opariak zozketatzen dira eta SMS bidez kantuak eskain daitezke

## JOKIN BEREZIARTUA

Diskofesta ere izango da. Abiba taldearen ikuskizunak Euskal Herriko hainbat areto eta herriko jai girotu ditu, eta Oñatira bigarrenez datozen. Diskojaia ikuskizun berezia da; argi, soinu eta dantzak nahasten dituena.

**G**orputza mugitzeko eskaintza paregabea dago aurtengo Oñatiko San Migeletan. Izen ere, azkenaldian hain modan dagoen Diskojaia Oñatira ere helduko da. Abiba taldearen ikuskizuna, nahasketarik sor ez dadin, ez da Joseina Etxebarriaren Diskofesta famatua. Hala ere, formatura nahiko antzerakoa du



Diskojaia soinu, argi eta dantza ikuskizun erakargarria eskaintzen du.

DISKOJAIA

ikuskizun horrek ere; dantzari profesionalak, musikan adituak diren DJak eta ikuslearen parte hartzeak berebiziko garrantzia dute emanaldian. Abiba taldeak, beraz, Joseina Etxebarriaren errelebua hartu duela esan genezake.

## JAIAK GIROTZEKO IKUSKIZUNA

Diskojaia proiektua herriko jaietarako pentsatua dago, batik bat. Areto itxietan ere eskaintzen dute, baina Abibaren ikuskizuna herriko plazak girotzeko ezin egokiagoa da. Soinu eta argiztapen ekipo aurreratuenak erabiltzen dituzte, eta, noski, ekipo horietan DJ profesionalak eta musika molde guztietan espezializatuta dauden pertsonak aritzen dira.


Bestalde, ikuslearen parte hartzeak garrantzi

handia dauka. Publikoak SMS bidez bidalitako mezuen bitartez kantuak eskaintzeko aukera du, eta bidaltzailearen mezua momentuan bertan irakur daiteke, Diskojaia agertoki ondoan muntatzen dituen pantailetan. Gainera, hainbat opari zozketazen dira.

## IKUSKIZUN ARRAKASTATSUA

Azkenaldian hainbat herritan jaietako egitarauetako protagonista izan da Abibaren Diskojaia. Uda honetan, besteak beste, Tolosa, Hernani, Zumarraga, Irurtzun, Azkoitia eta Deban izan dira. Oso erantzun ona jaso duen ikuskizuna da Diskojaia. Oñatin bertan ere arrakasta handia izan du, eta aurreko urteetan jende ugari erakarri ohi du Foruen plazara.

## MEKANIZATUETARAKO ZERBITZU OSOA



**MEKALKI**  
S. Coop.

*Ondo ibili  
San Migeletan !!*

Zubillaga industrialdea 13  
Tel.: 943 78 19 11  
Faxa: 943 78 29 90  
e.maila: [mekalki@mekalki.es](mailto:mekalki@mekalki.es)  
<http://www.mekalki.es>  
OÑATI

LEHIAKETA

# Pintzelak jaun eta jabe Oñatiko bazterretan

Domeka goiz osoan zehar Ageriko VI. Pintura Lehiaketa jokatuko da, eta libreak izango dira lan egiteko era eta gaia

NEREA MENOR

Urriaren 5ean Ageriko VI. Pintura Lehiaketa jokatuko da. Euskal eta oinarri guztiak onartzen dira. Edozeinek esku har dezake, baldintza bakarra da kanpoal-deak marraztea.

Dagoeneko ohitura bihurtu da San Migeletako Ageriko Pintura Lehiaketa. Sei urte beteko ditu aurten eta lehiaketa klasikoa da dagoeneko. Domekan egingo da aurten, goiz osoan zehar, 09:00etatik 14:00ak arte.

Oñatiko Arte Taldeak (oñart) Oñatiko Udalaren laguntzarekin antolatutako lehiaketa horretan bertakoek eta kanpokoek hardezakete parte, eta, herritarrek sarri eskuratu ezean, sari berezia egongo da oñatiar onenarendako.

Kanpoko jende askok esku hartzen duela azaldu digu Jabier Moyuak, oñarteko kideak: "Bizkaia aldetik, Arabatik, Santandertik, Salamancatik... etortzen dira. Mexikar batek ere parte hartz zuen duela pare bat urte".

Parte hartz nahi duenak euskalherria markatu behar du lehenago. 09:00etatik 11:00etara egin-

go dute hori, oñarten egoitzan, kultura etxeen, Santa Marina plazan. Euskal lanerako aurretik prestatuta eraman daitezke, baina ez da onartuko inolako marrazki, zirriborro edo marra aztarnari edukitza. Bukatutako lana ere taldearen egoitzan aurkeztu beharko da, 13:00etatik 14:00etara.

16 URTELIK GORA ETA BEHERA Urtero beazala bi kategoria egongo dira lehiaketan: 16 urtetik gorakoentzat eta beherakoentzat. Guztira zortzi sari banatuko dituzte: nagusien taldeko irabazleak 620 euro eskuratuko ditu eta gaztetxoen taldeko irabazlearri, margoen munduarekin erlazionatutako opariaz gain 100 euro emango dizkiote.

Edozeinek hardezakete parte lehiaketan, bakotzak artelan bakarra aurkeztuta. Lanak herrian

**Bizkaitarrek,  
arabarrek,  
salamancarrek  
eta mexikar  
batek ere hartz  
izan dute parte  
lehiaketan**



Oñatiko edertasun guztiak margotzeko txanpa izango dute domekan.

GOIENKARIA

zehar egin beharko dira eta gaia librea izango da. Lanak egiteko era eta neurriak libreak izango dira. Librea izango da pinturen oinarrian erabili ahal izango den materiala ere,

nahiz eta derrigorrezkoa izan euskal gogorran aurkeztea. Luis Laskurainek, Leire Fernandezek, Jesus Mari Castaño sek eta Jabier Moyuak osatutako epaimahaiaiak aukeratuko

ditu lan onenak. Hain erabakia lehiaketaren egunean bertan ezagutara-ziko da, 14:30ean; eta jarraian, sari banaketa egingo dute. Guztia jarraian, gero Errosaiko

Egunaz gozatu ahal izateko. Aurkeztutako lan guztiak erakusketa antolatuko dute kultura etxeen urriaren 7tik 19ra, 18:30etik 20:30era, astelehenetik domekara.



**Etxe  
Aundi**

Jatetxea-Hotela\*\*

[www.etxeaudi.com](http://www.etxeaudi.com)

Torre Auzo 9  
OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 19 56

**KALE IKUSKIZUNAK**

# Denetariko kale ikuskizunak heldu eta gazteen gozagarri

**Herriko plazan eta Foruen plazan izango dira kale ikuskizunak irailaren 29an eta urriaren 5ean**

JASONE ZABALA

**San Miguel jai haue-  
tan hainbat kale  
ikuskizun ere egongo  
dira. Guztien artean  
hiru aipatuko ditugu:  
Fadunito, Deabru  
Beltzak eta El Negro  
y el Flaco.**

railaren 29an, astelehe-  
nean, herriko plazan  
eta inguruko kaleetan  
Fadunito taldeak *'El  
Petit Circ'* (zirku txikia) kale  
ikuskizuna egingo du,  
19:00etan. Taldea 2003an  
sortu zuten Cervera (Lleida)  
herrian Faduk (Ferran  
Orobitg) eta Nitok (Ivan  
Alcoba). Ordura arte nork  
bere kontura egiten zuen  
lan beste talde profesional  
batzueta. Egun batean,  
euren izenak elkartu eta  
Fadunito.com sortu zuten.  
Bost urte hauetan taldea  
hazi egin da eta hamar aktore  
baino gehiago izatera  
ere iritsi da; horietako lau  
urte guztian daude taldearekin  
ikuskizunak eskainzen.  
Oñatin eskainiko  
dutena kale ikuskizuna

izango da. Ordubetean  
ondo pasatzeko aukera  
ematen duena, txiki zein  
helduendako.

#### DEABRU BELTZAK

Egun berean, baina  
23:00etan, Foruen plazan,  
Aukeran dantza taldearen  
ikuskizunaren ostean, Deabru  
Beltzak taldearen *Bande  
Deplacee* kale ikuskizuna  
egongo da. Euskal Herriko  
hainbat antzerki  
taldeetatik datozen aktore-

ek sortu zuten 1996an Dea-  
bru Beltzak kale antzerki  
taldea. Guztira zazpi kidek  
osatzen dute taldea. Aurre-  
titik ere Debagoienean egon-  
dako taldea da. Oñatiko  
ikuskizuna ikusle guztiei  
dago zuzenduta eta 45 minu-  
tuko iraupena izango du.

#### TALDEAREN SORRERA

Sortu zenetik gaur arte zor-  
tzi antzezlan aurkeztu ditu  
Deabru Beltzak taldeak,  
horiek 900 ekitaldi egi-  
nez, 30 aldiz eskatu diete  
ekimen berezien antola-  
kuntza egitea, 20 hiritako  
jaien zuzendaritzar artisti-  
koa egin dute, munduko 15  
talderekinegون dira elkar-  
lanean, hiru kontinente eta  
15 herrialde baino gehiago-  
tan egin dute lan eta Euskal  
Herriko talderik nazio-  
artearena bilakatu da.

Urriaren 5ean bestal-  
de, 18:30ean, Foruen pla-  
zan, 1994an sortutako El  
Negro y el Flaco talde  
español-argentino que  
*Giramondo* kale ikuskizuna  
eskainiko du. Ikuskizuna  
zirkua eta antzerkia  
nahasten dira *clown* ku-  
tsua galdua gabe.



Fadunito taldeak (goian) eta Deabru Beltzak ordubete inguruko ikuskizuna eskainiko dute.

GOIENKARIA

*Ondo pasa jaiak!*



Peugeot 308  
Zatoz ikustera!


**Onati  
GARAJEA**

Goribar auzoa 9 OÑATI  
Tel.: 943 78 13 50  
e-posta:  
garageonati@euskalnet.net



Mendiko kale 10 OÑATI Tel.: 943 78 35 09

Logotipoak  
Iragarkiak  
Errtuloak  
Ezkon gonbidapenak  
Irudi korporatiboa  
Egutegiak  
Kartelak  
Web orriak...


Edurne Otxoa-Aizpurua  
  
diseinu grafikoa

Orain kontratatu ezkero 10% deskontua.

Kontaktatu eta konpromisorik gabe aurrekontu bat egingo dizut.

652 70 96 69  
[edurne@e8adiseinugrafikoa.es](mailto:edurne@e8adiseinugrafikoa.es)  
[www.e8adiseinugrafikoa.es](http://www.e8adiseinugrafikoa.es)

San Migeletan irekiko dugu, zure ametsak egia bihurtzeko



- Aspaldian ez gara joan laurok autoan asmakizunetara jolasten... Ilusio handia egingo lidake eguna aprobetxatz guztiek erosketak egitera joateak, eta eguna elkarrekin pasatzeak.

Eskuratu ezingo dizugun gauza bakarra ilargia da



150 lokal baino gehiago: elikadura, elektronika, etxea, moda eta osagarriak, aisialdia, jatetxeak eta zerbitzuak.

[www.el-boulevard.com](http://www.el-boulevard.com)

**HERRI EGUNA**

# Baserri giroak herriko kaleak alaituko ditu

**Herriko plazan sagardo dastatzea egongo da: Gipuzkoatik etorritako 24 sagardotegi egongo dira**

**ARANTZAZU EZKIBEL**

**San Migel jaietako egun bereziena izaten da Herri Eguna oñatiarren-tzat. Baserritar jantziak soinean, kalera irteten dira herritarra jai giroaz gozatzera.**

**U**rtetan baserritarra jantziak soinean, kalera irteten dira herritarra jai giroaz gozatzera. Jaiarekin jarraitzeo, baziaria egingo dute Zubikoa kiroldegin; 14:30ean izango da. Txartelak salgai daude 17 euroren truke. Menua izango da: patatak errioxar erara, arkumea, hojaldre tarta piñarekin, kafea eta kopa. Arratsaldean, herri kirolen jaia egongo da herriko plazan.

Goizeko 9etan Udal Txistulari Bandak emango dio hasiera jaiari. Txistulariez gain, Oñatiako Musika Eskolako trikitilariek eta Tolosako Gaiteroak ere ibiliko dira herriko kaleetan.

**LEHIAKETAK**

Unibertsitate inguruan herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa egon-

go da. Baita fruitu eta barazki lehiaketa ere. Sariak 13:15ean emango dituzte.

**SAGARDO DASTATZEA**

Eguerdiko 12etan izango da sagardo dastatzea. Aurten, Gipuzkoatik etorritako 24 sagardotegiren sagardoa egongo da denon eskura plazan.

Jaiarekin jarraitzeo, baziaria egingo dute Zubikoa kiroldegin; 14:30ean izango da. Txartelak salgai daude 17 euroren truke. Menua izango da: patatak errioxar erara, arkumea, hojaldre tarta piñarekin, kafea eta kopa. Arratsaldean, herri kirolen jaia egongo da herriko plazan.

**Bazkariko txartelak 17 euroren truke daude salgai; baziaria 14:30ean izango da**



Herri Eguneko ekitaldiek lagun asko batzen dituzte.

Herriko kaleak  
**Zapatua, 27  
Egun osoan**  
Fruitz eta barazki lehiaketa egingo dute unibertsitate aurrean.

## 2.500 txorizo eta 90 kilo hirugihar

Beste urte batez, Ezker Abertzaleak hartuko du Herri Eguneko tabernaren ardura. 100 lagun inguru ibiliko dira lanean herritarrek taloak eta ogitartekoak gustura jateko.

"Goizeko 7etan hasten gara lanean, baina lehenengo taloak 10ak aldera egiten ditugu", azaldu du Jose Mari Zugastik. Aurten, 5 eurotan salduko dituzte txartelak; taloa edo ogitartekoak eta ardoa edo sagardoa aukeran.

"2.500 txorizo erositugu eta 200 kilo irin taloak egiteko. Bestalde, iaz baino hamar kilo hirugihar gehiago hartu dugu aurten, 90 kilo", azaldu du Zugastik. Dena gertu dute, hortaz, Herri Egunerako.

**Lenceria  
Kutun**

**Bidebarrieta • OÑATI**  
Tel.: 943 78 34 44

**Ondo pasau San Migel jaixak!**

**TXOSNETAKO JAI EGITARAUA**

# Nobedade askoko egitaraua txosnetan

**Herri afaria eta koadrilen arteko  
antzerkia, lehenengoz txosnagunean**

MAIDER ARREGI

**Nobedade askorekin  
dator aurtengo egita-  
raua. Koadrilen olin-  
piadak, herri afaria,  
kale antzerkia. Rock  
kontzertuak eta pata-  
ta tortilla arrakasta-  
tsua ere izango dira.**

**S**an Migel jaiak ofi-  
zialki hilaren 28an  
hasten badira ere,  
Txosna batzordeak  
hilaren 26tik urriaren 6ra  
bitartean ekintzaz betetako

egitaraua prestatu du. Hala,  
hilaren 26an, barikuan,  
herriko bertsio eskolakoek  
bertso saioa eskainiko dute,  
19:00etan. Zapatuan, hilak  
27, Etsaiak taldeak kont-  
zertua eskainiko du. Dome-  
kan, auto klasikoen erakus-  
keta egingo dute eta  
20:00etan, berriz, jaien  
hasiera ofiziala txantxiku-  
ren jaitsierarekin. 00:00etan  
preso eta iheslari politiko-  
en aldeko manifestazioa  
izango da. Astelehenean,  
lehenengoz, koadrilen arte-  
ko olimpiadak egingo dira,  
17:00etan. Gauean, herriko



Txantxikuaren jaitsierak ematen die jaiei hasiera txosnagunean.

GOIENKARIA

**Herriko  
bertsolariek  
zabalduko dute  
txosnagunea  
hilaren 26an**

taldeek kontzertua eskai-  
niko dituzte.

Bigarren aste bukaeran  
ere ekintza ugari gozatze-  
ko aukera dago. Urriaren  
3an, barikuan, kale antzer-  
kia egingo da eta 20:30ean  
herri afaria, lehenengo  
aldiz. Txartelak salgai dau-

de hiru eurotan Pako taber-  
nan. Ondoren, kontzertua  
izango dira. Zapatuan,  
Herri Egunean, presoen eta  
iheslari politikoen aldeko  
ekitaldia izango da txosne-  
tan, 19:00etan. Gauean, ran-  
txerak entzuteko aukera  
paregabea egongo da Los

Impekables taldearekin.  
Domekan, hilak 5, patata  
tortilla lehiaketa eta Mikel  
Markez eta Mara bakarla-  
rien kontzertua izango  
dira. Errosaixo Bixamon  
egunean, DJ bertsioen kont-  
zertua egongo dira txos-  
nagunean, 17:00etan.



*ilusiorako mila eta best arrazoi*

## KONTZERTUAK

# Etsaiak eta herriko taldeak oholtzara

Herriko taldeek presentzia handia izango dute txosnetan

JON BEREZIBAR

**Txosnetan rockaren gaua irailaren 27koia izango da. Etsaiak mitikoek joko dute eta eurekin Show Business, Plan B eta Norman taldeek.**

**L**ekittarrak itzuli dira eta lehen zuten indar berarekin egin dute. Sustraieratara bueltatu direla diote iaz atera zuten *Apurtu arte* lanarekin. Diote lehen diskoetako soinura itzuli direla, orain dela 20 urteko

amorru eta letra zuzenekin. Bere garaian euskal punk-hardcore talderik garrantzisuenetakoia izanda, ez da harritzeko zaleen bi belaunaldik bat egitea kontzertuetan. Agian baten batek seme-alabak ere eroango ditu.



Iaz disko berriarekin itzuli zen Etsaiak etenaren ostean.

BAGA-BIGA



## SHOW BUSINESS

**E**ter del demonio disko berriarekin dato oñatiarrak. Apirilean kaleratu zuten lan hori, euren lehenengoa, Hellacopters, Gluecifer eta Kuraia taldeen rocka erreferente hartuta. Lau bat urte daramate oholtzen gainean eta hilaren 27ko gaeuan, urte hauetan ikasitako eta disko berriko kantuak defendatu beharko dituzte. Rock zuzena eta indartsua da eurena, zapatuko txosnetako giroa berotu eta astintzeko nahikoa.

## PLAN B

**R**ock-and-rolletik punk-rockera doan bide guztia egiten dute Plan Bkoek euren musikarekin. Etsaiak, Show Business eta Normanekin batera joko dute jaien lehen zapatuan eta indar aldetik ez dira gainontzeko oholtzakideen atzean geratuko. Haiek ere lau bat urte daramate elkarrekin, baina aurretik beste talde batzuetan (Bartley Juice...) ibilta dato donostiarak. Gitarra astunekin bai, baina melodía indartsuekin ere etorriko dira Oñatira.

## SOSPECHOSOS

**H**erriko taldeek ordezkaritza zabala izango dute, baina ez bakarrik lehen zapatuko kontzertuetan. San Miguel eguna izango da Oñatiko taldeena. Sospechososek astelehenean joko du eta egun berean Galdu Artek, Black Riverrek, Bitzek eta Underbridgek ere. Herriko musikariekin bigarren hitzordua urriaren 3an izango da. Oholta utzi eta txosnen pareko arkuean, Txarralde, Paso de ti, The Black Gramola eta Ez taldeek joko dute.



Ondo pasau  
jaixetan!

Kalezaharra, 12 B  
20560 Oñati  
628 526 265



KONTZERTUAK

# Dantzazaleendako, Karibea, eta lasaiagoendako, bakarlariak

La Habana de Noche balletak bizia emango die kaleei, eta giro intimoagoaz, berriz, Mikel Markez eta Mara arduratuko dira

JON BEREZIBAR

Muturreko bi proposamenek osatuko dute jaietako musika eskaintza. Karibeko erritmoak batetik (30ean) eta bakarlarien giro intimoa bestetik (5ean).

**K**aribeko erritmoek berotuko dute irailaren 30eko gaua. La Habana de Noche baletekoek dantza eta musika ikuskizuna eskainiko dute lehenengo kalean (19:00) eta ostean emanaldia egingo dute Foruen plazan (20:00).

La Habana de Noche taldearena ez da musika kontzertu hutsa, gehiago dauka-eta balletetik ohiko kubatar musika emanaditik baino. Perkusio bizek, dantza ikusgarriek eta musika goxoak ikuskizun osoa eskaintzen dute. Mestizajea da kubatar horien sustraia eta Karibeko uharteko doinu eta erritmoen esentzia da Oñatiako ekarriko dutena.



La Habana de Noche ikuskizun bizia egingo du.



20 urtean idatzitako kantu mitikoak ekarriko ditu Markezek.

ELKAR

Hasi eta amaitu arte, etenik gabeko erritmo eta dantza ikuskizuna da kubatar horiek agintzen dutena.

Igor Artzuaga arabarraren proiektua da Mara. Pianoaren eta ahotsaren biluztasunarekin aurkeztuko ditu laudioarrak

Lagun eroa lan berriko abestiak. Laugarren diskoa du Artzuagak kalean.

## BAKLARIAK TXOSNETAN

Gerria mugitzeko gogorik ez eta proposamen lasaiagoen bila doazenek, berriz, txosnetan urriaren 5ean daukate hitzordua, 21:30ean. Marak eta Mikel Markezek joko dute.

Kubatik dantza, perkusio eta musika eskaintzera etorriko dira

Bakarlarieki euren txokoa izango dute txosnetan domekan

Lan berriarekin barik betiko kantuak ekartzera etorriko dena Mikel Markez izango da. Euskal kantagintzaren erreferente denak bere abesti ezagunenekin bilduma kaleratu du aurten. Zure begiek, *Imajinatzen zaitut*, *Zertarako mugak* jarri eta halako abestiak gogora ekartzeko txanda izango da. Hogeい urte darama Markezek gitarra eskuetan Euskal

Herrian jotzen eta dagoneko emblematicoak diren makina bat doinu dauka bere kantutegian. 1.500 kontzertu baino gehiago eman ditu hasi zenetik. Bermatuta baino gehiago dago, beraz, oholtzan haren presentzia ona, urtetako esperientziak emanda.

Txosnetako oholtza, hortaz, urriaren 5ean, domeka, bakarlariena izango da.



J. Rodriguez Santos doktorea  
**Ginekologoa**

Kontsulta egunak: ostiraletan 9.00etatik 13.00etara  
eta 15.00etatik 18.30era

F. Uriarte doktorea  
**Analisi klinikoak**

Odol-ateratzeak: asteazkenetan 09:15ean

Tel.: 943 46 34 41

**Ondo pasau jaixak!**

Atzeko kalea 6, behe ONATI Tel.: 943 78 24 89 (ordua eskatzeko)

Aseguruak:  
Lagun Aro, Adeslas, Aegon, Mapfre, Winterthur, Foru Aldundia, Sanitas, DKV.

**LIZARRALDE**

**KIROLAK**

**ARRASATE**  
Foruen Enparantza • San Andres auzoa  
Tel.: 943 79 91 47

**Onati**  
Olakua 16  
Tel: 943 78 29 86

## KOADRILAK

# Txarangarekin mozorro kalejira egiteko gonbita

Koadrila batzuek hala eskatuta, Incansables txarangarekin kalejiran ibiliko dira gura duten mozorrotutako talde guztiak

LEIRE KORTABARRIA

**Errosaixo Bixamon eguna berritasun batekin dator aurten: Incansables txarangak lagunduta, hala gura duten koadrila guztiak mozorro kalejira egin ahal izango dute.**

**E**rrosaixo Bixamon eguna giro alai eta koloretsukoa da berez, baina aurten, hori are gehiago pizteko ekintza berri bat egongo da. Hain zuzen, Udaleko Kultura arduradunek diotenez, "herriko talde batek eskatuta, Incansables txarangarekin kalejira bat egingo da, eta mozorrotutako talde guztiak daude bertara gonbidatuta". Hitzordua 12:30ean daukate parte hartu gura duten guztiak.

Mozorroak dira egun horretako ikur eta protagonista nagusiak. Txarangarekin edo hura barik, Oñatioko kaleak mozorrotutako koadrilek hartuko dituzte goizean hasi eta egun osoan. Pizgarri moduan, era-kusketan parte hartu eta, gainera, Udalean izena ematen duten talde guztiak saria eskuratzeko aukera dute. Bi baldintza daude bakarrik: gutxienez sei kide izatea eta denak berdin jantzia



Errosaixo Bixamoneko giro alai eta koloretsua mozorrotutako koadrilek ipintzen dute.

GOIENKARIA

## Izena ematen duten koadrila guztien artean Udalak 3.600 euro banatuko ditu

egotea. 3.600 euro banatu-ko ditu Udalak izena ematen duten talde guztiak saria eskuratzeko aukera dute. Bi baldintza daude bakarrik: gutxienez sei kide izatea eta denak berdin jantzia

lehiaketa egiten ez dena; horren partez, Udalak diru kopuru bat ematen die talde guztiei, partaide kopuruaren arabera, gutxienez eguneko gastuak estali ahal ditzaten.

## Hitzordu garrantzitsu bihurtu da txosnagunean herriko taldeek egiten duten bertsio kontzertua

Oñatioko koadrilek ez dute. hala ere, lehiaketa beharrik; bestela ere, ondo nekatzen dute burua mozo-rrro bitxi eta dibertigarriak asmatzeko eta herritarra harritzea. Azken urteotan

ko joera da mozorroak den-da espezializatuetan eros-tea, norberak egitea baino gehiago; hala ere, gehiago edo gutxiago, denek ematen diote ukitu pertsonala euren mozorroari.


Herriko kaleak  
**Astelehena 6, egun osoan**  
Mozorroek eta karrozek hartuko dituzte herriko plaza eta kale nagusiak.

**EGUN OSOAN EKINTZAK**

Mozorroez gain, Udalak antolatutako ekintzak izango dira Errosaixo Bixamonean: 09:30etik 10:00etara, Foruen plazan, poneyak eta adardunak izango dira zaleendako; 10:00etan, sokamuturra ohiko kaleetan, Arno abeltzaintzako zezenekin; 12:00etan, Oñatioko Musika Bandak kalejira egingo du; geroxeago, txarangarekin mozorro kalejira; arratsaldean, Incansables txarangak, bere izenari kasu eginez, kalejira egingo du herriean barrena; 16:30etik 17:00etara, berri zezentxoak eta poneyak egongo dira Foruen plazan; eta 17:00etan, bukatzeko, sokamuturra ohiko kaleetan barrena.

**BERTSIO KONTZERTUA**

Txosna gunean ere egongo da zer egina Errosaixo Bixamonean. Txosna Batzordeak –OGA, AHTrik ez, Errockalde, Oñati Racing eta Oñati Amnistiaaren Aldeko Mugimendua– antolatuta, azken urteotan ezagun eta gustuko bihurtu den ekintza bat egongo da, hain zuzen, Oñatioko taldeek egingo duten bertsioen kontzertua, Di-bertsioak izenarekin. Arratsaldeko bostetan hasiko da emanaldia ohiko lekuaren: institutu aurreko gunean.

  
**donika**  
INDUSTRIA HORNIDURAK

tel. 943 78 07 45 • fax. 943 78 11 75

Goribar auzoa z/g, 20560 OÑATI

B2B - www. sumiplus.com






San Lorenzo 54, behea.  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 53 32 99 - 652 71 21 23  
eratu@euskalnet.net

Fisioterapia zerbitzuez gain, aurten ariketa pertsonalizatua egiteko aukera izango duzu


## IKASTURTE BERRIRAKO KURTSOAK

DESKRIBAPENA	ONURAK
<b>PILATES</b> Pilates metodoan oinarritutako ariketa: arnasketa ariketa fisikoa eta kontrola batuko dituen metoda.	Muskuluen egoera hobetuko du (barne abdominalak bereziki), postura eta flexibilitatea.
<b>BALL STRECH</b> luzaketa saioak fitness-eko baloia erabiliz.	Mugikortasun, artikulazio eta gorputzaren ezagutzan (???) onura eragingo du
<b>BIZKARREKO ARAZOAK ETA ARIKETA FISIKOA</b> fisioterapiaren balorazioaren ostean, bakoitzaren ezaugarriean oinarritutako ariketa egokitua. Ariketak eta luzaketak batuko dituen saioa.	Bizkarrarentzat onuragarri diren luzaketa eta ariketez gain, tentsioak askatzeko talde ona izango da honako hau.
<b>FITNESS PILATES</b> Pilates metodoan oinarriturik, aulkia espezializatuan ariketak egitean datza. Lan muskularra areagotuz eta ohiko lanari intentsitate handiagoa emanez.	Abdominalen egokitzapena eta bizkarreko musku-luen lantzea

GURE  
IKASTAROA



ERATU FISIOTERAPIA ZENTROA



LASTER GUREAN

HAURDUN ZAUDE?  
Amatasun prestakuntzarako taldea sortzen gabiltza. Apunta zaitez!

HAURRENTZAKO MASAJE  
IKASTAROA  
Martxan, anima zaitez!

APUNTA ZAITEZ,  
TALDE MURRIZTUAK.

HARREMANETARAKO TELEFONOA ETA ORDUTEGIA:  
Astearte eta ostegunetan  
08:30etik 12:30era eta 15:30etik 20:30era.  
Tel.: 658 38 29 28



Euskadi Etorbidea 3 - 943 71 89 49 - 943 78 36 99



**Erreforma  
integralak**  
gure enpresako  
langileek eginak,  
obrak ahalik eta  
azkarren bukatzeko

Berezao auzoa • 943 78 20 08

SAN MARTINAK > BALORAZIOAK

## Jaiak kalean ospatu dituzte bergararrek

Kaleko giro aparta egon da eta jendeak ondo erantzun du; asteburuko eguraldi goibek ez zituen bergararrak ikaratu

**NEREA MENOR > BERGARA**  
Jende askok hartu du parte aurten jaietan. Zapatuan kampoko jende asko hurbildu zen eta astelehenean herrikoek bete zitzuten tabernak. *Hnuy illa* ikuskizuna oso arrakastatsua izan zen eta nagusien danborradan izugarrizko jendetza ibili zen, bai ikusten, eta baita parte hartzen ere. Irala kaletik pasatzeak

ere arrakasta izan zuela esan digute Udaletik.

**"AURREIKUSITAKO MODUAN"**  
Zapatuko zirkuak eta domekako parkeak jende asko bildu zuten, baita Txomingeroen hirugarren baziariak ere: giro ezin hobea egon zen udaletxeko arkueetan. "Dena aurreikusi bezala joan da", dio Maider Osak Udaletik.



Gazta, barazki eta fruituen lehiaketako sarituak irribarretsu alkatearekin.



San Joxe elkartekoak beti bezain alai danborradan.



Plazan, San Martini agur esateko momentua iristen da.



Zuloa elkarrearen 25. urteurrena ospatu zuten danborradan.



Erreileno eta tostoen IX. kapitulua. Argazkian, kofradiakoak eta omenduak.



Danbor jotzaileak, udaletxean.



Danborradaren ibilbidea aldatu eta Irala kale berritutik pasa ziren.



Haurren danborradak danbor-jole bikainak izan zituen.



Txinatarrak ere danorra joten ibili ziren kaleetan zehar.



Sukaldari gazteak.

ARGAZKIAK: JOSEKO ARANTZABAL/ENEKO AZKARATE



Ferretería  
**Mágica**  
Burdindegia

INDUSTRIA  
HORNIDURAK

Eskaintza bereziak:  
**PROFESIONALA - LANEKO ARROPA**

Bidekurutzeta 8 • BERGARA • Tel.: 943 76 28 67 • Faxa: 943 76 94 31



**MONDRAGON**

**ikasi egingo duzu**

**INGELESA, EUSKERA,  
FRANTSESA, ALEMANA, TXINERA.**



**palabrahitza word**

eskolak:

**ESKORIATZA-ARAMAIO  
ARETXABAleta-ARRASATE-OÑATI**

**MONDRAGON LINGUA**

ARRASATE-MONDRAGON Avda. Alava, 4 943 71 20 55

OÑATI-OÑATE Olakua, 14 943 71 60 00

BILBO-BILBAO Buenos Aires, 7 946 661 34 67

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN Zubietar, 26 943 43 31 02

VITORIA-GASTEIZ Florida, 8-A 945 15 01 55

**MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasle bazara %25 deskontua AUREZ AURREKO ESKOLETAN**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan.

**Eskola Eraginkorrik, Nahierako Eskolak  
MAILA GUZTIAK, ADIN GUZTIETARAKO**



**EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA**  
2008ko IRAILAREN16tik 22ra

**ARRASATE**

Aldaketa eskatzen digu munduak  
Arrasatek aldaketa eskatzen digu




**EUSKO JAURLARITZA**  
INGURUMENDUA eta LURRALDEA  
ANTOLAMENDUA BAILA  
GARRAIKO eta HERRI LAN BAILA

**GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO  
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

**Ingiurumena**  
Gure saba degiak  
Ezin da manatzea izan

**Leintz** Gamioak S. L.

**ihobe**

**AGENDA 21**

## Egitaraua • Arrasate

### HIRIBUSA

Irailaren 16tik 22ra, hiri busean guztiz DOAN ibili izango da (aurten ez da bonorik beharko).

\*\* Adin txikikoek autobusa erabili ahal izango dute nagusia betengatik lagunduta badoaz edo ohiko eskolako bidaiaik egiteko (urreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezten)\*\*



### Irailak 20, Zapatua

**BIRZIKLETA AZOKA** - Bigarren eskuko bizikleta azoka -Seber Altube plaza- Goizean 11:00 - 14:00 Arratsaldean 17:00 - 19:30



### Irailak 20 eta 21 - Zapatua eta Domeka

**SEG WAY ZIRKUITOA** -Biteri plaza-

Zapatuan goiz eta arratsaldez eta domekan goizez 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

**ERAKUSKETA - EMISIO TXIKIKO IBILGAIUAK** - "mugitzeko beste era bat" -Biteri plaza- Zapatuaren goiz eta arratsaldez eta domekan goizez 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Auto hibridoak, Auto elektrikoak, Paseoko bizikletak, Bizikleta tolesgarriak, Bizikleta elektrikoak, Segway ... (ibilgaiuak probatu ahal izango dira!)



### Irailak 21, Domeka

**BIZIKLETAN BIRA** - Arrasatetik Eskoriatzara (Torrebaso Industrialdea) bidegorritik. Irteera 11:00etan: Seber Altube plaza



### Irailak 22, Astelehena

**17:00 Mugikortasun eta irisgarritasun TAILERRAK** - Seber Altube plaza  
Irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta oztopo ibilibidea

OSPAKIZUNA > HAUR DANTZARIEN EGUNA

## Sei dantza talde eta 200 bat dantzari ibiliko dira etzi

Urtero Herriko Plazan egin izan dituzten ekitaldiak Iturrigorri frontoian egingo dituzte aurten, eta Gipuzkoa plazara ere joango dira taldeak dantzan egitera

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta Domekan, irailak 21, ospatuko dute herrian Haur Dantzarien Eguna. Aretxabaletako Loramendi dantza taldearekin batera, beste bost talde izango dira: Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak; Oñatioko Oñatz; Antzuolako Oinarria eta Soraluzeko Urrats. Hala, dantzari, txistulari eta laguntzaien artean 200 lagun inguru elkartuko dira.

Urtero Herriko plazan elkarzu izan badira ere, aurten Iturrigorri frontoian izango dute topaleku mokadutxoan janz dantzan hasteko (10:00). Ondoren kalejি



Loramendi dantza taldeko kideak kalejিa hasten, iaz.

MIRARI ALTUBE

ra egingo dute talde guztiak eta herriko hainbat txokotan banatuko dira dantzan egiteko: Ilargi plazan, Gipuzkoa

plazan, Mitarte plazan eta Durana kalean. Iturrigorri frontoian jasoko dituzte familiek dantzariak bazkaltzera eroateko (13:30),

eta arratsaldean berriro elkartuko dira Iturrigorri frontoian (17:00) alardearekin agur esateko egunari.

GIZARTE ZERBITZUAK > ERRETIRATUEN EGUNA

## Ez dago bazkaririk Erretiratuen Egunean

Kirol etxea bota egin behar dutelako kendu dute, eta horren ordez mokadutxoa eskainiko dute

M.A. > ARETXABAleta Urriko lehen zapatuan omentzen ditu Udalak urtero herriko erretiratua, eta bazkaria eskaintzen die kirol etxeak. Aurten, baina, kirol etxeak lanak direla-eta, aldaketak egin behar izan dituzte antolatzaleek, eta ez da bazkari-rik izango. Gainera, aurreratu

egin dute ospakizun eguna, eta irailaren 26an, egubakoitz, izango da, San Migel jaiak hasiko direlako orduantxe. Mokadutxoa izango dute (18:00) Basotxo erretiratuen egoitzan edo inguruan -eguraldia ikusi behar- eta ondoren dantzaldia egongo da, Juan Luis Lekunberri lagun dutela.



Kirol etxeak egin izan dute urtero bazkaria erretiratuek.

GOIENKARIA

> IKASTAROA  
Taloak zelan egin erakutsiko dute gaur Pagaldaienean

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta taloak egiten erakutsiko dute eskarmen handia duten hainbat talogilek gaur (18:00-20:00), Pagaldai taberna egon zen lekuau. Lehenengo orea egiteko jakin beharrekoak erakutsiko dizkiete ikasleei eta ondoren zelan landu ore hori.

Irailaren 27an, zapatua, talo postua jarriko du urtero legez Loramendi EEko Tril emakume taldeak, eta taloak egiten ikasitako laguntza gustura hartuko dute.

> ANTZERKIA  
Heldu eta umeendako antzerkiak gaur eta bihar, Arkupen

Helduendako antzerkia eskainiko du gaur Arkupe kultura etxeen (22:00) Txirene taldeak: *Ogiyik karri etzun semia*. Umorea erabilta ama baten eta semearen arteko harremana agerian uzten duen lana eskainiko du Edurne Agirrezabala antzezleak. Sarrera 10 euro da.

Bihar, osteria, umeen txanda izango da, eta Elvi sabel hiztuna eta haren lagunak izango dituzte Arkupeko Zaraia aretoan (17:00). Sarerra 5 euroen truke.

> AISIALDIA  
Zabalik dago ludoteka 4 eta 12 urte arteko umeendako

Zabalik izan ditu ateak aste guztian Algara ludotekak, eta ume asko pasatu da bertatik egoitzea ezagutu eta, bide batez, jolas egiteko. Orain matrikulua egiteko epea zabaldu dute, eta astelehenetik aurrera izeana emandakoak bakarrik sartu ahal izango dira: 4 urtetik 6ra artekoak lehenengo (17:00-18:30) eta 6 urtetik 12ra artekoak gero (18:30-20:00) astelehenetik egubakoitzera. Eta hileko zapatua baten irteerak egingo dituzte.

propaganda  
kartelak  
kartak  
jai egitarauak  
pegatinak  
liburuak  
etiketak  
txartelak  
errekordatorioak  
gonbidapenak  
errebillak  
inprimakiak



**EGUZKI GRAF**  
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com

&gt; XAKEA

### Eguen arratsaldean hasiko dituzte xake eskolak Iralabarrin

Datorren egunean, hilak 25, hasiko dute xake denboraldia. Iralabarri plazan dauka txokoa xake taldeak, eta berantemango ditu eskolak egunean (18:00-20:00) Arlutz xake taldeko kide Aitor Alcaidek. Askorendako kirol ezezaguna da xakea, eta ateak zabalik izango dituzte ezagutzena hurreratzen direnendako eta ikastera datozenendako.

&gt; KARATEA

### Martitzenetan eta eguenetan emango dituzte karate eskolak

Aretxabaleta kirol elkartea barruan dagoen karate taldeak hasi ditu eskolak. Martitzenetan eta egubakoitzetan elkartuko dira, bai 6 urtetik 12ra artekoak (18:00-19:00), bai 12 urtetik gorakoak (19:00-20:15). Kurtzebarri eskolan dira entrenamenduak.

&gt; TXAPELKETA

### Gaur bukatuko da pala txapelketan izena emateko epea

Loramendi EEk antolatutako *Joteko prest!* pala txapelketan izena emateko epea bukatuko da gaur. Interesatuek Loramenditik pasatu behar dute, eta 20 euro ordaindu bikoteko. Txapelketa urriaren 7an hasiko dute, eta Iturrigorrin izango dira partiduak.

GAZTEAK &gt; GAZTELEKU BERRIA

# Gaztelekuaren inaugurazioa da gaur

Eskulanak egingo dituzte: tatuajeak, grafitiak... eta, ilunkaran, Azkaiter Peloxen kontzertua

Arkupen dagoen gaztelekuak hainbat gela eta sukaldea ditu, eta gazte teknikariaren bulegoa ere bai

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Gaur, egubakoitzza, inauguratuko dute Atxagazte gaztelekuaren egoitza berria. Iralabarri plazatik Arkupe kultura etxera ekantri dute, eta han elkartuko dira 12 eta 16 urte arteko gaztetxoak.

#### HAINBAT GELA ETA SUKALDEA

Eguazten eta egunean gazteleku berria ezagutzeko aukera izan dute herritarrek, ateak zabalik izan dituelako. Kultura etxean izan arren egoitza, Arkupera sartu barik zuzenean gaztelekura sartzeko atea dauka; eta barruan, hainbat gela dituzte gazteek: harrera eta sukaldea, goiko solairuan, eta topagunea eta musika lokalak, behean. Gainera, Gazteria teknikari Maider Etxanizek



Eguazten eta egunean zabalik izan ditu ateak gaztelekuak.

MIRARI ALTUBE

bertan dauka bulegoa. Astelehen eta eguztietan egoten da, eta egubakoitz batzuetan.

#### IRAILEKO EGITARAUA

Inaugurazio ekitaldia 17:00etik 20:00etara bitartean izango da gaur, eta hainbat eskulan egingo dituzte: tatuajeak, grafitiak, txapak, musika tailerra... Eta gaztelekuaren ibilbide berria ondo hasteko kontzertua eskainiko du Bergarako Azkaiter Pelox bakarlaia (19:00).

Behin inauguratuta, zabalik egongo da Atxagazte. Bihar, zapata, zirku tailerra egingo dute: eskujokoekin jolasten ikasi, han-kapaloen gainean ibili... Eta domekan fimo tailerra izango dute, fimo orearekin bitxiak zela egin ikasteko.

Hurrengo aste bukaeran San Migel jaiak ospatuko ditugu herrian eta zapatuaren itxita egongo da. Domekan, irailak 28, ostera, sukaldean jardungo dute gazteek eta ondoren merienda egin.

# PAGALDAI

*Opari denda*

*Burrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14



**M**obiliario  
ARENaza

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

EPAIKETA

# Gaur epaituko dute Zuhaitz Errasti

'Salbuespen egoerari stop, Zuhaitz askatu!' lelopean elkartuko dira Duranan

M.A. &gt; ARETXABAleta

Gaur, irailak 19, epaituko dute Zuhaitz Errasti aretxabaletarra Parisen (Frantzia), Joseba Troitiñorekin batera. Hori horrela, autobus bat joan zen atzo Aretxabaletatik Pariserantz babeska eskaintzeko epaitu bieit.

#### HIRU URTE ETA BI GREBA

2005eko uztailaren 28an atxilotu zituzten Errasti eta Troitiño Frantzia erdialdeko Brieva la Gaillarde herrian. ETAko kideak izatea egotzi zien poliziak, eta Fleuryko espoxera eroan zuten Errasti. Handik egun gutxira, baina, Nantesera aldatu zuten. Bakartuta egon zen han, eta euskal presoekin egon gura zuelako gose greba hasi zuen abuztuaren 15ean. 25 egun egin zituen jan barik. Bitartean, Aretxabaletako Udalak Errastiren aldeko mozioa onartu zuen, eta elkarretaraztea egin euskal preso politikoak sakabanaketa eta bakartzearen aurka. Poitiersko espoxera bidali zuten orduan, eta han 41 egun egin zituen zigor ziegau. Bertako bizi baldintzak salatzeko higiene greba hasi zuen, eta 2006ko urtarrilaren 26an Moulins-era aldatu zuten. Bertan dago ordutik hona. Hiru urte pasatxo espoxean egin eta gero epaituko dituzte Errasti eta Troitiño gaur.

**ELKARRETARATZEA 19:00ETAN**  
Errastiren egoerarekin bat egin, babeska agertu eta era berean presoen egoera salatzeko elkarretaratzea egingo dute gaur (19:00) Durana kalean. Lelo ondorengoa izango da: *Salbuespen egoerari stop, Zuhaitz askatu!*

**Iber**

**Loteria**  
**Paper denda**  
**Liburuak**

Otalora 2. ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 04 39



**FELIX PAGALDAY**

**Laborantza tresnak**  
**Ongarriak- Haziak**

Mitarte 7 behea  
ARETXABAleta  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

ETXEBITZITZAK > ZOZKETA

# Urbietako etxeetarako izenak, urriaren 2ra arte

Otadui Zuhaitziko 60., 64., 66., 68. eta 70. zenbakietako 17 etxe tasatuak emateko, eskatzaileen 2007. urteko diru-sarrerak hartuko dituzte kontuan

## MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Otadui Zuhaitziko Urbietako gunean egiten dihardutene etxe tasatuetarako izenemate berria zabaldu dute. Hain zuzen ere, lehen zozketan eman barik geratu ziren 17 etxe tasatuak eskuratu gura dute-nek eman behar dute izena. Udal bulegoetan hartuko dituzte izenak urriaren 2a baino lehen, 09:00etik 14:00etara. Bestalde, etxeen inguruko informazioa gura duenak 943 78 27 07 telefonora dei dezake. Kasablanckako Urbietako gune-ko etxeak Otadui Zuhaitzia kale-

ko 60., 64., 66., 68. eta 70. zenbakietan egingo ditu Italde eraikuntza enpresak.

## BALDINTZAK

Zozketan parte hartzeko, eskatzaileen 2007. urteko errenta aitorpeneko datuak hartuko dituzte kontuan; hain zuzen ere, 27.000 eta 54.165 euro artekoak izan beharko dute. Oñatin erroldatuta daudenek lehentasuna izango dute etxe tasatuaren zozketan, baina ez da derrigorrezkoa herrian errolatua egotea.

## LAU KUPOTAN

Zozketatuko dituzten 17 etxeak lau kupotan banatuko dituzte: mugimendu urria dutenen kupoia; familia ugariena; Etxebideko zerrendan lau urtez edo gehiagoz izena emanda dutenena; eta kupo orokorrekoia.

2010. urte hasierarako bukatuko dituzten etxe tasatu gehienak 88 eta 90 metro koadro artekoak dira; eta 223.000 eta 235.000 euro artean balio dute. Gainera, etxe tasatu guztiak garajearekin salduko dituzte.



Aurrera doaz Urbietako guneko etxeak.

MIREIA BIKUÑA

## > DEIA

### Jaietarako esaldi lehiaketa deitu du Laixan elkartea

Urtero moduan, Laixan Euskara Elkarteak San Migeletako pegatina agertuko den esaldia aukeratzeko lehiaketa deitu du. Herriko sei tabernataren -Aker, Aloña, Guria, Arrano, Luis eta Oña- eta gaztelekuaren jarri dituzte leloak uzteko kutxak. Leloa-rekin batera izen-abizenak eta telefono zenbaikia jarri beharko dituzte. Internet bidez ere parte hartu dai-teke leloak [laixan@laixan.org](mailto:laixan@laixan.org) helbidera bidaliz.

Irabazleak 60 euro jasoko ditu, eta leloa duen hainbat pegatina egingo ditu Laixanek.

## > OHARRA

### Barrakengatik plazako aparkalekua itxita egongo da astelehenetik

Jaietarako lehen barrakak martitzenean helduko dira Oñati-rra; hortaz, astelehenetik aurre-ra plazako aparkalekua itxi egingo dute autodendako, eta ezingo da aparkatu. Hain zuzen ere, urriaren 8ra arte egongo da itxita. Bi aste eta erdiz barraka-k, haur parkea, txurreria eta postuak egongo dira plazako aparkalekuaren.

Bien bitartean, aparkaleku modura, kirodegiko lurrazpi-ko parkinga, Osasun Zentroko aparkalekua eta Ibarra eta Olait-turri erabiltzeko gomendioa egiten dute udaltzaingotik.

## KIROLA > IKASTAROAK

### Haurren igeriketa ikastaroetarako izenemate epea, astelehenetik egunera, kiroldegian

Zubikoa kiroldegiko bulegoan eman behar dituzte umearen datuak, eta ikastaro ordua aukeratu beharko dute gurasoek

## M.B. > OÑATI

Umeendako igeriketa ikastaroak urriaren 13an hasiko dituzten arren, datorren astean, astelehe-



Iruidian, iazko haur danborradako une bat.

GOIENKARIA

## JAIAK > HAUR DANBORRADA

### 150 neska-mutikok parte hartuko dute danborradan

Bihar, 18:00etan hasiko da haur danborrada Udal Musika Bandaren laguntzarekin

## M.B. > OÑATI

Herriko neska-mutikoak izango dira protagonista San Miguel jaietako lehen danborradan. Hain zuzen ere, haur danborrada egingo dute bihar, 18:00etan Santa Marina plazatik irtenda.

Antolatzaileen esanetan, berrikuntza barik egingo dute danborrada: "Iaztik dugun alda-keta bakarra da ez dugula karro-zarik egin. Iaz, danborradaren 25. urteurrena zela-eta, karroza berezia egin genuen; baina, aurten, gaia pentsatuta izan arren, ez dugu astirik izan karroza egiteko, eta ez dugu aterako. Bestela, gainerako guz-tian ez dago aldaketarik".

Danbor-jole, barrilero, sukaldari, inude eta danborrada parte hartuko duten gainerako guztiak Bakardade kale-lik jaitsi eta Kale Zaharretik behera egingo dute. Aita Madina kaletik plaza aldera hartuko dute, eta han egingo dute ekitaldi nagusia. Besteak beste, entseguetan ikasitako doinuak jo eta dantzatuko dituzte.

## ERRALDOIAK

Haur danborrada bukatu ondo-ren, plaza inguruaren egongo den giroarekin jarraitzeko, txori-malo eta erraldoiak irtengo dira kalera, neska-mutikoen gozagarri.

netik egunera, hartuko dituzte umeen izenak. Hain zuzen ere, goizez eta arratsaldez egongo dira igeriketa irakasleak izenemate orriak betetzen kirodegiko bulegoan, 09:00etik 13:00etara eta 15:00etik 20:00etara.

## IZENAK ADINAREN ARABERA

Izenematea erosoagoa izan dadin, haurrak adinaren arabera bana-tuko dituzte. Hortaz, astelehenetan eta martitzenean 0-4 urte arteko umeen izenak hartuko dituzte; eta eguztenean eta eguneean

4 urtetik gorako neska-mutikoenak. Izenemate orria betetzera-koan ikastarorako ordua eta eguna-ak aukeratu beharko dituzte. Ondoren, behin betiko zerrendak jarriko dituzte kirodegiko ira-garki taulan.

## IGERILEKUA ITXITA

Bestalde, Osakidetzak agintzen duen garbiketa egiteko, igerilekuak itxi egingo dituzte irailaren 29tik urriaren 7ra arte (14:00ak arte). Igerilekuak hustu eta garbiketa sakona egingo dute.



Udalak interes handia dauka Aranburuzabala kalean, Aingeru Guardako gasolindegiaaren inguruan, etxebizitza sozialak egiteko.

IKER BARANDIARAN

**UDALA > EZOHIKO OSOKO BILKURA**

## Etxebizitza sozialak egin gura dituzte Aranburuzabalan eta Kuatruenan

Atzoko (eguna) ezohiko osoko bilkuran gai horiek aztertzeko asmoa zeukaten

Bai Aranburuzabalan eta baita Kuatruenan ere 40na etxebizitza sozial egin gura dituzte

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Atzo, eguna, ezohiko udaleko osoko bilkura egin zuten. Horren helburua izan zen Santa Marina esparruan, Aranburuzabala kale-

ko 14. zenbakien parera, egin behar dituzten etxebizitzak libreen arteko distantziak eta mailak definitzea. Hori adosteko asmoa zuten atzokoan.

Horrez gain, jakitera eman zuten udalerriko bi eremutan etxebizitza sozialak egiteko asmoa dutela: Kuatruenan eta Aranburuzabala kaleko goialdean, hain zuzen ere.

### PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA

Orain arte Kuatruenan (Gatzagako bidean) etxe pribatuak egiteko aukera zegoen, baina Udalaren asmoa da plan partzialean aldaketak egitea. Hala, dentsitateak areagotu eta zerbitzu eta

azpiegiturak kontzentratu gura dituzte; hau da, etxe bakoitzeko lur gutxiago okupatu.

Hortaz, eremu horretan 40 bat etxebizitza sozial eraikitzea da asmoa.

### ARANBURUZABALA HOBETU

Bestalde, ezohiko osoko bilkuran aztertzeko zeukaten beste puntu bat Aranburuzabala kalearen goialdean etxebizitza sozial gehiago egitea da. Hala, Aingeru Guardako gasolindegiaaren inguruan,

Tesa enpresaren parean, 40 bat etxebizitza egin gura dituzte orain enpresa zahar bat eta etxe bat dauden lekuaren. Enpresa pribatu bat arduratuko da horretaz, Udalaren laguntzarekin.

### IBAIA ESTALGABETU

Horrez gain, Udalaren asmoa da Aranburuzabalan erreka zati bat estalgabetu eta hor parke bat jarritzea. Modu honetan, lortuko dute herriaren sarrera horri zerbitzuak gehitzea.

## Amuskakoak Zaragozan izan dira txangoan

Eskoriatzako Amuska emakumeen elkarrekin antolatuta, 38 eskoriatzar Zaragozan izan dira iraileko lehenengo asteburuan, Eroski Bidaiek lagunduta. Zapataun Expo Zaragoza 2008 bisitatu zuten eta domekan, berriz, bisita gidatua egin zuten Zaragoza hiriko monumentuak ikusteko. Bazkaldu ostean, Eskoriatzara itzuli ziren. Bestalde, elkarrekin batzar orokorra izan du eta karguak berritu dituzte: Dorleta Urrutia da presidente berria.



AMUSKA

**> OSPAKIZUNAK**  
**Saiheskiak izango dira zapataun herriko merkatarien eskutik**

Bihar, zapatua, saiheski erreka prestatuko dituzte herriko merkatarien. Hala, 600 pintxo inguru banatzeko asmoa daukate, ehun kilotik gora. Saiheski dastatzea 19:30ean izango da herriko plazan. Euro baten truke okela pintxo bat eta ardo eta sagardoa hartzeko aukera izango da.

Horren ostean, azken urteotan egin izan duten moduan, herriko hainbat merkatarien gala-afaria egingo dute. 25 lagun inguru elkartu ohi dira urtero eta guztiek festa-jantziekin dotore ibiltzen dira.

KIROLA > EUSKAL KOPA

## Nesken saskibaloiko euskal kopa jokatuko dute asteburuan kiroldegi

Punta-puntako senior taldeak lehiatuko dira gaurtik (egubakoitza) domekara bitartean

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkartea saskibaloarekin lotutako hitzordu garrantzitsua antolatu du astebururako. Hala, gaurtik (egubakoitza) domekara bitartean emakumezkoen saskibaloiko euskal koparen aurrefasea izango da jokoan Eskoriaztako kiroldegi.

Gaur, egubakoitza, Irlandetas eta Gdiko Ibaizabal taldeen arteko norgehiagoka izango da, 20:00etan. Bihar, zapatua, berriz, Biurrena UPV eta Irlandetas zein baino zein gehiago izango dira, 19:00etan; eta etzi, domeka, Gdiko Ibaizabalen eta Biurrena UPVren arteko lehia izango da, 11:00etan. Bitxikeria moduan, esan beharra dago



Iaz Irlandetas eta Hondarribia-Irunek jokatutako partiduetako bat. GOIENKARIA

> AISIALDIA

### Gaur, egubakoitza, zabalduko ditu atea gaztelekuak, eta hainbat ekintza prest dituzte

Gaur, egubakoitza, egindo dute gaztelekuaren opor osteko irekiera festa, 18:00etan. Zerbitzu hori 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago; hau da, DBH-1 eta DBH-4 bitartean ikasketak egiten dabilzanei.

Irekiera festari jarraituta, bihar, zapatua, Mugikortasun Astearrekin bat egiteko bizikleta irteera egindo dute, 17:30ean, gaztelekuak abiatuta. Datorren asteburuan, berriz, Apotzagara joango dira zaldian ibiltzera eta sukaldaritzar apur bat ere ikasiko dute.

> AISIALDIA

### Tortolis ludotekak atea zabalduko ditu datorren astean, gura duenak zerbitzua hobeto ezagutzeko

Tortolis ludoteka 3 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuenduta dago. Aste honetan zehar kale ekintzak egiten ibili dira. Datorren astelehenetik aurrera, berriz, ludotekako atea zabalduko dituzte: astelenean 3 eta 6 urte artekoendako ezagutza jolasak egindo dituzte; eta martitzenean 7 eta 12 urte bitartekoendako.

Eguazten, eguen eta egubakoitzean, berriz, jolas librea egiteaz gain, eskulanak egiten erakutsiko diete Tortolisen bildutako ume eta gaztetxoei. Betiere 17:00etatik 19:00etara bitartean.

denboraldi honetan Biurrena UPVn Arrasateko Itziar Mallabiarrenak jokatzen duela. Talde guztiak nesken senior mailakoak dira, eta antolatzaleek aurten ere ikusle kopuru polita hurbiltzea espero dute.

**FINALA, URRIAREN 15EAN**

Aurrefasea jokatu ostein, hirukoan lehen postuan geratuko den taldeak Hondarribia-Irun taldearen kontra jokatu beharko du finala. Horren hitzordua urriaren 15erako, eguztenean, jarri dute, 19:30ean, kiroldegi berean.

**DENBORALDIA HASTEAR**

Bestalde, Eskoriatzako saskibalo taldeetako bi, kadeteak eta gazteak, iraileko azken asteburuan hasiko dira; eta senior taldea, berriz, urriko lehen asteburuan hasiko dela aurreikusiten dute kirol elkartekoek. Izen ere, atzo, eguna, izenematea itxi barik zegoen.



Bizikleta ibilaldian esku hartuko duten eskoriatzar gaztetxo batzuk eta Saioa Altza antolatzaleetako bat.

IKER BARANDIARAN

INGURUMENA > 'AIRE GARBIA DENONTZAT'

# Bizikleta ibilaldia, tailerrak eta bestelakoak Mugikortasun Astean

Gaur, egubakoitza, irisgarritasun eta bizikleten gaineko bitalde, 17:00etan

Etzi, domeka, bizikleta ibilaldia egindo dute Arrasatera; hitzordua 10:00etan da

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA  
Udaleko Gazteria eta Ingurumen sailek eta Ibarraundi museoak mugikortasunaren gaineko astea antolatu dute *Aire garbia denontzat* izenpean. Herenegun (eguztenean) hasita, etzira arte (domeka) iraungo dute antolatuko ekitaldiek.

Astea antolatzen ibili den Saioa Altza udal teknikariaren esanetan, helburua da "herriarrek ikustea mugitzeko beste modu batzuk daudela, erosoa goak eta guztondako onuragarria goak direnak".

DOKUMENTALAK EMAN DITUZTE

Astearen egitaraua hasteko, eguztenean eta egunean dokumentalak eman dituzte kultura

etxeen: bioerregaien gaineko Soberanía violada eta petrolioaren gaineko Cruda realidad. "Dokumental gogorrak dira, baina daukagun garapen ereduaren gaineko galderak egiteko aproposak dira. Esaterako, interesgarria da jakitea bioerregaiak egiteko zelakoak egiten dituzten!", azaldu zuen Altzuak.

GAUR, TAILERRAK

Gaurko, egubakoitza, berriz, bi talar antolatu dituzte eta biak 17:00etan izango dira. Txatxili-purdik Mugikortasuna eta irisgarritasuna Eskoriatzan izeneko emango du. Hala, gurpildun aulkia edo ume-kotxeak ibiltzen dituztenek zelako oztopoak dituzten jakin ahal izango dute gura duten herritarrek. Horrez gain,

herriko Esko Sport bizikleta dendako arduradunek bizikletak zelan konpondu ikasteko tailerra egingo dute. Biak ala biak herriko plazan egingo dituzte, nahiz eta irisgarritasunaren gainekoa herriko plazatik abiatu eta udalerritik ibilaldia egingo duten.

DOMEKA, BIZIKLETA MARTXA

Ekitaldiekin bukatzen, etzi, domeka, bizikleta martxa egingo dute. Interesatuak 10:00ak baino lehenago batu beharko dira herriko plazan. Handik bidegorritik barrena Arrasatera joango dira, eta han Arrasatekoekin batuta, Eskoriatzara buelta egingo dute. Ez dago izena eman beharrak; baldintza bakarra da kaskoa eramatea eta 10 urtetik beherakoak nagusiekin joatea.

BESTELAKO GARRAIO MOTAK

### Bizikleten erabilpena bultzatzeko ahalegina

Eskoriatzako Udalak oso argi dauka bizikletak ahalik eta gehien erabil behar direla. Horren harira, Udalak bi bizikleta erosio ditu bertako langileek erabil ditzaten. Horrez gain, herriko plaza inguruan bizikleten-dako aparkalekuak jarriko dituzte laster, garraio hori erabilitzen dutenei erraztasunak emateko.

Bultzatzu gura duten beste garraio mota bat autobusak dira. Hala, Udalak eguneratutako ordutegiak jarri ditu udalerrian dauden autobus geltokietan. "Askotan ez dira gaurkotuta egoten, eta gainera nahasgarriak izan ohi dira. Horrek ez du horren erabilera errazten", azaldu zuten.

GIZARTEA &gt; ZERBITZUAK

# Astelehenean zabalduko dute eguneko zentroa

Babestutako etxeak eta Erretiratuen Elkartearen lokala ere Torresoroako gizarte etxean egongo dira

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Astelehenean, irailaren 22an, ipiniko dute abian Torresoroa gizarte etxean eguneko zentroa. Babespeko lau etxebizitzak eta erretiratuen egoitza ere laster abiarazteko asmoa dute, Gizarte Zerbitzuko arduradunek esan dugunet.

Oraingo 12 lagunendako tokia badago ere, sei lagunekin hasiko dira lanean eguneko zentroan. 60 urtetik gorako pertsona ezinduei dago zuzenduta eta honako zerbitzuak eskaintzen dituzte: baskaria eta merienda, bainua, banakako lagunza programak (fisikoak nahiz psikikoak) eta garraioa. Zerbitzuaren kostua eguneko 12,63 euro da; eta 6,89 euro, kitzatu gabeko pentsioa jasotzen duten kasuan.

Babespeko etxebizitzak ere gertu daude eta oraindik aukera dago izena emateko. Etxe-

ok 60 urtetik gorako pertsona autonomoendako dira. Ostatua, jatorduak, arropak garbitu eta lisatzea, instalazioen garbiketa, telealarma eta era-biltzaile bakoitzari egokitutako jarraipen eta lagunza zerbitzuak eskainiko dizkiete. Egunean 23,5 euro ordaindu behar dituzte gela bikoitzean banakako plaza bakoitzeko; eta binaka joanez gero, bakoitzak 18 euro ordaindu beharko lituzke eguneko.

Erretiratuen Elkartearen egoitza ere Torresoroan izango da eta elkartea berak kudeatuko du. Aurreikuspenen arabera, urrirako joango dira erretiratua lokal berrira.

## INAUGURAZIOA, URRIAN

Izan ere, zerbitzuak orain abian ipini arren, inaugurazio ekitaldia urriaren 13rako dago aurreikusita. Hala ere, herritarrek zerbitzuok ezagutu ahal izateko atea zabalduko dituzte, urriaren 10ean, 18:00etik 20:00etara, eta urriaren 11n eta 12an, 11:00etik 13:00etara eta 18:00etik 20:00etara.

Bestalde, zerbitzu horien gaineko informazioa jasotzeko, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete interesatuek (943 76 62 46).



GOIENKARIA

> ELIZA  
**Abadearen agur meza izango da zapatu arratsaldean parrokian**

Irailaren 20an egingo dute Antzuolako parrokiaren, 18:30ean, Rafael Eizagirre abadearen agur meza, eta Iñigo Mitxelenak eta Juan Kruz Mendizabalek hartuko dute Eizagirreren lekua. Meza berezia izanik, Donostiako gotzain Joan Maria Uriarte izango da elizkizunean. Eliztarrek ospakizuna borobiltzeko luntxa gertatuko dute meza osterako.

> AISIALDIA  
**Motor zaleen irteerarako izena eman behar da iraila amaitu aurretik**

Antzuolako Motor Taldeak urtero ohiturari jarraituz irteera antolatu du urriaren 5erako. 09:00etan plazan abiutu eta Bizkaiko kostan barrena egun osoko bidaia egingo dute motor zaleek. Irteeran parte hartu ahal iateko aurrez izena eman behar dute interesatuek. Horretarako, irailaren amaiera baino lehen Mujika harategira jo beharko dute.

> HEZKUNTZA  
**Irailaren 30era bitartean eman daiteke izena haurreskolan**

Antzuolako haurreskolan matrikulazio epea zabaldu dute irailaren 30era bitartean. Izena eman ostein, umeek azaroan, abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko aukera izango lukete. Gurasoek argibide gehiago nahi izanez gero, eguerdian, 13:30ak inguru haurreskolara joan daietzke edo telefonoz dei dezakete 943 78 60 15 zenbakira.

> GAZTEAK  
**Pintxo lehiaketa izango da gaztetxean hurrengo egubakoitzean**

Irailaren 26rako hainbat ekintza gertatu dituzte. 19:00etan pintxo lehiaketa egingo dute gaztetxean eta parte hartu nahi duten taldeek irailaren 25era arteko epea dute izena emateko. Talde bakoitzak hamarna pintxo egin beharko ditu eta lehiaketaren ostein pintxo dastatzea izango da. Gau partean Jon Plazaola bakarrizketa egingo du gaztetxean.

JAIAK

# Alardearen gaineko batzarra hilaren 23an

Elkarteko kideek espero dute aldaketa batzuk 2009rako egitea

**I.A. > ANTZUOLA**  
Mairuaren alardean hainbat aldaketa egiteko asmoa dagoela eta, Mairuaren Alardearen Elkarteak batzarrerako dei egin du. Bilera Olaran etxeen izango da irailaren 23an, 19:00etan. Aurreko batzarretan lantaldeetan jarduteko gertu azaldu direnak gonbidatu dituzte bereziki, baina beste edozein herritarrek interesik badu ere, zabalik izango ditu ateak.

Batzarrean zehatzko dituzte lantalde bakoitzaren lanak eta gero pauso zehatzak ematen hasiko dira aldaketa bidean. Mairuaren irudia duintzeaz eta diskurtsoaz arduratu dira batzuk eta koreografiaz besteak.

Mairuari itxura berria eman nahi diote; jankerari dagokionez, besteak beste. Orain, asto gainean joaten da mairua eta nahi dute zaldi gainera pasatzea. Jose Luis Kortabarria Mairuaren Alardearen Elkarteo presidenteak esan digunez, "aurkitu dugu argazki bat, aspaldikoa, non agertzen den mairua zaldi gainean eta orain baino jantzi dotoreagoarekin".

## MAIRUAREN ORDEZKOIA

Herrian zabaldu da zurrumurr bat edo beste Santiago Peña orain arteko mairuaren ordezkoa badagoela dioenik, baina Kortabarriak esan digu oraindik ez dela pausorik eman ordezkoaren bila.

Aldaketa noizko egingo dituzten galdetuta, Jose Luis Kortabarriak hauxe esan digu: "Espero dugu 2009ko alardeko aldaketa batzuk gertu izatea, oraindik badago-eta denbora horretarako".

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19



> KIROLA

## Umeendako errugbi saioa egingo dute domeka goizean

Elgetako Udalak antolatuta, umeek errugbia gertutik ezagutzen aukera izango dute domeka goizean.

Antolatzaleek 11:00etarako deitu dituzte gazteak bolatokiko kantxan. Zeregin horretarako, Elorrioko errugbi taldeko kideak eterriko dira Elgetara. Gazteek errugbia zer den eta nola praktikatzen den ikasiko dute.

Ariketa batzuk ere antolatuko dituzte lehenengo saio horretan.

> KIROLA

## Zabalik izenematea Gabonetako pilota txapelketarako

Federatu gabeko helduendako binakako pilota txapelketa egingo dute aurten ere Elgetan. Urtero moduan, lau tertiaren barruan egingo dute, baina aurten bi mailatan banatuko dituzte parte hartzialeak. Txapelketa bat egingo dute 40 urtetik gorakoek eta beste bat 40 urtetik beherakoek. Txapelketa urrian hasiko da. Izenemateak hil amaierara arte jasoko ditu Fernando Zenitagoiak.

## > KIROL ZERBITZUA Izena emateko epea zabalik dago udaletxean

Udalak urriaren 1ean ipiniko du martxan Udaleko Kirol Zerbituetako eskaintza. Izena emateko epea zabalik dago. Interesatuek bolatokian edo udaletxean aurkituko dituzte bete beharreko inprimakiak. Zerbituetan lehen aldiz izena ematen bada soilik bete beharko da orri hori.

Besteak beste, yogan, helduendako batukan, tai txian eta psikomotrizitatean izena emateko aukera dago.

## > HEZKUNTZA Zabalik dago izena emateko epea haurreskolan

Elgetako haurreskolan zabalik dago izena emateko epea. Hamar ume har ditzake haurreskolak, eta ikasturte hasiera honetan lauk erabiltzen dute zerbitzua.

Haurreskolatik jakinari dute interesatua garaiz dabilzala, ez da-eta bete eskolaren edukieraren %60. Informazio gehiago jasotzeko haurreskolara joan behar da. Koordinatzailea Laura Martin da.

AISIA > ASTE BUKAERA

# Baserritarren azoka, Sagardo Eguna eta Vespa eta Lambretta motorren topaketa asteburuan

Baserritarren azoka goizeko hamaiketan zabalduko dute herriko plazan eta arratsaldeko seietan hasiko da Sagardo Eguna

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA  
Aste bukaeran ez dugu aspertze-ko denborarik izango Elgetan. Biherriko baserritarrek azoka ipiniko dute plazan 11:00etarako 13:00etara. Udaletik jakinari-zi dute 12 baserrik eman dutela izena. Besteak beste, herrian egindako barazkiak, frutak, ogia, eztia eta gazta erosio ahal izango dira azoka horretan.

Arratsalde partean gaztetxe-ak antolaturiko Sagardo Egunak hartuko dio lekuoa baserritarren azokari. 18:00etan zabalduko dira herriko hainbat txokotan



AZOKA Hirugarren aldiz egingo dute azoka herriko baserritarrek.

GOIENKARIA

ipinitako sagardo kupelak. Ordu berean egingo da urteroko tortilla lehiaketa. Gauean, Plan B, Afonta eta Golpe de Estado taldeek emanaldia egingo dute gaztetxeen, 22:30ean hasita.

### VESPAK ETA LAMBRETTAK

Domekan, 09:00etatik aurrera Vespa eta Lambretta motorren III. topaketa egingo da. Moto-rrak, ehun bat inguru, 12:00ak arte egongo dira ikusgai plazan.

## ETXEBIZITZA

### Hiru etxebizitza tasatu, zozketarako

Uruburuko hiru etxebizitza tasatu daude jabe zain. Arra-roi ezberdinengatik, hasiera-ko onuradunek atzera egin dute. "Etxebizitzari ezetz esan diotenek idatziz erantzun digute", adierazi du Oxel Erostabe alkateak. "Kontratua sinatura zutenek eta atzera egin dutenek uko egitearen agiria sinatu dute". Udalak itxaron zerrenda zeukan, baina agortu egin da. Hala, etxebizitza horiek atzera ere zozketatuko egin beharko dira.

L.Z. > ELGETA  
Uruburun hiru etxebizitza tasatu daude jabe zain. Arra-roi ezberdinengatik, hasiera-ko onuradunek atzera egin dute. "Etxebizitzari ezetz esan diotenek idatziz erantzun digute", adierazi du Oxel Erostabe alkateak. "Kontratua sinatura zutenek eta atzera egin dutenek uko egitearen agiria sinatu dute". Udalak itxaron zerrenda zeukan, baina agortu egin da. Hala, etxebizitza horiek atzera ere zozketatuko egin beharko dira.

### BALDINTZA PLEGUA

Egunotan hiru etxebizitza tasatu horien zozketa berrian parte hartu ahal izateko baldintza plegua prestatzen ari dira Elgetako Udalean.

Baldintza horiek osoko bil-kuran onartu beharko dituzte. Gero, epe bat zabalduko da interesatuek izena eman dezaten. Orduan egingo da zozketa. Udalak espero du zozketa hori "epe laburrean" egin ahal izatea.



LARRAITZ ZEBERIO

## Elgetar taldea Erriberrin (Olite)

Eguaztenean egun pasa polita egin zuen argazkiko elgetar taldeak Nafarroa aldean. Erriberrira (Olitera) egin zuten txangoa, Erretiratuen Elkarteak antolatuta. Erdi Aroko hiribildun barrena ibili zen 60 laguneko taldea. Bazkaldu eta ospe handia duen Erriberriko gaztelua ere bisitatu zuten. Paregabeko eguraldia izan zuten lagun.



Pagatza Indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

**CIE Recyde**

**CIE RECYDE, S.A.U.**  
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
[www.cieautomotive.com](http://www.cieautomotive.com)

**AENOR**  
**ER**  
Empresa Registrada  
ER-0182/2/95  
ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TTS 16949

KULTURA &gt; SAGARDO EGUNA

# 14 sagardogilek hartuko dute parte aurtengo Sagardo Egunean

Sagardogileek 8.000 litro sagardo ekoitzu dituzte aurtengo denboraldian

Markel Arriolabengoa egingo du aurten festari hasiera emateko txotxa

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Egun handia izango da domekako Aramaion. Sagardo Eguna ospatuko dute eta herriko 14 sagardogile kalera aterako dira aurreko urtean batutako sagarek emandako sagardoa eskaintza.

Iazko urrian sartu zuten zukua kupeletan eta horrelaxe mantendu zuten otsailera arte. "Otsailean kupelak zabaldu eta sagardoa dastatzen hasi ginen, apirilaren amaierarako itxura ona zeukan eta kupeletatik atera eta botiletan sartu genuen" azaldu du Juan Antonio Aretxaga Aramaiko Sagarzaleen Elkarteo kideak. Baserritar batzuek, baina, arazoak izan dituzte sagardoa fermentatzeko orduan: "Pasa zen negua oso gogorra izan zen; hotz handia egin zuen. Sagardoa fermentatzeko 16 edo 17 gradu dira egokienak eta, hotz handia egin zuenez, kasu askotan kosta egin zitzaion sagardoari fermentatzea", dio Aretxagak. Hori ere nabarituko da domekan dastatuko den sagardoan. Denetarikoak egongo dira, goxoagoak eta garraitzagoak, gustuak ere denetarikoak dira-eta.

Aramaioko sagardogileak hasi dira, dagoeneko, datorren urterako sagarrak batzen. Baino orain arte jasotakoak zuku pasteurizatua egiteko erabiliko dituzte, sagardoa egiteko berdegiak daude-eta oraindik. "Pasa zen astean hasi ginen sagarrak batzen. Baino sagardoa egiteko



Aramaioko Sagarzaleen Elkarteo kideak.

GOIENKARIA

berdegiak daude oraindik. Espero dugu hilabete barru sagardoa egiten hasteko moduan egotea", azaldu du Aretxagak.

Denboraldi honetan, guztira, 18.000 litro atera dituzte Aramaiko sagardogileek: 10.000 litro zuku eta 8.000 litro sagardo.

Aurtengo sagardoa, gainera, berezia eta ezberdina izango da. Izan ere, Aramaiko Sagarzaleen Elkarteoek makina berriak erosio dituzte sagarrak txikitu eta prentsatzeko. Beraz, eskuz beharrean, makinek prentsatzeko sagardoa eskaintzen den lehenengo Sagardo Eguna izango da aurtengo. Aretxagak uste du, baina, jendeak ez duela alde handirik nabarituko: "EZ dut uste jendea konturatu ere egingo denik. Azken finean, makinek prentsatu bakarrik egiten dute eta sagardoaren gakoa fermentazio prozesuan dago".

**SAGARDO EGUNEKO EGITARAU**  
11:30ean hasiko dute egun handia, herriko trikitilariek kaleak girotxearekin batera. 12:00etan herriko bertsolariek eta, ondoren, Sagarzaleen Elkarteo lehen-dakariak agurra egingo dute.

Aurten, Markel Arriolabengoa txirrindularia gazteak egingo du txotxa.

Sagardoaz gain, taloak eta Aramaiko artzainen gaztaz egindako pintxoak dastatzeko aukera ere egongo da.

**Markel Arriolabengoa > Txirrindularia**

## "Lotsati samarra naiz eta, egia esan, berriak bat-batean hartu ninduen"

**A.B. > ARAMAIO**

Sagardo Eguna protagonista bat izaten du urtero-urtero; egunari hasiera emateko txotxa egiten dueña. Aurten, Markel Arriolabengoa txirrindularia gazteak izango du oho-rea. Lotsa apur bat ematen diola eta zer esango duen oraindik ez dakiela azaldu digu.

Noiz jakin zenuen aurtengo txotxa zeuk egingo zenuela?

Orain dela aste pare bat. Bat-batean hartu ninduen berriak. Gehienetan herriko bertsolariak izaten dira eta aurten kirolari bat nahi zuten, herrian kirola bultzatu nahi dute-eta. Ni lotsati samarra naiz eta ez zidan grazia handirik. Azken momentura arte bes-te kirolari bat topatzen saiatu naiz, baina ez da inor animatu.

Oso emaitza onak lortu dituzu aurten denboraldian.

Oso pozik nago. Bi lasterketa irabazi ditut eta azken sailkapenean bosgarren postuan geratu naiz.



GOIENKARIA

Datorren urterako animatuta, orduan?

Ezdakit zer gertatuko den. Palentziara noa Ingeniaritzako ikastera, eta ikusi egin beharko da nola jarraitu dezaketen txirrindularitzarekin.

Diskursoa prestatuta daukazu?

Ideiarik ere ez daukat; Sagardo Eguna dela-eta, agian, neuk ere sagardo pare bat edan beharko ditut txotx egin aurretik. (Barre).

## ERRETIRATUAK

# Urteko bazkaria egingo dute domekan

Bazkarira joan nahi dutenek bost euro ordaindu beharko dituzte Vital Kutxan

**A.B. > ARAMAIO**

Aramaioko erretiratuek Sagardo Eguna apur bat gehiago luzatuko dute. Izan ere, urteko bazkaria egingo dute domekan bertan. 12:00etan, lehenengo, meza egingo dute urtean zehar hildakoen alde. Sagardo pixka bat dastatu ondoren, bazkaria egingo dute; 14:30ean izango da hori.

## ELIZONDORA TXANGOA

Alaia elkartekoek, bestetik, txangoa antolatu dute Elizondora. Irailaren 26an egingo dute irteera. Izena emateko 30 euro ordaindu beharko dira Euskadiko Kutxan. Aramaiotik 08:30ean irtengo dira, Irurtzunen geldialditxoa egingo dute eta Urdazubiko kobazuloak bisitatuko dituzte Elizondora iritsi aurretik.

## ORIXOL ELKARTEA

# Aranaren omenezko mendi ibilbidea

Irailaren 27an izango da, eta 08:30ean irtengo dira kiroldegitik

**A.B. > ARAMAIO**

Orixol Mendi Elkarteak Aitor Aranaren omenezko XII. mendi ibilaldia antolatu du aurten. Hilaren 27an izango da; sei eta zortzi ordu artean iraungo du eta izenematea 07:30ean zabalduko da. Partehartzaile bakotzak zapta euro ordaindu beharko ditu. Ibarratik atera eta San Adrian, Kurtzeta, Zubero, Albina, Mirugain, Marixeka, Orixol eta Kasatxotik igaroko da ibilbidea.

Ibilbide osoa egiten duten parte-hartzaileek diploma bana jasoko dute. Orixol elkartekoek janariak eta edariak banatuko dituzte Zubero, Marixeka eta Kasatxo puntuatuan. Ibilaldia bukatzean, kiroldegian dutxatzeko aukera egongo da.

## Iturrieta Sagardotegia

### Bertako sagardoa

Astelehenetik asteazkenera, enkarguz bakarrik zerbitzatuko da

Zabalik ostegunetik domekara



ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) TI.: 945 445 385 - 685721503

Oliteko parajeak eta kontserba lantegia ikusiko dituzte bihar

Ilunkaran, Iruñera joango dira, eta bertan egingo dute lo

Hamazortzi emakumek eman dute izena, eta autobus txikian doaz

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA  
Udazkenean egiten dute irteeratxo Sorginak elkarteko emakumeek azken urteotan, eta Nafarroa aldera joango dira aste bukaeran. Iaz baino kide gutxiagok eman dute izena; hala ere, talde polita osatuko dute 18 emakumek.

**BARAZKIAK ETA KONTSERBAK**  
Iaz legez, Nafarroa aldea aukeratu dute aste bukaera pasatzeria joateko. Iaz, baina, iparralderia egin zuten –Zugarramurdi–, eta aurten, erdialdera. Iruñea inguruau dauden herriak eta parajeak ezagutuko dituzte. Biher (08:30) irtengo dira autobus txiki bat, eta Olite aldera jo. Gaztelu dotorea, paradorea, ardoaren gaineko museoa eta beste hainbat kontu ezagutuko dituzte bertan. Ospe handia duten Nafarroako kontserba lantegietako batire egingo diote bisita; gainera, piper sasoian doaz, eta herri askotan topatuko dituzte pikillo piper goxoa. Egun pasa ostean lo egiteko Iruñera joko dute, eta domika ere bertan pasatuko dute.

IRTEERA > SORGINAK EMAKUME ELKARTEA

# Nafarroa erdialdea ezagutzera doaz 'sorginak' aste bukaeran



Sorginak emakume elkarteko kideak Nafarroan eta Lapurdin izan ziren iaz, eta Zugarramurdiko sorginen museoa ezagutu zuten.

SORGINAK

**20 URTELTIK GORAKO IBILBIDEA**  
Gatzagako emakume elkartea 20 urtetik gora ditu. 16 urtetik hasi 80 urtetik gora dituzten emakumeak daude, eta adiskidetasun

harreman estua dago guztien artean. Lehenengo urteko bidaia Parisera egin zuten, eta ordutik hona urtero antolatzen dute. Azken urteotan ez dira urrun joaten

–emakume asko adinean aurreira doazelako–, baina hasierako giroa eta umore ona ez dituzte galdu, eta luzaroan jarraitzea gurako lukete. Bidaiaz gain, martxo-

aren 8an bazkaria egiten dute urtero Gure Ametsa jatetxeen. Eta emakumeen interesekoak diren ikastaroak eta berbaldiak antolatzen dituzte.

**EHIZA** > BATZAR OROKORRA

# Ehiza postuak banatuko dituzte

Leintz Gatzagako ehiza taldeak batzar orokorra egingo du biher, Garro jauregian, eta 36 bat bazkide daude deituta

**M.A. > LEINTZ GATZAGA**  
Leintz Gatzagako ehiza taldean dauden ehiztariek batzar orokorra daudet biher. Zuzendaritzat batzordeak adierazi du bazkide guztiak parte hartza komendela, hainbat gai daudelako eztabaidatzeko. Gainera, urrian hasiko den uso paserako postuen zozketa egingo dute.



Ehiztari bi Gatzagako postu baten.

GOIENKARIA

Ehiza taldeak 36ren bat bazkide ditu, gatzagarra guztiak –Gatzagan jaioak edo bertan bizi direnak–. Orain, gainera, Gatzagan erroldatuta egotea eskatzen dute taldean sartzeko. Taldeko presidente Aitor Diaz de Menabil da.

**POSTU BAKOITZEAN BI LAGUN**  
Ehiza sasoia dagoeneko zabalduta dago, baina uso pasa urrian zabalduko dute. Urritik azaroaren erdira arte iraungo du, eta tarte horretan herrian dituzten postuetan egoteko aukera izango dute ehiza taldeko kideek. Udalak ehiza taldearen eskuetan utzita ditu 18 postu –beste batzuk Ehiza Federazioaren eskuetan–, eta horiek zozketatuko dituzte biher. Postu bakoitza bi lagunendako da, eta egunean postu baten egoteko aukera izango dute urriaren 1ean hasita. Hala, taldeko kide guztiak postu guztiatik pasatuko dira, eta 18 egunak pasatutakoan errepikatu egingo dituzte postuak.



M.A.

# Eskaintza bat Gaztainuzketarako

Gaztainuzketako mendi etxeak kudeatuko dituen norbait topatzeko lehiaketa deitu zuen Udalak orain hilabete inguru. Eskaintzak aurkezteko epea astelehenean bukatzen, eta bakarra jaso dute udaletxean. Badakite gatzagar batek egin duela, baina oraindik ez dute zabaldu egindako eskaintza. Behin zabalduta, udal ordezkariek erabaki beharko dute baldintza guztiak betetzen dituen edo ez, eta mendi etxeen ardura eman edo ez.



Rallyprintean esku hartu behar zuten pilotuak tentsioa baretzeko elkarrekin berbentan, iaz.

JOSETXO ARANTZABAL

**AUTO LASTERKETA > ARAMAIOKO 7. RALLYSPRINTA**

# Inhar Amenabarrek hartuko dio errelebua bihar Haritz Errastiri

Errastirendako azken lasterketa izango da; lehenengoz korrituko du Amenabarrek

15:30ean hasiko dute lasterketa; ordubete lehenago itxiko dute errepeidea

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

Azpiko Racing taldeak antolatuta bihar egingo dute 7. Aramaiko Rallysprinta, eta antolatzaleek dagoeneko aurreratu dute Euskadi Txapelketan lehian dabiltsan oilarrek ez dutela kale egingo. Hala, Aramaion izango da bihar iazko irabazole Santi Arteixe (Peugeot 307 WRC), eta garai-pena errepika ez dezan gogor lehiatuko dira Gorka Apalantza (Subaru Impreza WRC), Xabier Lujua (Scoda Octavia WRC), Joseba Zapiain (Peugeot 206 WRC), Ramon Apalantza (Mitsubishi WRC) edota Iñaki Alberdi (Porsche 911 GT3).

Pilotu horietako bat izango da bihar azkarrena, gainontzeko autoak beste maila batean izango direlako. Motelago joango dira,

baina horietako askok aurrekoek baino ikuskizun handiagoa emango dute, seguru.

#### NOBEDADEAK IZANGO DIRA

Biharko lasterketara begira hainbat berritisun izango dira. Batek, orain arte kale egin ez duten Garagartzako Orobengoa anaiaek ez dira lasterketan izango. "Anaia Iker mekaniko lanetan dabil Txus Jaio eta konpainiarekin, eta kanpora joan behar izaten da asko. Kopilotu gabe geratu naiz aurten, eta inork ez du kopilotu lana egin gura", esan du umorez Igor Orobengoak.

Kopilotua izateak dituen arriskuak ondo ezagutzen ditu antolatzale lanetan dabilen Ander Oioneak. Orain arte Haritz Errastiren kopilotu, Oioneak iazko istripuaren ondoren erabaki zuen lasterketak kanpotik jarraituko zituela: "Kolpearen ondorioz ez genuen min handirik hartu, sustoa izan zen gehiago. Baina, etxeak korritzeke ez naiz berriro kopilotuaren lekuak jarriko. Iaz bero-bero ateratzen, eta lehenengo txandan irten ginen errepidetik. Egia esateko, ez da komien norberaren etxeak korritzea".

Haritz Errastik ere ondo baino hobeto gogoratzen du une hura, autoa gidatzen zebilelako. Baina, Aramaikoak zapore gozo-

arekin amaitu gura du rallyetan izan duen ibilbidea, eta bihar irteera puntuari izango da, Eneko Artetxe eibartarra lagun due-la (Citroen AX Sport). "Iaz ere azken lasterketa izango zela esan nuen, baina autoa kompondu eta aurten bai, lasterketa egin eta autoa saltzeko asmoa daukat; gainera, autoa ondo dabilela era-kustea da nire asmoa; dena dela, iaz baino lasaiago irtengo gara, seguru".

#### ERRELEBOA, INHAR AMENABARREK

Errastik utziko duen lekuak, baina, beste aramaioar batek hartuko du, Inhar Amenabarrek. 20 urteko gazte horrek gazte-gaztetatik izan du autoekiko zaletasuna: "Automobilgintza ikasten egin nituen bi urte, eta neskala-gunak animatuta iaz erosio genuen lasterketetako autoa". Neskala-gunak, Agurtzane Zubia lesakarrak, ere zaletasun bera du, eta biak lehiatuko dira bihar R5 GT

Turbo autoarekin: "Biharkoa aur-tengo laugarren lasterketa izango da baina guk gura duguna proban parte hartu, ondo pasatu eta garrantzitsuena lasterketa bukatzea da. Horrelakoetan ondo ordaintzen da buru barik irtetear, eta guk badakigu autoa dauka-gun moduan ezin dugula ezer irabazi. Horretarako diru mordoa gastatu beharko genuke motorrean eta bestelako osagaietan, eta ez gaude horretarako".



Rallysprintaren ibilbidea, auzoz auzo. Ibilbide-tramua 6,7 kilometro luze da.

**Jaitsierako zatia azkarrago egin ahal izango dute bihar**

Aramaiko rallysprinteko ibilbideak ez du aldaketarik izango. Iaz ahalegindu ziren ibilbidea kurba ikusgarri batekin luzatzen, baina arriskutsuegia zen, eta bertan behera utzi zuten. Aurtentz eez dute horrelakorik egingo, baina egia da Gantzatik beherako tramua inoiz baino azkarrago egin daitekeela, errepeidea garbi dagoelako.

Orain hilabete gutxira arte harri txikiz beteta zegoen errepeidea, eta horrek zaildu egingo zukeen pilotuen lana. Baina ez dago horrelako arazorik.

> ESKUBALOIA

**Bergara eta Eibarko Haritza izango dira zein baino zein gehiago Mikel Deunako finalean, bihar**

Bihar, 17:30ean jokatuko dute Bergarak eta Eibarko Haritzak Mikel Deunako finala. Bi talde horiek sailkatu ziren joan den astean jokatutako finalerdieta. Bergarak 25-18 hartu zuen mendean Zarautz, eta Haritzak 29-26 hartu zuen mendean etxeen jokatzen zebilen Aloñar.

Bergararen eta Haritzaren finala baino lehenago, baina, Aloñar Mendik eta Zarautz 3. eta 4. postuengatik jokatuko dute. 16:30ean izango da norgehiagoka hori.

> SQUASH

**Euskadiko Taldekako Squash Txapelketa egingo dute, gaurtik hasita, Musakolako kiroldegin**

Ake Squash taldeak antolatuta Euskadiko Taldekako Squash Txapelketa egingo dute gaurtik hasi eta domekara arte, Musakolan.

Txapelketa horretan lehiazteko derrigorrezkoa da federatuta egotea, eta taldeka denez, talde bakoitza hiru lagunek osatuko dute. Alberto Ferreirok egingo ditu epaile lanak, eta jokalariak arduratu beharko dira asteburuko ordutegien berri izateko. Horretarako deitu 656 736 017 telefono zenbakira. Joko bakoitza 11 tantotara izango da.

> TXIRRINDULARITZA

**Asteburuan Oñatin edo Bergaran erabakiko da nork irabaziko duen Lehendakari Txapelketa**

Oraingo asteburuan bi hitzordu izango ditugu txirrindularitzan. Zapatuan Oñati Saria jokatuko dute (10:00), eta domekana San Martin Lasterketa egingo dute Bergaran (10:00). Biak hala biak dira Lehendakari Txapelketarako puntuagarriak, eta sailkapeneko aurreko postuak estu-estu daudela kontutan hartuta, ibarrean era-bakiko da nork jantziko duen txapela. Orain momentuan, Jon Pardok (Seguros Bilbao) 103 puntu ditu, NaturGas taldeko Noel Martinek 99 puntu eta Belca taldeko Aitor Ocamposek 98 puntu.

FUTBOLA > PREFERENTEA

# Aretxabaleta, etxeko lehenengo puntuen bila

Lehenengo jardunaldian Berioren zelaian lortutako puntuaren ostean, UDAk etxeko zaleen aurrean estreinaldi ona egin gura du domekan

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Aretxabaletak Pasaiako taldearen bisita izango du domeka arratsaldean Ibarrako futbol zelaian (16:30). Pasaiarrek ondo hasi dute liga txapelketa, joan den astean etxeen 2-0 hartu zuten-eta mendean Euskalduna. Aretxabaletak, berriz, Berioren zelaian 85. minutuan berdinduta puntu baliootsua ekarri zuen Donostiatik. Dena dela, Berio moduko kontrario gogor baten aurrean hainbat gol aukera garbi izan zituzten Gordobil eta Arenazaren mutilek. Orain, etxeen gurako dute estreinaldi ona egin.

Mondrak eta Aloña Mendik, berriz, etxetik kanpora jokatuko dute ligako bigarren jardunaldia.



Aritz Igartua, iaz, Eibartarraken kontrako partiduan.

GOIENKARIA

Arrasatekoak lehenengo jardunaldian lortutako hiru puntuak ematen duten lasaitasunarekin abiatuko dira bihar Tolosara (17:00). Baino, Tolosak ere bikain hasi du liga, etxetik kanpora, Anaitasunari erreppaso polita emanda (0-3).

**ALOÑAK MUNDARROREN ZELAIAN**

Aloñak Mondrak joan den astean kontrario izan zuen Mundarro izango du aurrean bihar (16:30). Zubieren mutilek Azkoagainen bigarren zatian egindako lana erreppikatu gurako dute, eta lehenengoan gertatutakoa ahaztu.

**VII. RALLYSPRINT'a ARAMAIXO - ARABA**  
2008 irailak 20  
1 GO MANGA, 15:30EAN  
BIDE MOZKETA, 14:30EAN 3 MANGA

**Sponsors Logos:**

- ETB
- EAFFVA
- AZPIKO
- ESCUADERIA HAMAIIKA
- BERGA RACING
- JUBAR
- PERIFIPAR, S.L.
- LurCorri, S.L.
- BESTIDE S.A.
- UDALAITZ, S.L.
- KANPAZAR FIAT
- Cristalería Errasti, S.L.
- UGARTE
- GARAJE IBABE C.B.
- Ibabe
- DRTeaga
- OPEL
- EPELE
- JMA
- BEREYA
- LETÉ TOLDOAK
- CAJA LABORAL
- GOiena
- JOMA
- BIRIBIL TABAKOAK, EDARIAK
- KANPAZAR KERRETEGIA
- Lasagabaster
- AMG auto oak
- FIRE-NORT
- Triximela
- Gallastegi MOTOR SPORT
- GRUAS IBAI
- Izar cars
- BOLINTXO OLINDEGIK - GOZOTEGIAZ



MARTIN ARRIOLABENGOA

## Arriolabengoa eta Roldan, Aiegin aurrean

Joan den astean Aiegin (Nafarroa) egin zuten mendiko bizikleta lasterketan erretreatuko Markel Arriolabengoa azkarrena izan zen gazte mailan, eta elitean bigarren sailkatu zen Iñigo Roldan. Gorputzaldi onean dira bi ziklista horiek, irailaren 7an Biriatur Roldan izan zelako Master 30ean azkarrena, eta Arriolabengoa hirugarrena.



## DAGOENEKO SALGAI

DVDA eta CDa.

Danbaka Musika Lehiaketako 2. edizioko 20 taldeen abestiak eta ikus-entzunezkoak.

Estrak, argazkiak, bideoak... Hiru orduko iraupena.

**13 euro**

**ESKAINTZA BEREZIA:**

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunendako **10 euro**.

Hemen salgai:

**ARRASATE:** Otarra lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**BERGARA:** Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**ELGETA:** Espaloia kafe antzokia: Maala 2. 943 78 90 85

**DANBAKA)))**



**IEFPS Aretxabaleta GLHBI**

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak  
LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatuta)



### Ikastaroak

#### FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA ( 2. maila )

**Modulua: Fabrikazio mekanikoko makinaren prestaketa eta programazioa (275 ordu )**

CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa

Orduak

Aurreikusitako datak

46

Azaroa 2008

**Modulua: Txirbil-harroketako bidezko mekanizazioa (300 ordu )**

CNC fresatzeko makinako mekanizazioa

50

Urtarrila 2009

**Modulua: Automatismo elektrokoak , pneumatikoak eta hidraulikoak (185 ordu )**

Automatismo elektroko kableatuak

45

Urtarrila 2009

**Modulua: Fabrikazio mekanikoko sistema osagarriak (110 h )**

Roboten programazioa

40

Otsaila 2009

**GALDAKETA- FUNDIZIOA ( 3. maila )**

**Modulua: Galdaketa eta publimentalurgia prozesuen definizioa ( 210 ordu )**

Grabitatezko galdaketa prozesuak

20

Martxo 2009

**Modulua: Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren materialak ( 90 ordu )**

Burdinazko metalak

50

Abendua 2008

Metal arinak

50

Urtarrila 2009

**METAL - ERAIKUNTZAK ( 2. maila )**

**Modulua: Metal eraikuntzen garapen geometrikoak ( 145 ordu )**

Galdaragintza eta egituren planoak interpretatzea

60

Azaroa 2008

**Modulua: Giro naturaleko soldadura ( 310 ordu )**

Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura

80

Azaroa 2008

Elektrodo estali bidezko topekako soldadura

80

Abendua 2008

Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura

80

Urtarrila 2009

Soldadura oxiazetilenikoa / oxigas bidezkoa

70

Abendua 2008

**Modulua: Giro babestuko soldadura (215 ordu )**

Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura

50

Martxo 2009

Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura

50

Martxo 2009

Posizio horizontaleko TIG soldadura

50

Apirila 2009

Beste posizio batzuetako TIG soldadura

50

Maiatz 2009

**AUTOMOZIOA ( 2. maila )**

2 aldiko motor termikoak, Wankel motorrak eta horien lubrifikazio eta hozte sistemak. Mantentzea, egiatzapena eta konponketak

30

Urtarrila 2009

**TRESNERIA ELEKTRONIKOA ( 2. maila )**

**Modulua: Oinarritzko instalazioak (110 ordu )**

Etxebizitzen eta merkataritzako lokalaren barrukoko instalazioak

60

Azaroa 2008

Kualifikazio Sistematik Kanpo dauden Etengabeko Ikastaroak

Elektrodo bidezko soldadura. Soplete oxiazetilenikoa.

18

Urria 2008

Elektrodo bidezko soldadura. Soplete oxiazetilenikoa.

18

Urria 2008

**Ikastaroak arratsaldeko 15:30 eta 21:00 artean emango dira • Informazio gehiago eta inskripzioak IEFPS Aretxabaleta GLHBI , Etxebarri auzoa, z/g Tfn.:943-7979 00**

Webgunean: [www.iaretxabaleta.com](http://www.iaretxabaleta.com)





> MARIA CRUICKSHANK  
Aktore eta ikasle, Goenkale saioan agertuko da, 18 urteko oñatiarra. Argazkigintza ere gustuko du Mariak > 50



## > HITZAK ORBAINETAN

Karmele Igartuaren liburua kalean da > 45

## > GOIENKARIA

sarean irakur daiteke Goiena.net atarian, edozein tokitatik > 51

# Kubart: Kubako artearen ateak gurera zabalduz

Kubart ekimenaren helburua Kubako artea Euskal Herrian zehar ezagutzen ematea da

Gurean estreinatuko da Kubart; gaur Vanito Brown konpositoreak 3.60aretoan joko du, 22:30ean

Oihana Barato aretxabaletarra eta Mentxu Sendino bermeotarra dira proiektu horren sustatzaileak

**JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA**  
"Salsa ez da Kuban egiten den musika estilo bakarra". Oihana Barato aretxabaletarraren hitzak dira, Kubart izeneko ekimenaren sortzailearen adierazpenak, hain zuen. Helburu nagusia ez bada ere, hain hedatua den topiko hori ere ezeztatzeko balio nahi du Kubart proiektuak. Musika arloan estilo aniztasun handia baita go Kuban.

Euskal Herri mailan jardungo du Kubart-ek, eta gure ibarren antolatu dute lehen ekitaldia. Gaur bertan, Arrasateko 3.60 aretoan, Vanito Brown-en emanadlia izango da, eta sei euroren truke, Habana Abierta talde ospetsuaren abeslari kubatarraz gozatzeko aukera izango da.

**JAIOSERRIA DEN EKIMENA**  
2008ko maiatzaren erdialdean jao zen Kubart proiektua. Hala ere, sortzaileek aspalditik zuten musika kubatarra Euskal Herrian zehar zabaltzeko ideia. Asmo hura, ordea, udaberrian gorpuztu zen, Vanito Brown-ek Baratori Habana Abierta taldearen Euskal Herriko ordezkaritzera bere gain hartzeko proposa-



KUBART KIDEAK Hamaika estilo jorratzen dituzten musikariez gain, bestelako artistak ere badira Kubart ekimeneko partaideak.

## MUSIKA ESKAITZA GURE IBARREAN

### Gurean goi mailako musika dastatzeko aukera izan da aspalditik

Debagoina aspalditik izan da goi mailako kontzertuen lekuko. Mundu osoan ezagunak diren musika taldeek jo dute gure ibarreko aretoetako taula gainean. Areto horietako bat, beste batzuen artean, Bergarako Jam aretoa da. Bertan, 1996an kontzertuak antolatzen hasi

zirenetik, Motorhead, Dover eta Loquillok jo dute, besteak beste. Patxi Osa aretoko arduradunak uste du musikaren merkatuan diskoen salmenta jaitsi izanak taldeak zuzenean jotzera behartu dituela. Hau da, gehien saltzen dutena zuzenekoak direla.

mena egin zionean. Brownen proposamena onartu zuen Baratok, baina ez hori bakarrik. Beste artista kubatar batzuengana ere zuzendu zuen bere arreta: Azkenaldian, Internet bidez, artista kubatar ugari ezagutu ditut, batez ere Estatuan bizi direnak. Orduan, galdera bat sortu zitzaidan: zergatik ez lagundu musikari hauei guztiei jotzeko lekuak aurkitzen?".

Martxan jartzear zegoen proiektuari, ordea, "zerbait" falta zitzaión, eta hutsune hori Mennixu Sendino bermeotarrak bete zuen; Sendino ere Kubako artearen jarraitzaile sutsua da. Bien arteko istorioa "nahiko xelebre" da. "1998. urtean leku berean geunden biok, kontzertu berean, eta Habana Abierta deskubritzen... gure artean ezagutu gabe", dio Baratok. Orain urtebetetik, Internet bidez ezagutu zuten elkar, antzerako musika entzuten zutelako. Euren artean adiskidetasun handia sortu zen. Orain, lagunak iza-teaz gain, lankideak ere badira, eta itxaropentsu daude antolatu duten lehen kontzertuan dena ongi irten dadin.

Eta, egia esan, badute arrazoi nahikorik lehen kontzertu horren aurrean itxaropentsu ego-teko. Izan ere, Vanito Brown urte askotako esperientzia duen musikaria da, konpositore ezaguna eta Kubako musikarien artean errespetu handia duena. Eta ez irlan bakarrik, Madrilen eta Miamiñ ere oso kritika onak jaso ditu.

**ARAZOAK EZAGUTZERA EMATEKO**  
Hala ere, Kubako artista guztiek ez dute Vanito Brown eta Habana Abiertaren zorterik izan irlatik kanpora ezagutzera emateko orduan. Hala, Kubarten helburu nagusia irlako kultura eta artea Euskal Herriari aurkeztea da. Ekimenak Kuba "adierazpen artistikoaren iturri bezala" aurkeztu nahi du. Baratoren arabera, artista kubatarra "ohiko kulturatik urrun daude irlako egoera politikoagatik". Horregatik, dio, "artisteek borroka gogorragoa egin behar dute kanpoan ezagutarazteko".

Ezagutzera emateko zailtasun horiek arindu nahi ditu (44. orrialdean jarraitzen du)

## Kubart: Kubako artearen ateak gurera zabalduz

(43. orrialdetik dator)

Kubartek. Kubako artistei begira, trebetasuna, eskaintza zabaleta eta errespetuzko tratua eskaintzen dizkiete.

Bestalde, Kubartek areto eta udaletxeei kultura proposamen berriak ezagutzeko aukera eskaintzen die, eta iusleogaok, berriz, musika ulertzeko eta bizitzeko beste modu batez goztuko du.

Gainera, Baratok adierazi du Kubartek jatorri geografiko bat lotutako kulturi zuzendutako elkarrean izan nahi duela: "Ez diziogu ateak inori itxiko, ezagutzen emateko aukera izan ez duten errealtitate artistiko guztientzat dago lekua", dio. Beraz, Euskal Herriko hainbat artista interesatzen dakeen gonbita egiten die Kubartek.

### KULTURA TRUKEA

Kubart proiektuaren beste helburuetako bat, irlako artea hemen aurkezteaz gain, bi herrialdeen arteko kultura trukena egitea da. Baratoren aburuz, batetik artista kubatarrek jotszeko lekuak behar dituztela, bestetik, "Euskal Herriak Kubarekin harremana sakontzea behar du, berez harremana berezia izan arren". Kultura eta arteari dagokionez, hutsunea ikusten du Baratok bi herrialdeen artean.



VANITO BROWN Gaur 3.60 aretoko taula gainean egongo da.

KUBART

### ZENBAIT TOPIKO APURTZEN

Musika kubatarra salsa mugatzen dela uste dugu askok; akats handia. Hor dago Baratok ezeztatu nahi duen lehen topikoa: "Kuban musika estilo pilo bat dago, egoera hutsean, edo fusio bikain batean".

Gaur protagonista izango den Brown-ek, esaterako, sona, bluesa eta popa nahasten ditu. Gainera, Kubarteko kide diren musikariekin jarraituz, urrian 3.60 aretora datorren Julio Hernan-

dez musikariak ohiko kubatar troba, bossa nova eta Brasilgo eraginak nahasten ditu. Baina funk apur bat eta voila estiloak jorratzeko gai ere bada. Dagoeneko dozena bat bakarlari eta musika talde dira Kubarteko partaide. Musika da nagusi, baina ez da Kubarten eskaintza bakarra, ilustratzaile eta diseinatzaile grafiakoak ere badaude. Izañ ere, ez da ahaztu behar Kubarten ateak adierazpen artistiko guztietara zabalik daudela.

Oihana Barato >  
Kubart-en sortzailea

## "Kubako musika izan zen irlaz maitemindu ninduena"

J.B. > BERGARA

Oihana Barato (Aretxabaleta, 1978) da Kubart ekimenaren bultzatzaile nagusia, Mentxu Sendino bermeotarrarekin batera. Kubart-en asmoa Kuba artistiko berri bat Euskal Herriaraztea da: "Idea berri-tzaile eta talentuz betea" dagoen Kuba, hain zuzen.

Nola uler daiteke aretxabaletar bat kubatar artea Euskal Herrian hedatzeko proiektu baten sortzailea izatea?

Nire eta Kubaren arteko maiatasun harremana uleraztua zaila da. 2000. urtean joan nintzen lehenengo. Ordutik gaur arte, irlarekin lotzen nauten hainbat gauza daude: lagunak, senarra eta erdi euskalduna eta erdi kubatarra den seme bat. Hala ere, Kubako musika izan zen irlaz maitemindu ninduena. Oraindik ere musika hori entzuten jarraitzen dut.



GOIENKARIA

### Nola hasi zen amodia istorio hura?

Data zehatz bat dauka: 1998ko uda, hain zuzen. Pirinioetan ospatu zen Dr. Music Festival jaialdia Habana Abierta taldeak jo zueneko. Musikaz aparte, haren moldeak txunditu egin ninduen. Esperientzia hark irlako artea ezagutzen eraman zidan, eta handik urtebeteara Kubara joan nintzen lehenengo aldi, ikasbidaian.

### Nondik sortu zen proiektua abiarazteko ideia?

Kubart ekimena, nire senarrari eta lagun bat esker sortu nuen, artista kubatar askok euren musika ezagutarazteko zuten beharrak bultzatuta, Kubako egoera politikoa dela eta.

**Gomendatzen dizut sariketa**

ANGRA DOS REIS ↑  
← MANGARATIBA  
← RIO DE JANEIRO

FILMES \* TAPETES \* COLCHAS \* CARTAO POS \* ARTESANATO DA REGIAO \* CHOCOLATE \* TRUFAS \* MAPA DA REGIAO

www.aizue.com

ALTITUDE 590 m

ARRASATEKO UDALA MUNICIPIO DE MENDIA  
Bergarako Udala

**Animatu zaitez!**

## Gomendatzen dizut sariketa

### Truka ezazu bidaiatzeko informazio praktikoa!

- **Sariak:** ikus entzunezko materiala edo gustuko oporralditxoa.
- **2 kategoria:** 12-17 urte eta 18-34 urte
- Ekarri gomendioa Gazte Bulegora edo idatzi [www.aizue.com](http://www.aizue.com) blogean
- **Epea:** irailaren 30a.



ERAKUSKETA > 'ERAIKUNTZ/CONSTRUCCIONES'

## Joxan Izaren erakusketa Donostiako Arteko galerian

Artista bergararrak hamahiru lan jarri ditu ikusgai urriaren 31ra bitartean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA  
Joxan Izaren *Eraikuntz/construcciones* erakusketa ikusgai dago Donostiako Arteko galerian urriaren 31ra bitartean. 1961ean Bergaran jaioa, Iza Oñatin bizi da aspalditik. Ibilbide luzea du dagoeneko margolaritzan, 1980an Gipuzkoako Artista Gazteen 22. erakusketa ibiltarian parte hartu zuenetik. Sasoi hartan Arte Ederren ikasketak egin zituen Parisen.

Donostiako erakusketan 13 lan jarri ditu ikusgai, tamaina handikoak eta ertainekoak. Eraikuntzaren gaineko hausnarketa egin du Izak.

### ASKATASUNERAKO ESPAZIOA

Izaren arabera, oriomene dago haren lanaren oinarrian: "Horrek begirada lantza eska-tzen du, sentsibilitatetik abiatuta sentimenduetara heldu ahal izateko. Askatasunereako espazio bat da nire proposa-mena". Esan bezala, erakusketa urriaren 31era arte dago zaba lik. Gros auzoko Arteko galeria astelehenetik larunbatera dago zabalik Iparragirre kaleko 4. zenbakian, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era.



Karmele Igartua BBK Euskaltzaindia saria eskuratu zuen iaz.

MIRARI ALTUBE

LITERATURA > POESIA LIBURUA

## 'Hitzak orbainetan' Karmele Igartuaren liburua kalean da

Aretxabaletarrak BBK Euskaltzaindia saria eskuratu zuen iaz lan horregatik

**M.A./E.M.** > BERGARA

*Hitzak orbainetan* poesia liburua aurkeztu berri du Karmele Igartua aretxabaletarrak. Aipatutako lanak BBK Euskaltzaindia saria eskuratu zuen joan den urtean. Kurtzebarri eskolako ira-

kaslea da Igartua eta honako hau bere lehenbiziko lana da.

Egilearen arabera, hitzek duten boterea da liburuak erakus-ten duena: egon, gelditu, pau-satu eta esan bezalako kontzeptuez osatua dago. Beste esan eta

adieraztean datza Karmele Igartuaren lana, poesia sentimendu pertsonaletatik atera eta bestee-nya egitean hain zuen.

Poesia bakoitzak nortasuna badu ere, gaietik badute elkarren artean halako lotura bat. Liburuaren izenburuaren esanahiak batu egiten ditu elkarren artean poesiak. Liburuko azken poesia da muina definitzen duena.

> BERGARA

### Moises Azpiazuren oriomenez, dantza askatuko txapelketa jokatuko da gaur Udal Pilotaleku

Gaur, egubakoitza, bikote nagusiendako dantza askatuko txapelketa izango da Bergarako Udal Pilotaleku, Moises Azpiazu zena-en oriomenez. Zortzi bikote izango dira lehian 19:30etik aurrera. Aurtengo txapelketaren 24. ekitaldia izango da. Partaideen artean Debagoieneko ordezkarri bakarrak Bergarako bi bikote izango ditugu: Mikel Igartua eta Ibane Basetak osatutako eta Haritz Arrillaga eta Amaia Bolinaga.



**IEFPS Aretxabaleta GLHB**

Etxebarri auzoa, z/g  
Tel.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55  
E-mail: ia@iaretxabaleta.com  
Web orria: www.iaretxabaleta.com



**Bi baldintza hauek betetzen badituzu,  
erraza da lan egiten duzun bitartean  
"Erizain laguntzaile" titulu ofiziala ateratzea**

Gutxienez 18 urte izatea eta

Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:


- 2.BBB
- LH1
- EE2
- DBH

**Etor zaitez IEFPS ARETXABAleta GLHBra eta informatu  
Matrikulazio epea irailaren 26an bukatzen da.**




## hildakoak

- Julian Agirre Ibarzabal. Arrasaten, hilaren 7an. 80 urte.
- Jesus Mari Landa Urtzelai. Eskoriatzan, hilaren 11n. 55 urte.
- Jose Bote Prat. Antzuolan, hilaren 11n. 66 urte.
- Juan Gualberto Gorosabel Etxagibel. Arrasaten, hilaren 12an. 81 urte.
- Juan Jose Aguilar Garrido. Arrasaten, hilaren 12an. 88 urte.
- Francisco Gomez Marquez. Bergaran, hilaren 12an. 60 urte.
- Esteban Lasaga Solaguren. Aramaion, hilaren 13an. 74 urte.
- Antonio Laskurain Urola. Aretxabaletan, hilaren 14an. 92 urte.
- Rosario Errasti Azurmendi. Arrasaten, hilaren 16an. 81 urte.
- Francisco Hernandez Aguado. Oñati, hilaren 16an. 79 urte.
- Felix Uriarte Galdos. Bergaran, hilaren 17an. 80 urte.



Gorka Cabello eta Eva Moreno arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Foruako Baserri Maitea jatetxeen. Ezkonbidaian Argentina eta Perura joango dira. Zorionak eta muxu handi bat etxe-koen partetik eta bereziki Malenen partetik.



Laura de la Hoz eta Julen Vicente arrasatearrak bihar, irailak 20, ezkonduko dira Arrasateko Udaletxeen. Australia eta Bali ezagutzen joango dira ondoren. Familia eta lagunen partetik, zorionak eta ondo pasa bidaian!



Roki arrasatearra eta Amaia gasteiztarra joan den zapatuan, irailak 13, ezkondu ziren. Nafarroako Zuñiga herrian izan zen ezkontza. Zorionak bikote! Zuen familia eta lagunen parte, zoriontsuak izan!



Segundo Galforsorok eta Miren Lardizabalek joan zen zapatuan, irailak 13, 50. urezko ezteiak ospatu zituzten. Eurekin batera ezkondu ziren Javiri eta Jaioneri zorionak eta muxu handi-handi bat familiaren partez. Hura zen parranda bota genuena!



Eugenio Lacalle eta Arantza Zubala artxabaletarrak irailaren 20an ezkondu ziren, orain 50 urte. Aste bukaeran bazkaria egingo dute familia osoarekin. Zorionak familiako guztion partetik!

### 1. URTEURRENA

#### Fernando Anduaga Zelaia




Lehen urteurreneko meza, zapatuan, irailaren 20an, 19:00etan  
Oñatiako Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### 1. URTEURRENA

#### Bixente Aranzabal Laskurain



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 21ean, 12:30etan Bergarako San Pedro elizan.

Bere emaztea: Aurelia Alustiza. Seme-alabak: Ines, Iñigo eta Josune, Rosa eta Ruben. Haren arimaren aldeko otozo bat eskatzen dizuegut.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### I. URTEURRENA

#### Mª Tere Etxaniz Larrañaga



Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 20an, 19:00etan, Oñatiako Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### 2. URTEURRENA

#### Iban Elejalde Ayastuy



Bigarren urteurreneko meza domekan, irailaren 21ean, 12:00etan  
Aramaiko San Martin elizan izango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

#### Juan Gualberto Gorosabel Etxagibel



Arrasaten hil zen 2008ko irailaren 12an, 81 urte zituela.


Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oriomenezko meza domekan, irailaren 21ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Arrasaten, 2008ko irailaren 19an.

### ESKER ONA

#### Esteban Lasaga Solaguren



Aramaion hil zen 2008ko irailaren 13an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Azkoaga - Aramaion, 2008ko irailaren 19an.

### MEZA

#### Tomasa Elkoroiribe Lazpiur

Misiolari domingotarra

Puerto Rican hil zen 2008ko abuztuaren 5an, 85 urte zituela.



Haren arimaren aldeko meza domekan, irailaren 21ean, 15:00etan  
Bergarako Santa Marina elizan izango da.

Anai-arreba Teresa, Martin, Luis Mari eta Jose Mari eta gainontzeko sendikoen izenean, aldez aurretik eskerrik asko elizkizunera joango zareten guzti.

Bergaran, 2008ko irailaren 19an.

### MEZA

#### Amparo Perez Perez Juan Riera Perez



Haien arimen aldeko hileta elizkizuna, astelena, irailak 22, 19:00-19:30ean, Bergarako Santa Marina elizan.

Beti izango zaituztegu bihotzean

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Babeslea:

**Euskalduna**  
**Hileta Zerbitzuak**  
Beilatekia  
Etengabeko zerbitzu  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

**hal**  
partidu  
munka

## bila-bila 7






## hitz gezidunak

	Hamai	▼	Udazken	▼	Irauten du	▼
	Basa	►	Ordaindu		Kontso-nantea	
	Errep., zurrumurru	►			Röntgen	►
	Sobera				Galdera	
Zikindu	▼	Handia	►	▼		
Ondoezak jo		Detekta-gailu				
* Irudiko zuhaitza	►					Korrikaren antolatzale
100, 1 eta 500	►		Txori mota	►		▼
			Musika nota		Nire	►
Arto irinezko opil	►	▼			Oxigenoa	
Nahia	►		Zintzoak	►		

GOIENKARIA

hieroglifoak: Kubatik.



## sudokua

8							7
	2		8	5	9		
1	6						
	8	4		1			
		5			4		
			7		9	8	
						3	2
		3	6	5		1	
7						4	

## hieroglifoak

Nondik dator Fidel?

Q ik

## hizki salda

Bizkaiko 5 hondartza

B	A	R	I	N	A	T	X	E
T	E	U	X	I	M	P	E	L
D	A	F	R	E	L	I	S	D
L	L	A	G	U	A	P	R	D
K	A	R	R	A	S	P	I	O
L	G	I	U	M	E	X	T	G
M	A	L	D	I	B	R	T	E
A	S	D	L	A	I	D	O	I
O	J	A	L	D	K	S	F	A

## bono fotoa



Nola du izena Arrasaten urtero zartuela antolatzen duen elkartea?

Argazkia eta galdera &gt; Joxefe Diaz de Tuesta

BMk emandako  
50 euroko erosketa-txartela  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOAK .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGGERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzaraBMn beti  
eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA  
Oñatioko M<sup>a</sup> ANGELES ARANA rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: Santa Lutziako zuhaixtixa.

Ahorronomina EUSKADIKO KUTXA

Hileroko  
aurrezkiarentzat...

%



U.T.B.

LEHENNGO  
URTEAN

Eskaintzak 2008ko irailerako balio du

**Ezaugarriak:**

- Erabateko erabilgarritasuna eta komisiorik gabe.
- Hileko ekarpena: 30 €-tik 300 €-raino.
- Interesak urtean likidatzen dira.
- Ordaintzen ez diren kuotengatik ez dago komisiorik edo zigorrik.

nomina Euskadiko Kutxan  
helbideratuta daukaten  
bezeroentzako abantaila berezia

**nominamulti**

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Maria Cruickshank > Aktorea eta ikaslea

# "Hirian kulturarako aukera gehiago dago, baina nik nahiago dut Oñati"

Artista izateko bidean doa 18 urteko neska oñatiar hau. Arte Ederrak eta Arte Dramatikoa

ikasten dihardu Bilbon eta laster Goenkaletelebista saioan ikusiko dugu aktore lanetan. Zine-

ma munduan jardun gurako luke. Lanak eta ikasketek uzten diot denbora apurrean, bes-

teak beste, bidaiatzea du gogo-ko; esaterako, Ingalaterrara, familiakoak bisitatzen.

#### IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Artista izateko bidean zerbait ikasi ostean bere buruari eta jendearei erakutsi nahi dio zertarako gai den. Neska alaia bezain burugogorra dela esan digu, eta horrek lagunduko dio bere nahia bete eta egunen baten filmen bateko protagonista izaten.

#### Arte Ederrak ikasten diharduzu. Nolatan aukeratu zenuen?

Orain dela hiru urte inguru marrazten ibiltzen nintzen eta Batxilergo Artistikoa egin nuen Arrasaten. Gero, antzerkigintza ikasi nahi nuen eta orduan ez zegoen titulazio berezirik. Lizentziatura bat izan nahi nuen eta gustuko nuenez Arte Ederrak ikastea erabaki nuen. Hala ere, nire lehentasuna antzerkigintza zen.

#### Arte Dramatikoa ikasten ere badiharduzu, ezta?

Bai. Orain arte Artebi eskolan ibili naiz, baina ikasturte berrian Bai eskolan dihardut. Nik ikasketak amaitzen ditudanerako eskola horretan titulu ofiziala jasoko dut, gainera.

#### Laster ETBko Goenkale saioan ikusiko zaitugu. Nola sortu zitzazun aukera?

Donostiako agentzia batean izena eman nuen, deitu zidaten casting baterako eta han aukeratu ninduten Itsaso-ren papererako.

#### Nor da Itsaso Goenkale-n?



Garai batean aitaitarekin Kubara joan zen neskatila bat, orain Arraldera bueltan datorrena. Leonor eta Koldo-ren etxeen biziko naiz, eurek adopzioan har tutako alaba Milena-rekin. Hasieran lotsati agertuko den arren, gerora bere adineko neska baten moduan jokatzen hasiko da.

#### Kubatik baldin badator, azen-tua landu beharko duzu, ezta?

Leonor-en papera jokatzen duen Ainhoa Aierbek erakutsiko dit. Entsegu egin dut, baita argazki saio bat eta makillaje eta arropa probak ere. Baina urrira arte ez naiz hasiko.

#### Hasi baino ez zara egin. Zer espero duzu Goenkale-tik?

Lantaldea eta gainontzeko aktoreak jatorrak iruditu zaizkit eta taldean integratzen lagundi ditate. Aurrerantzean ere hala izatea espero dut. Gainera, lehenengo, entseguak egiten ditugu, ez etxeen ikasitako besterik gabe joan, bota eta grabatu. Hortaz, oraingoz lasai nago.



IRATI AGIRREAZALDEGI

#### PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 18 urte. **Ikasketak?** Arte Ederrak eta Arte Dramatikoa. **Zaletatsunak?** Lagunekin egotea, bidaiatzea, txakurrekin paseatzea, argazkilari, musika eta bitxiak. **Aktore bat?** Scarlett Johansson. **Telebista saio bat?** *Anatomía de Grey*.

**Musikari bat?** Kate Perry. **Parrandarako toki bat?** Edozein. **Bidaia bat?** Karibeko hondartzetara. **Bizi-tzeke leku bat?** Itsasoa edo erreka eta mendia geru dituen edozein herri, hotz handirik ez dagoena. **Amets bat?** Aktore lanetan urrutira iristea.

#### Antzerkigintza ikasten diharduzu, baina orain telebistan hasi zara aktore lanetan. Zein esparru duzu gustuko?

Zinemako aktore izan gurako nuke; bestela, telebistakoa. Uste nuen urte pila bat pasa beharko nituela antzerkian telebistarako edo zinemarako pausoa eman aurretik; hortaz, Goenkaleko aukera oso pozik hartu dut. Horrela ikasiko dut kameraren aurrean nola portatu. Antzerki lanak eskolan edo ikastaroetan egin ditut, betiere gertuko jendearen aurrean. Telebistarekiko oso ezberdina da. Jendaurrean dena gorputzarekin adierazi behar da; telebistan, kamerak begirada bat harrapa dezake eta hori nahikoa izan daiteke adierazteko. Telebistako lanak errazagoa dirudi. Shock handiena da jendeak ezagutzea.

#### Ezagun izatea nola bizi duzu?

Hori da zailena. Ezagunak eta ezezagunak hasi zaizkit galdezka noiz aterako naizen, zer egin behar dudan... Inor ez izatetik jendeak ezagutzen aldaketa handia da, baina apurka baretuko da.

#### Dena dela, zu telebistan jardundakoa zara, ezta?

Betizu-n izan nintzen umetan, kantuan. Esperientzia ez zitzaidan askorik gustatu, poz itxura eman behar genuen, nahiko faltusa zen. Orain ez dut kantatzan, baina esan didate agian Goenkale-n abestu egin beharko dudala.

#### Ze arte diziplina duzu gustuko?

Arte Ederretan ikasitakoaren arabera diseinua dut gustuko, diseinu industriala. Hasieran, pinturarako motibazio handiagoa neukan, baina karrerako lehen urtean ikusi dut ikasketak pinturara bideratuegi daudela.

#### Aisiaaldian zer egiten duzu?

Lagunekin eta mutil-lagunarekin egon, Bilbon antzerkira eta zinemara joan, txakurrekin baserri inguruuan paseatu, bidaiatu, argazkiak atera... Hirian kulturarako eta casting-etarako aukera gehiago dago, baina nik nahiago dut Oñati. Gainera, baserrrian bizi naiz eta hiriko autoen zarata ez dut batere gustuko.

#### Aurrerantzean nola ikusten duzu zure bizimodua?

Goenkale-n ahalik eta esperientzia handien hartu gura nuke, eta pixkanaka Arte Ederretako ikasketak amaitu. Baina oraindik hasi baino ez naiz egin.

ENEKO AZKARATE > BERGARA

GOIENKARIA *on-line* irakur daiteke *Goiena.net* atarian. Hortaz, paperean jasotzeko aukerarik ez dutenek sarean ere irakur dezakete. Izan ere, PDF formatuan igozten da sarera eta eskura dago oso osorik. Pantailan, munduko edozein txokotatik irakur daiteke, baina inprimatu nahi izanez gero ere badago aukera, eta guztia doan.

Dagoeneko 2008ko GOIENKARIA guztiak daude kontsultatzeko moduan *Goiena.net*-en, eta asmoa da aurrerago beste urte batzuetakoak ere egotea, edozeinek kontsultatu ahal izateko, artxibo bikaina osatuz. Oraingo, egubakoitzeko GOIENKARIAko zenbakiak daude sarean.

#### SCRIBD PROGRAMAREKIN

"Scribd-ek sortutako iPaper dokumentu formatuari esker, edozeinekin nabiga dezake dokumentuan zehar erraz eta azkar, PDF batean baino hobeto", dio *Goiena.net*-eko arduradun Usoa Agirrek. "Ofimatiaka arloko *Youtube* deitzen diote askok", dio. Web 2.0-ko webgune bat da Scribd, non "edozein erabiltailek argitaratu ditzakeen bere dokumentuak eta konpartitu".

Besteak beste, formatu hauetan onartzen ditu: Adobe PDF, Adobe PostScript, Microsoft Word, Rich text format, Plain text, Microsoft PowerPoint eta OpenOffice Presentation Document.

#### AUKERA UGARI

Erreminta horrek hainbat aukera ditu: Scribd-en dagoen dokumentu orijinalera lotura, e-postaz bidali dokumentuaren lotura, dokumentuaren kodea hartu eta beste edozein webgune edo blogetan jartzeko aukera, dokumentuko informazioa ikusi, inprimatu...

Horretaz gain, dokumentuak ikus daitezke zerrenda moduan, liburu formatuan edo slide aurkezpen moduan; zooma dauka eta dokumentu barruan testua bilatzeko aukera ere eskaintzen du; artxibo bikaina da, hortaz.

#### EUSKARA

## Euskararen alde, Goiena gehien egiten dutenen artean

E.A. > BERGARA

Cyberekadai webgunearen arabera, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperativa Elkartea dago euskararen alde gehien egiten duten erakundeen artean. Elhuyar, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, EITB, *Berria*, Ikastolen Elkartea, Habe edo Bernardo Atxagaren ondoan jarri du Goiena. Goienaren gainean dio, GOIENKARIAz gain, webgune eraginkor bat, irratia bat eta telebista bat dituela eta horrek bihurtu duela "benetako mehatxu *El Diario Vasco*-rendako, Gipuzkoako hedabide eragin handikoena".

HEDABIDEAK > GOIENKARIA SAREAN

# GOIENKARIA sarean ere badago irakurgai

Web 2.0-ko programa ezaguneneko eta erabilienetakoan dago Scribd. Usoa Agirrek dioen moduan, "Youtube bideoen lideera den moduan, *Flickr* argazkie-

na eta Slidesharra aurkezpenea, Scribdet ofimatiako dokumentuen liderra izan nahi du Interneten". *Goiena.net*-en erremita hori txertatuta, GOIEN-

KARIAk ere presentzia dauka sarean, eta Scribd programak eskaintzen dituen aukera guztiez aprobetxa daitezke erabiltaileak.

'Goiena.net'-en irakur eta inprima daiteke GOIENKARIA munduko edozein tokitatik

Scribd programarekin nabiga daiteke sarean, horrek eskaintzen dituen aukera ugariez baliatuta



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



## LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion katalogo modularra.

### FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOA

Tornu konbentzionaleko mekanizazioa.	80 or.
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa.	80 or.
CNC tornuan programazioa. <b>FAGOR 8055.</b>	40 or.
CNC tornuan programazioa. <b>FANUC.</b>	40 or.
CNC fresagailuan programazioa. <b>FAGOR.</b>	46 or.
CNC fresagailuan programazioa. <b>HEIDENHAIN.</b>	46 or.
CNC tornuan programazioa eta exekuzioa.	46 or.
CNC fresagailu programazio eta exekuzioa.	46 or.
CNC sarpen bidezko elektrohidaguraren prestaketa eta programazioa.	30 or.
CNC hari bidezko elektrohidaguraren prestaketa eta programazioa.	30 or.
Abiadura handiko mekanizatua.	50 or.
CAD. <b>UNIGRAPHICS.</b>	30 or.
CAM. <b>UNIGRAPHICS.</b>	20 or.
Mekanika diseinua. 3D Modelaketa. Modelatu eta Planoak. <b>SOLID WORKS.</b>	30 or.
Mekanika diseinua. 3D Multzoak. <b>SOLID WORKS.</b>	30 or.
Marrazketa 2D irudikapen grafikoa. <b>AUTOCAD.</b>	40 or.
Planoen irakurketa.	50 or.
Saiakuntza Suntsitzaleak eta ez Suntsitzaleak.	40 or.
Elektrodo eta erdiautomatikorekin Soldadura.	55 or.
Lan arriskuen prebentzioa. Oinarrizko maila.	40 or.
Tratamendu Termikoak eta Metalografia.	60 or.
Egiaztapen dimensionala.	40 or.
Egiaztapen tridimensional. <b>COSMOS.</b>	40 or.
Automatismo hidraulikoak.	36 or.
Zubi-Garabi erabiltza.	15 or.
Jasoketa eskorga.	15 or.
Hotzeko estanpazioa disenua.	20 or.

### ELEKTRIZITATE ARLOA

Oinarrizko Automatismo Programariak. <b>STEP7-300.</b>	35 or.
Automatismo Programariak Aurreratuak. <b>STEP7-300.</b>	40 or.
Muntaia Domotikoak. I. Maila. Sistema zentralizatuak.	40 or.
Muntaia Domotikoak. II. Maila descentralizatuak. <b>BUS EIB.</b>	60 or.
Elektrotekniko automatismoak.	40 or.
Etxebitzeko instalazio elektrikoak.	60 or.
Megafonia-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Telefonia-interkomunikazio-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Antena-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Segurtasun-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Eguzki-instalazio fotovoltaikoak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Baimendutako instalatziale karneta ateratzena zuzendua Esperientziarik gabe.	100 or.

### ADMINISTRARITZA eta INFORMATIKA ARLOA

Empresa txikiaren Administrazioa eta Kudeaketa	60 or.
Nominak eta Gizarte Segurantza.	60 or.
Kontabilitate-analisia.	85 or.
Informatika-aplikazioak administrazio arloan (Windows, Word, Excel eta Interneta).	80 or.
Dokumentuen informatika-elaborazioaren kudeaketa (Word-Excel-Access, aurreratua).1	75 or.

Ikastaroen hasiera data izen emateen araberakoa izando da. Hasiera batean ikastaroak astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:30etara izando dira, kontuan hartuko direla erreleboka lan egiten duten ikasleak.

Informazio gehiagorako edo izena emateko:

IEFPS Miguel Altuna

Ibargarai 1 • 20570 Bergara • Tel.: 943 76 70 49 • Tel.: 943 76 93 94 • email: formakuntza@imaltuna.com

**berriak**

> 'ERREPORTAJEA'  
**Erreskate txakurrak zelan entrenatzen diren ikusiko duzue**

Elorriion dago Euskadiko erreskateko txakurren elkartea eta bertan, mendian galdua eta elur zein obra-hondakinen azpian harrapatuta gelditu diren pertsonak erreskatatzeko txakurrak entrenatzen dituzte. Elkarrean 1983an sortu zen eta ordutik hona ehuinetik gora erreskate egin dituzte. Debagoinetik ere joaten da jendea txakurrak entrenatzen. Hori izango da, beraz, datozen asteko erreportajeko gaia.

> 'ZAHARRAK BERRI'  
**Elias Kerexetarekin egongo dira 'Zaharrak berri' saioan**

Kutxako Urrezko Zerbitzuak babesten du Zaharrak berri saioa. Kutxako Urrezko Zerbitzuak, gainera, Donostiarra Zinemaldian urtero sari bat ematen du. Aurten, sari hori Elias Kerexeta ekoizle eta gidoigileari emango diote, Zinemaldian eskainiko duten Siete mesas de villar francés-filmagatik. Zaharrak berri saioan, sari banaketa eskaintzea gain, Elias Kerexetari elkarritzeta egingo diote.

> ARRASATE IRRATIA  
**Ohiko irratsaioak bueltatuko dira hurrengo astean**

Irratiaren ikasturte berria irailaren lehenengoan hasi arren, uda giroan ibili dira eta ohiko irratsaio batzuek oporrak izan dituzte. Baino dagoeneko bueltan dira eta datozen astelehenetik, atzera ere astero-astero entzungai izango dira Ilunpean eta Zaharrak Berri, ohiko formatuetan. Eta zela ez, Asteleheneren Kirokak irratsaioak asteroko martxarekin segituko du. Guztia ere 11:05ean hasiko dira.

> ARRASATE IRRATIA  
**Aquariumera joateko aurtengo azkeneko sarreren zozketa**

Uda sasoia domekan bukatuko denez, irratian ere udazkenari begira ipiniko dira datozen asteoan. Horrek esan gura du datorren astea izango dela aurtengoz azkena, Donostiarra Aquariuma ikustera joateko sarrerek eskuratzeko.

Horrez gainera, zapatuan, irailaren 27an izango den Secret Chief 3 taldearen konzerturako sarrerek ere zozkatuko dituzte. Parte hartzea: *irratia@goiiena.com* edo 943 25 05 05.

'ILUNPEAN' > MARTITZENA, 21:45

## Maider Undari elkarritzeta martitzenean 'Ilunpean'-en

Oletako borrokalaria datorren martitzeneko 'Ilunpean' saioko elkarritzeta da; saioa 23:15ean da.

GOIENKARIA > BERGARA

Joan den egubakoitzeko GOIENKARIA adierazi genizuen oraingo ikasturtean Goiena Telebistako hainbat saio egunez eta orduz aldatuko direla; bada, horietako bat da *Ilunpean* programa. Orain arte egubakoitzetan izaten zen eta hemendik aurrera martitzeten izango da.

Ikasturteko lehen saioko gonditada Maider Unda Aramaiko borrokalaria da. Unda Pekingo Olinpiar Jokoetan egon da uztalean, eta bertako biziñez, egunerokoaz, entrenamenduez eta beste hainbat kontuz arituko da Iker Barandiaranekin.



MAIDER UNDA Aramaiko borrokalaria dator *Ilunpean* saiora. GOIENKARIA

'HARMAILATIK' > ASTELEHENA, 22:15

## 'Harmailatik' hainbat berrikuntzarekin dator Goiena Telebistara

GOIENKARIA > BERGARA

Debagoineneko kirol hitzorduak protagonista dituen *Harmailatik* saioak badu berrikuntzari ikasturteari begira. Orain arte saioak ordu erdi irau du, eta orain 45 minutu izango ditu; horrek kirol albiste gehiago landu ahal

izatea eta horiek modu zabala-goan tratatzea ahalbidetuko du. Beste berrikuntzako bat da saioan zehar kirol irudi zaharrak erabili gura dituztela, kirolari dagokionez, orainaren eta lehenaldiaren arteko aldea erakusteko. Gainera, oraingo ikastur-

tean, futbolean preferente mai-larekin batera erregional mailako futbol taldeei ere eskainiko zaie tartea; izan ere, Debagoinen bost futbol talde daude mala horretan jokatzen.

### HAINBAT HITZORDU ASTEBURUAN

Datorren asteleheneko *Harmailatik* saioan, Debagoinen asteburuan izango diren kirol hitzorduen berri emango du Xabier Urtzaileak; hala nola, Aramaiko rallysprintaren, Mikel Deunaren eskubalo finalaren eta Oñatiako txirrindularitzaren sariaren berri.

**telebegi**

Gorka Etxabe > getxabe@arteman.org

### Euro bat

**N**ik ez nuke parte hartuko, ez nintzateke joango. Momentuz ez dut horrenbesteko beharrik. Behar bida, krisiak eraginda txorakeriaren bat egin beharko dut laster, baina oraindik ez. Gainera, adina ere ez dut tontokerietan ibiltzeko. Hizkuntzak ere ez naiz ondo moldatzen, eta hortaz nahiago dut etxearen geratzea, bero-berotan. Hori bai, badaude munduan abentura zaleak, euren burua ezagutzen eman nahi dutenak, anonimo izatetik publiko izatera pasatu nahi dutenak, dirua erraz irabazi nahi dutenak, telebistan agertu nahi dutenak eta aukera berriak gustuko dituztenak, bikote bila dabiltsanak, eta horientzat guztientzat telebista saio erakargaria da *Pekín express*. "Joan zaitezte Errusiatiak Pekineria ahal duzuen moduan, eguneko euro batekin, ea nola moldatzen zaretent!" esaten die aurkezleak parte hartzaileei eta haien aurrera. Telebista saio interesgarria iruditu zitzaidan. Domeka gauerako aproposa. Astelehen astunean lankideekin zenbait komentario egiteko aproposa. *Reality-en* artean desberdinena. Cuatroc beste apustu arriskutsu bat egin du. Ea oraingoan asmatzen duten.

**arrasate irratia**

FM 107.7

### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Alzemeraren kontrako eguna; gazteendako dirulaguntzak; Zuhaitz Ezpeleta Espainiako txapelduna; kaleko katuen problematika eta Ibai-Arte Txartela.

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarprena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean  
Kantaka  
Zaharrak Berri  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Astearen errepasoa  
Zozketak  
Zorion agurruk (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiiena.com*))  
11:55 Arrasateko albisteak, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albisteak  
12:10 Izarraren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albisteak.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## GOITBKo programazioa

### Egubakoitzta, 19

13:15 Emisio hasiera. 13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Ilunpean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportaje. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak 20:15 Marrazkiak. 20:45 Berriak. 21:15 Eltze Beroa. 21:45 Erreportaje. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 23:45 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

### Zapatua, 20

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Marrazki bizidunak. 12:45 Erreportaje. 13:15 Eltze beroa. 13:45 Erreportaje. 14:45 Ilunpean 15:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Erreportaje. 19:15 Berbaire. 20:15 Eltze beroa. 20:45 Erreportaje. 21:15 Ilunpean. 21:45 Musikantoi. 22:15 Erreportaje. 22:45 Ikuksizuna. 23:15 Musikantoi. 23:45 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

### Domeka, 21

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Marrazki bizidunak. 12:45 Erreportaje. 13:15 Berbaire. 14:15 Erreportaje. 15:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Erreportaje. 19:45 Sus-traiatz blai 20:15 Eltze beroa. 20:45 Erreportaje. 21:15 Ilunpean. 21:45 Musikantoi. 22:15 Erreportaje. 22:45 Ikuksizuna. 23:15 Musikantoi. 23:45 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

### Astelehena, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Mukamuka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ilunpean. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 16:15 Wazemak. 16:45 Berriak. 17:15 Berbaire. 18:15 Marrazkiak: Muka Muka. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazkiak: Muka Muka. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Erreportaje. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 23:45 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

### Martitzena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Futbola. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ikuksizuna. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Berbaire. 18:15 Marrazkiak: Futbola. 18:45 Berriak. 19:15 Eltze beroa. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazkiak: Futbola. 20:45 Berriak. 21:15 Eltze beroa. 21:45 Ilunpean. 22:15 Erreportaje. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 00:15 Emisio amaiera.


### Eguaztena, 24

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ilunpean. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ikuksizuna. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Wazemak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Marrazkiak: Muka Muka. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak: Muka Muka. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak Berri. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 22:00 Wazemak. 22:45 Berriak. 23:15 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

### Eguena, 25

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak Berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erreportaje. 16:00 Gaurkoak. 16:00 Ikuksizuna. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 28 Klip. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Marrazkiak: Futbola. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazkiak: Futbola. 20:45 Berriak. 21:15 Eltze beroa. 21:45 Ilunpean. 22:15 Erreportaje. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Musikantoi. 23:15 Ilunpean. 23:45 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leiohak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
  - K-21
- Telleria 19 B02-B03  
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
  - Salmenta eta konponketa
  - Instalazio elektrikoak
  - Atezain automatikoak
  - Antena kolektiboak
- Otalora 14  
T: 943 79 16 10  
F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
  - Antena kolektiboak
- Zerkaosteta 15  
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83  
F: 943 79 68 21

### ARETXARGI

Aretxabaleta

- Instalazio elektrikoak
- Belorrieta 15 behea  
T: 943 532 628 / 645 734 032  
F: 943 532 629  
[aretxargi@euskalnet.net](mailto:aretxargi@euskalnet.net)

### BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati

- Erreformak orokorean
- Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
- Kale zaharra 60 - 3 erd.  
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

### RELE

Eskoriatza

- Instalazio elektrikoak
- Santa Ana 12 eta 17  
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12  
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa  
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59  
[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

### FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
  - Kontratak
  - Enpresen mantentze-lanak
- Intxartxueta 5  
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22  
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

### DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza

- Barruko lanetan espezialitatea
  - Berrikuntza-obra orokorean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
- Intxartxueta 7, 2D  
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27  
[Dela-torre@euskalnet.net](mailto:Dela-torre@euskalnet.net)

## ITURGINTZA

### ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Sukalderako eta bainugelarako altzariak
- Santa Kurtz 24, behea  
T: 943 79 17 53  
F: 943 79 17 53

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
T: 943 77 01 85

### IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
  - Berogailua eta gasa
  - Bainugelak
- Kale Txiki 9 behea  
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

### J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Ura
  - Gasa
  - Kalefakzioa
- Mitarreta 15  
T: 943 793 187  
F: 943 793 187

### OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
  - Berogailuak eta petrolio-produktuak
  - Klimatizazioa
- Aranburuzabala 15  
T: 943 71 47 14 / 606 007 369  
[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## TXORROTA

Arrasate

- Berogailua eta gasa
  - Galdrak aldatzea
  - Obra integralak
  - Zaharberritzeak
- Bolibar doktorea 5, behea C  
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17  
F: 943 77 17 13

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiek
  - Berokuntza eta gasa
  - Aire girotua eta haizeztatzea
- Basabe industrialdea B-3  
T: 943 77 19 88  
F: 943 79 59 97

## VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
  - Bainugelako altzariak
  - Berogailuak
  - Erretenak ipini eta garbitzea
- Santa Kurtz 7, 3. ezk.  
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

### MULTIARREGLOS

Arrasate

- Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
  - Instalazioak; Geletan antenak, telefonoen kableak...
  - Jartzeak: Koadroak, lanparak gordian...
  - Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
- Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIC

Arrasate

- PVC leihoak
  - Aluminio termikoko leihoak
  - Poliuretanozko leihoak
- Zigarrola 1- 8 pab.  
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18  
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

## ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
- Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia  
T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

## YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehio eta ate isolatzialeak
  - PVC leihoak
  - Aluminio termikoko lehioak
  - Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
- Kataide poligonoa 4 Pab.  
Tel: 943 77 01 57  
F: 943 77 03 21

## LEIHATEK

Arrasate

- Leiho eta ate isolatzialeak
  - Aluminio termikoko, PVC mota ezberdinak
  - Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
  - Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
- Okendo 1 - behea  
T: 943 79 69 91  
[ventanasleihatek@hotmail.com](mailto:ventanasleihatek@hotmail.com)

## LOREZAITZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorenzaintza
  - Ureztatzeko sistemak
  - Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1  
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98  
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorean
  - Pareztatzeak
  - Errrotulazioa
- Maitena 3-1.  
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

### DAVILA MARGOAK

Aretxabaleta

- Margoak orokorean
- San Migel 7, 3d.  
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Iraillak 19-25

## Jaia



OÑATI

### > Umeen danborrada, erraldoiak, txorimaloak eta beste, bihar

San Migel jaien atarian, ospakizun batzuk egongo dira aste bukaeran. Nabarmenetakoia izango da umeen danborrada, bihar, 18:00etan hasita, Musika Bandarekin. Gero, txorimaloak eta erromeria izango dira.

## Antzerkia



ARRASATE

### > 'Enkantatuta' lanaren euskarazko estreinaldia egingo du Virginia Imazek

Virginia Imaz aktore berigararrak 'Enkantatuta' delako antzezlanaren euskarazko bertsioa estreinatuko du etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean. Betiko ipuinek transmititzen dituzten balioei buelta ematen die lanak.

## Jaia



ARAMAIO

### > Sagardo Eguna ospatuko dute Txirritolak eta Sagardozaleen Elkarteak

Etzi, domeka, izango dira ospakizunak: 11:30ean, trikitilarien kalejira; 12:00etan, bertsolarien agurra eta txotxa; eta 12:15ean, Aramaioko sagardogileek egindako sagardo dastatzea. Horrez gain, taloak eta gazta izango dira.

## Antzerkia

BERGARA

### > Potxin eta Patxin pailazoek ikuskizuna egingo dute

Potxin eta Patxin pailazoek Egipto gertatuak delako ikuskizuna egingo dute. Etzi, domeka, San Martin plazan, 19:00etan.

ARETXABAleta

### > 'Ogijik karri etzun semia' delako antzeziana

Ogijik karri etzun semia delako antzeziana egingo du Txirene taldeak gaur, egubakoitza. Umorearen bidez, egungo ama baten eta unibertsitatean daukan semearen arteko harremana kontatzan da bakarrizketa batean.

Sarrera 10 euro da.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:00etan.

ARETXABAleta

### > Elvi sabel-hiztunak emanaldia egingo du bihar, zapatua

Elvi sabel-hiztunak emanaldia egingo du 3 urtetik gorako umeendako. Sarrera 5 euro da.

Bihar, kultura etxean, 17:00etan.

## Musika

ARRASATE

### > Kubako musika emanaldia egongo da gaur 3.60an

Vanito Brown musikari kubatarrak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan. Sarrera 6 euro kostatuko da.

Emanaldia 22:30ean hasiko da.

ARRASATE

### > Secret Chiefs 3 taldeak kontzertua egingo du

Secret Chiefs 3 AEBetako talde instrumentalak kontzertua egingo du hilaren 27an Amaia antzokian, eta sarrerak

salgai daude: [www.generaltickets.com/kutxa](http://www.generaltickets.com/kutxa) helbidean, 943 00 12 00 edo txarteldegian, 10 eurotan.

Kontzertua hilaren 27an, zapatua, izango da, 20:00etan.

ELGETA

### > Golpe de Estado, Afonia eta Plan B taldeen emanaldia

Golpe de Estado (Oñati), Afonia (Hernani) eta Plan B (Donostialdea) taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA

### > Back to School jaia egingo du Kogollo Party Krew-k

Kogollo Party Krew-k jaia antolatu du. Iruñeko Chit Chat Sex Band soul elektroniko taldea da gonbidatu nagusia. Sadistic Lovers-ek ikuskizuna egingo dute.

Zapatua, Go-Jam aretoan, gauerdian.

ELGETA

### > Ehun Vespa eta Lambretta etortzea espero dute

Vespa eta Lambretta motorren topaketa egingo dute Elgetan etzi, domeka. Hirugarren edizioa dute aurren, eta iazko arrakasta gainditzea espero dute antolatzaleek: hau da, gutxienez 100 motorzale erakartza. Motorrak 12:00ak arte egongo dira ikusgai plazan; bitartean, salda eta txorixoa banatuko dituzte Ozkarbin. Gero, 40 kilometroko ibilaldia eta baziaria izango dituzte.

Motorren erakusketa 09:00etatik 12:00etara izango da, plazan.

## Erakusketak

ELGETA

### > Pilar Muñoz margolanak ikusteko parada, Espaloian

Pilar Muñoz margolari bilbotarraren 20 bat lan ikusteko aukera dago Espaloia antzokian. Bergarako eta Bilboko hainbat txoko margotu ditzu.

Hil osoan egongo da erakusketa antzokian; gogoratu astelehen eta martxetenetan 16:00etan ixten dutela aretoa. Iraillaren dago zabalik.

OÑATI

### > Corpus prozesioko irudiak erakusketan ipini dituzte

Corpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoeak.

Parrokian daude ikusgai, honako ordutegian: zapatuan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30;

domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

BERGARA

### > Mari Carmen Laskurainen margolanen erakusketa

Mari Carmen Laskurain Loiduren margolanak ikusteko aukera dago irail osoan.

Zernahi kafetegian dago erakusketa.

ARRASATE

### > 'Islam, guztion ondarea' delako erakusketa, Kulturaten

'Islam, guztion ondarea' delako erakusketa didaktikoa ipini du Elkarhezitzen taldeak. Hilaren 28a arte dago berau bisitatzeko aukera. Islamaren zibilizazioak egindako ekarpena azaltzen du erakusketak.

Bisita ordutegia: martxetenetik domekara, 18:30-20:30.

PROPOSAMENA



## ARETXABAleta

### > Nafarroaren gaineko argazki erakusketa dago Arkupen

Hil osoan, *Navarra a la carta* delako erakusketa dago zabalik, izen bereko liburuan oinarrituta. Nafarroako historia, kultura, natura eta gastronomia ondarea ezagutaztea da helburua.

Orduetgia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

## BERGARA

### > Unai Azkarateren margolanak ikusgai Nahikari tabernan

Unai Azkarate (Bergara, 1980) margolariaren lanak ikusteko aukera dago Nahikari tabernan irail osoan. Formatu txikiko zazpi lanek eta handiko lauk osatzen dute erakusketa; udan egindako lanak dira, eta gehienak musika dute gaitzat. Hainbat teknika erabili ditu Azkaratek.

Masterreka kalean dago taberna.

## BERGARA

### > Kirol argazki lehiaketako lanak ikusteko aukera dago

Bergarako kirol argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa bisitatzeko parada dago Aroztegi aretoan. Gaur, egubakoitza, irekiko dute, eta hilaren 28a arte egongo da zabalik.

Martxetenetik egubakoitza, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

## BERGARA

### > San Martin jaietako ageriko margo lehiaketako lanak

San Martin jaietako domekan jokatu zen ageriko margo lehiaketako lanen erakusketa ikus daiteke. Kultura etxean dago, irailaren 27a arte.

Astelehenetik egubakoitza: 18:00-21:00; zapatuetan: 12:00-14:00.

## Ospakizunak

### ESKORIATZA

### > Gazteleku irekiera jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza

DBH 1.-4. maila arteko ikasleek gazteleku irekiera jaialdian parte hartzeko aukera dute gaur. Biher, zapatua, Mugikortasun Astearen barruan, bizikletan irteera egingo dute, eta 17:30ean batuko dira horretarako gaztelekuak.

Jaialdia, gaur, egubakoitza, 18:00etan.

### ESKORIATZA

### > Merkatarien dastatzea antolatu dute biharko

Herriko merkatarien saiheski erreña prestatuko dute biher, zapatua. Herritarrek okela pintxo eta sagardoa edo ardoa hartzen dituzten bitartean, trikitilariek giroa alaituko dute.

Bihar, zapatua, herriko plazan, 19:30ean hasita.

## LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguzteneko eguerdia baino lehen. Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13



# Jaiki eta gorputza mugitu

**HELBURUA** Jaiki elkartekoan asmoa da adierazpen tekniken bidezko garapena eta sormena lantzea

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABAleta**  
Iraileko aldapa malda gora izaten da gehienondako. Neke hori arintzeko aukerak eskaintzen ditu Aretxabaletako Jaiki elkarreka.

Gozatu ekimena taldearen harira sortu zen Jaiki. "Herriarren ekimena da, Aretxabaleta eta inguruan arlo honetan zegoen hutsunea ikusita jaio zena", esan digu elkarteko Maier Etxebarriak.

Kultura eta gorputz espresio eta mugimenduarekiko harreman estuagoa izan nahian ikastaroak antolatzen hasi ziren. "Gerora adierazpen tekniken bidezko garapena bihurtu da gure xedea. Azken aldian sormenari ere indar gehiago eman nahi izan diogu", dio Maier Etxebarriak.

Talde irekia dela esan digu: "Ikastaroetara jende mordoa etortzen da, batik bat 25 eta 35 urte bitartekoak hartzen dute parte, dantzakoetan gehien bat. Baina 40tik gorakoak ere etorri izan dira, ikastaroaren arabera beti ere. Elkar ezagutzea, kultur etkinzetan murgiltzea eta ikasitakoa plazaratzea dira gure helburuak".



PLAZARATU Jaiki elkartekoan helburua da ikasitakoa jendaurrean azaltzea.

GOIENKARIA

**PARTAIDEAK** dantza ikastaroetan batik bat 25 eta 35 urte bitarteko jendeak hartzen du parte

**IKASTAROAK** margogintza, dantza librea, dantza afrokaribearra, munduko dantza eta jam saioak antolatu dituzte

## LOKALA KUARTEL ZAHARREAN

Udazkena berrikuntzak hasiko dute Jaikikoek. Udalak kuarter zaharreko dantza lokala erabiltzeko baimena eman die eta dantza ikastaroak han egingo dituzte. "Egurrezko lurra, argi gehiago eta ordutegi zabalagoa izango ditugu", dio Maier Etxebarriak.

Hainbat ikastaro antolatu dituzte eta jadanik zabalik dago izena emateko epea. Horretarako ere helbide berria ipini dute: [jaikielkartea@yahoo.es](mailto:jaikielkartea@yahoo.es).

Eskainiko dituzten ikastaroak dira: margogintza sortzailea, irailaren 20an, ikastaro trinkoa izango da; dantza libre topaketak hilean behin, egun arratsaldez, Isabel Alzola irakaslearekin; dantza afrokaribearrak astean behin martitzetan; munduko dantzen ikastaroa Javier Muelarekin azaroaren 15ean eta 16an; eta jam saioak hilean behin domeka arratsaldetan. Lehenengo saioa urriaren 5ean izango da eta asmoa da musika, dantza eta beste arte arloak nahastuz inprobisazioa lantzea.

## ahobero

"Bermerik onenez bikotekidea hautatzeko, onena da aurrez 12 bikotekide izatea"

Claudi Alsina > Matematikaria

Probatu eta probatu hamabigarrenera iristerako, baliteke bikotekidearekin ezertxo ere egiteko gauza ez izatea. Horretarako, alferrik dira zenbakiek eta matematika kontuak. Bat eta bat bi dira batzuendako, hamaika bes-teendako eta matematikiek ere huts egin dezakete.

## iturri onetik

**Bergaran ospatuko dute Euskal Eskola Publikoen jaia ekainaren 7an**

Euskal Eskola Publikoaren jaia ibarrean ospatuko da 2009an: Bergaran, ekainaren 7an. Hala baiezta dugute Baikara Gipuzkoako Eskola Publikoko Gurasoen Elkarteen Federazioan. San Martin ikastetxea eta hango guraso-en elkartea arduratuko dira herriko hainbat gunetan ekintzak antolatzeaz. 2006an ere Debagoienean egin zen Euskal Eskola Publikoaren jaia: Oñatin, hain zuzen ere.

## piperraутса

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperraутса](http://www.goiena.net/blogak/piperraутса)

ANV, agur

Asteon jarri dute legez kanpo alderdi zaharra. Hurbilekoa nuen umetan, osaba Xanti Acción-ekoak baitzen. Alderdi modernoa zirudien jeltzaleen aldean, eta horregatik nuen gustuko.

Trantsizioan agertu zen berriro, nahiko ahul, pertsona xelesrez osatua. ESBrekin juntadizo laburra egin ondoren, HBren sorrerako kide izan zen. Eta horiraun du neke handiz, harik eta eginkizun handitan sartu duten arte. Hain zuzen, ezker abertzale legez kanporatuan marka bihurtu izanak ekarri dizkio ospea eta egurra.

Bestela ere, arrazoi ugari legoke oraintxe negar egiteko: beste alderdi bat legez kanporatzea normaltasunez hartzen dugula ikustea, esaterako. Baina, Xanti osaba gogoan, doakiola gaur nire malko bat haur nintzeneko alderdi modernoari.

## ai, eñe!



**Garagardo bakarra, mozkortzeko nahikoa**

Mozkortutakoan batek baino gehiagok esaten du: "Garagardo bat baino ez dut edan". Bat, baina horrelako tamainakoa bada...

[www.todo humor.com/imagenes](http://www.todo humor.com/imagenes)



Arkauz zure etxea da.

